


LOUISE MICHEL

Erbesteko gutunak Victor Hugori



Hitzaurrea:
Amaia Lasa Alegria
Hitzatzea:
Nora Arbelbide Lete

Katakrak argialetxean lizentzia askeen aldeko apustua egin dugu, horregatik kopiatu eta zabal ditzakezu gure liburu gehienak. Lizentzia hauek kultura zabaltzeko tresna onena dela uste dugun arren, tamalez, gure liburu guztiek ez daukate Creative Commons lizentzia, nahiz eta gehienek hala duten.

Gaur egun, teknologien garapenari esker fitxategi digitalen kopia pribatuak egitearen kostua doakoa da, horrek kulturaren irisbide demokratikoan aurrerapen handia ekar dezake.

Halere, liburuak digitalki doan egon daitezen kostu handia izan dute aurretik. Lagun askoren lana dago atzean eta diru inbertsioa (eskubideen erosketa, itzulpena, diseinua, maketa lanak eta edizioa). Horregatik, gure testuak libreki eskuragai egon daitezen laguntzeko emaitza bat egin dezazun nahi genuke.

Louise Michel

ERBESTEKO GUTUNAK
VICTOR HUGORI
(1850-1879)

Louise Michel

ERBESTEKO GUTUNAK
VICTOR HUGORI
(1850-1879)

Itzulpena eta hitzaurrea: Amaia Lasa Alegria
Hitzatzea: Nora Alberbide Lete

Jatorrizko izenburua: *Lettres à Victor Hugo (1850-1879)*
Izenburua: *Erbesteko gutunak Victor Hugori (1850-1879)*
Egilea: Louise Michel, Jules Vallès
Jatorrizkoaren lizentzia: Domeinu publikoa
Argitalpen honen lizentzia: Creative Commons
Barruko argazkiaren egilea: Elisabeth Dmitrieff
Barruko argazkiaren lizentzia: Domeinu publikoa
Gutunen eta sarreraren itzulpena: Amaia Lasa Alegria
Poemen eta aldarrikapenen itzulpena: Hedoi Etxarte Moreno
Orrazketa orokorra: Mikel Elortza
Sarrerak: Xavière Gauthier
Hitzaurrea: Amaia Lasa Alegria
Hitzatzea: Nora Arbelbide Lete
Diseinua: Koldo Atxaga Arnedo
Lehenengo edizioa: 2020ko azaroa
Edizioa eta maketazioa: **Katakarak Liburuak**
Kale Nagusia 54-56
31001 Iruñea
argitaletxea@katakarak.net
www.katakarak.net
@katakarak54



Liburu honek Creative Commons lizentzia bat dauka. Aitortu-EzKomitertziala-LanEratorririkGabe 4.0. Nazioartekoa. Askatasuna duzu lan hau kopiatu, zabaldu eta jendartean erakusteko beti ere asmo komertzialik gabe. Obra honetatik ezin da beste ezein lan eratorri.

ISBN: 978-84-16946-44-0

Lege gordailua: NA 1954-2020

Inprimaketa: Alzate Grafikak

AURKIBIDEA

ARGITALETXEAREN OHARRA	13
HITZAURREA (Amaia Lasa Alegria)	25
SARRERA (Xavière Gauthier)	31
BIOGRAFIA (Xavière Gauthier)	37

I HAUTE-MARNEKO GAZTELUKO GUTUNAK 1850-1861	47
Vroncourt-la-Côte, 1850eko abuztua.....	49
1850.....	53
1850eko urriak 10.....	55
1850	57
Vroncourt, 1851ko martxoak 23	59
Vroncourt gaztelua, Bourmontetik gertu, Haute-Marne	61
Vroncourt gaztelua, Bourmontetik gertu, Haute-Marne	81
Vroncourt gaztelua, Bourmontetik gertu, Haute-Marne	83
Vroncourt gaztelua	87

Madame Beths-en barnetegia, Mutualitate eskolatik gertu, Chamont-en-Bassigny, Haute-Marne	89
--	-----------

II MONTMARTREKO GUTUNAK 1862-1870	93
Paris, 1862ko irailak 12	95
1862ko irailak 12	97
Paris	99
5 rue de Cloÿs, Montmartre, Paris	101
Paris	103
Paris	105
Paris	107
Paris	111

III GUTUNAK VERSAILLES-KO ETA AUBERIVE-KO KARTZELETATIK 1871-1873	113
1871ko urria	115
Versaillesko kartzela, 1871ko urriak 13	119
Paris etorbidea 20, Versailles	121
Versaillesko kartzela, 1871 urriak 19	123
Auberive 1873ko urtarrilak 28	125

IV KALEDONIA BERRIKO ERBESTEKO GUTUNAK 1874-1879 ..	127
Ducos penintsula, 1874ko martxoak 28	129
Ducos Penintsula, 1874ko irailak 8	131
Victor Hugorentzat	133
1875eko ekainak 22, Mendebaldeko badia	135

Mendebaldeko badia, 1876ko ekainak 18	137
Mendebaldeko badia, 1878ko irailak 23, Victor Hugorentzat .	139
Mendebaldeko badia, 1878ko irailak 23, Victor Hugorentzat .	141
1879ko maiatzak 31	143
 POEMAK	 145
3. gerra kontseiluari	147
Versailles hiriburu	148
Gure garaileei	149
Negua eta gaua	150
Itsaso polarretan	152
Virginie ontzian	154
Gerra kantua	156
Ilargiaren argi aparta	157
Germinal	158
 ALDARRIAK	 161
«Komuna aldarrikatu dugu» (Jules Vallès)	163
«Gora Komuna!» (Louise Michel)	167
 HITZATZEA «BIBA LIBERTATEA!» (Nora Arbelbide)	 177





ARGITALETXEAREN OHARRA

ITSASO POLARRETAKO BIRJINA GORRIA

*Komuna maitasun zartada bat da,
Eta Paris harro egon daiteke;
Globo artega honek bolbora usaina du
Atzo balitz bezala.
Porrota errebantxa zain dago. [...]
Berdintasunak bere goldea jarri du
Ildoen bihotzak zulatzeko.*

Eugène Pottier, *Komuna hemendik pasa da!*
1879, Newark

Aurki beteko ditu 150 urte Parisko Komunak, liburu hau iraultza hartaz eta bertan parte hartu zutenen munduaz hitz egiteko aitzakia bat da. Baina hau ez da historia liburu bat. Alearen funtsa gutunak dira, Louise Michel hasieran gazte eta amaieran helduak, bizitza osoan zehar garaiko Frantziako idazle ezagunenetakoari, Victor Hugori, idatzi zizkionak. Kontrako norabidekoak ez dauzkagu. Oso ohikoa da iraultzaileek jasotako gutunak ez gordetzea. Hala gertatu zitzaigun Rosa Luxemburgen Kartzelako gutunak Sophie Liebknechti (Katakarak 2018) bilduman ere. Gutunez

gain, bestelako material batzuk ekarri ditugu liburuan: olerkiak, Michelen kontrako gerra kontseiluko pasarte ezagunenak, Komunaren aldarrikapen bat, bi sarrera filologiko eta egungo bi material (Amaia Lasa eta Nora Arbelbideren eskutik).

Galdera zilegi da: zergatik ekarri Louise Michel eta ez beste iraultzaile bat? Ez dago erantzunik. Iraultza garaikide koralik egon bada, Komunaren egunetakoa izan da, historia liburuetan nabarmena da: ekimen eta protagonismo handiko masa batek parte hartu zuen hartan. Federica Montsenyk hala idatzi zuen 1937an:

Komuna zapaldu ostean, Versailleskoak ez zuen izenik izan. Komuna ezin da pertsona bakarrean zentratu. Gizon mordoa egon zen, eta emakumeak; Reclus, Pyat, Rigault, Ferré, Louise Michel; hainbeste gizon eta emakume! «Pétroleusesak», emakume heroikoak, eta haien artean historiak Maria Fernandez espainiarra jaso du.

Porrotaren ostean ikono asko sortu ziren. Baina Louise Michelek baditu, beste iraultzaile askoren aldean ezaugarri diferenteak. Gizonen iraultza izateaz gain, emakumeena ere izan zen 1871koa eta gizon eta emakume¹ horien gainetik nabarmendu zen Michel. Bere hiletara, 1905eko urtarrilaren 21ean, 120.000 lagun joan ziren Levalloiseko hilerria. Bide horretan,

1 Louise Michelek gutun bidez iraultzaile hauekin aritu zen, adibidez: Marie Audrain, Caroline Baudoin, Marie Cailleux, Josephine Courtois, Adèle Desfossés, Marie-Delphine Dupré, Béatrix Excoffon, Marie Laguerre, Nathalie Lemel, Marie-Jeanne Moussu, Sophie Poirier, Malvina Poulain, Elizabeth Rétoffe, Richoux andrea, Victorine Rouchy, Marie Schmitt, Marguerite Tinayre, irakasleak, anbulantzia gidariak, barrikaden antolatzaileak, prostitutak, kantinen antolatzaileak, erresidentzien zuzendariak, ordezkari politikoak, militanteak, kazetariak, Internazionalako kideak, feministak, erizainak, dibortzioaren aldeko militanteak, animalien eskubideen aldekoak. Guztiek mereziko lukete hemen eman ezin diegun toki bat, iraultzaren aberatsa eta genealogiaren zabalera marraz daitekeelako bakoitzarekin.

iraultzaile eta poeta izateaz gain irakaslea izan zen, pedagogiarekin kezkatua, naturazalea izan zen, literaturazalea, kolonialismoaren kontrako posizioak izan zituen, anarkista egingo zen eta internazionalista.

150 urte

Parisko Komuna gertatzeak azalpen historiko asko izan zituen (Napoleonen botere autoritarioa, prusiarren aurkako gerra, 1830 eta 1848ko iraultzetako porrotak) eta aspirazio politikoak ere bat baino gehiago izan ziren. 1868 eta 1870 urteen artean 1.000 asanblada publiko baino gehiago egin ziren Parisen, horietakoren bat 20.000 lagunekoa. Entzule anitzen artean polizia ere egoten zen «parlamentu herrikoi» horiek segitzen. Agente haien txostenei esker, historialariek gertakizun horien bertsio polizial aberatsa daukate.

Halere, John Merriman-ek jaso bezala, garaian Parisen egon ziren nazioarteko bidaiarien aburuz Komunakoa klaseen arteko gatazka bat izan zen muinean. Wickman Hoffman estatubatuarrak adibidez, nabarmendu zuen aipatzekoa zela «Frantzian existitzen zen klase gorrotoa». Komunako partaideen gehien-gehienak langileak ziren, eta artisauak. Baziren obrero kualifikatuak eta erdi-kualifikatuak, egiten zuten lan zurgindegietan, zapatategietan, inprimatze lanetan, eskala txikiko metalen ekoizpenean, eraikuntzan, gainera baziren etxeko langileak ere, zerbitzariak eta jornalariak. Horrez gain, bulegariak eta ogibide liberalak asko ere Komunaren aldekoak ziren. Monarkiak gehien kolpatutakoak ziren eta alemanen sitioa pairatu zuten.

Frederic Harrisonen aburuz, Komunakoa «gobernu iraultzaileen artean krudelkeria gutxien

erabilitakoa izan zen eta, gainera, garai modernoetan egon zen gaitasun handikoena».² Komunazale ohikoa paristar ohikoa zen, gaztea, hogeita bat eta berrogei urte artekoa. Haien artean hiru laurdenak Paristik kanpo jaio ziren, oro har Paris iparraldetik zetozen. %45 soilik zegoen ezkontuta eta %6 alarguna zen, langileetako asko izatezko bikoteekin bizi ziren. %2k soilik jaso zuen bigarren hezkuntza. Ordea, %11 soilik ziren alfabetatu gabeak. Emakumeen artean %70 oihalgintzatik eta arropa ekoizpenetik zetozen. Komunaren garaian janariaz eta edariaz arduratzeaz gain mediku lanak egin zituzten, zaurituak artatu zituzten. Louise Michelek prostituzioan aritutako emakumeen lana defendatu zuen Komunan. Komunak alargunei eta seme-alabei pentsioak eman zizkien, seme-alaba legitimoak izan ala ez.

Paris udal erakunderik gabe zegoen, botere zentrala beldur zelako hiriburuak boterea kudeatzean zer egin zezakeen. Frantziako gainontzeko 36.000 udalerrietan ez bezala, 1794an aurrena eta 1848ko uztailean gero, paristarrek ezin zuten alkaterik hautatu. Beren barrutiak (arrondissements) enperadoreak hautatzen zituen zuzenean. Gobernu zentralak hautatzen zituen alkate eta alkate-ordeak. Horrek guztiak «autodeterminazio desira handi bat sortu zuen».³ Horregatik, Komuna iritsitakoan, antolakuntza eta militantzia auzoen eskalan gertatu zen. Iraultza gertatu arte, ez zegoen garbi nora joko zuen kontuak, Louise Michelek berak aldarrikatu zuen «Martxoaren 18ak erregeen aliatuak, atzerritarrak ala herria lagun zezake[ela]. Baina herria izan [zela] garaile atera zena». Auzo an-

2 John Merriman, *Masacre. Vida y muerte en la Comuna de París de 1871*, Siglo XXI: 2017 Madril. 118. or.

3 33. or.

tolakuntzaz gain, iraultzetan sarri gertatu bezala, Komuna gertatu bazen, beren goi mandoak obeditu ez zituzten soldaduengatik izan zen. Michelek subofizial bat gogoratzen zuen, jende xehearen kontra tiro egi-tera zihoazenean Lecomte burua baino altuago «Eman buelta fusilei!» oihukatzen hasi zena, soldaduek obeditu zuten, hala hasi zen iraultza, intsubordinazio keinu batekin.

Iraultzailea eta idazlea erreakzioaren garaian

Anomalia bat izan ziren Komunaren alde jarritako idazleak. Izen handi ia guztiak Komunaren kontrako taldeetan egon ziren, esplizituki gainera, idatzi zituzten fikziozko lanak, arketipoak erabiliz Komunako parte-hartzaileen (gazte intelektualak, obreroak, emakume burujabeak, lapurrak) topiko erreakzionarioak zabal-tzeko. Salbuespena izan zen Louise Michel, nahiz eta ez zen idazle gisa ezagun garaian. Michelekin batera Vallès, Rimbaud, Verlaine eta Villiers de L'Isle-Adam. Victor Hugok neutraltasun posizioa hartu zuen gertatu bitartean, nahiz eta Versaillesen errepresioa irmo kondenatu zuen errepresioaren garaian. Gainontzeko idazle guztiek Komunaren kontrako posizioa hartu zuten, Paul Lidskyren esanetan. Arrazoietakoa bat 1848ko iraultzetako porrota da. Idazle asko iraultzaren alde aritu ziren, iraultzak huts egin zuenean artean bilatu zuten gordelekua, eta artetik politika erreakzionario-ra egin zuten jauzi: iraultzaile izatetik iraultzaileak gorrotatzera. Artistek ulertu omen zuten «erabateko gaizki-ulertu bat egin zela, ez soilik herriak ez zituela [artisten] helburuak, baizik eta, oso sarritan, helburu antagonikoak zituela».⁴

4 Paul Lidsky, 43. or.

Eskuineko idazleen artean zeuden Maxime du Camp, Dumas semea, Paul de Saint-Victor, Alphonse Daudet, Renan, Ségur-eko kondesa, Taine, Louise Veuillot. Komunaren kontra ziren idazle moderatu eta errepublikarrak ere: Coppée, Anatole France, Catulle Mendés, Richepin, Sand edota Zola.⁵ Testuinguru politiko-literario horretan ulertu behar dugu Louise Michel idazlea ere.

Daniel Armogathek eta Marion Piper-ek ondu zuten Louise Michelen obra poetikoaren antologia.⁶ Michelen irriketako bat, gaztarotik heriotzara, poesia irakurtzea eta idaztea izan zen. Eta bere obra osoan bada elementu zentral bat: naturarekiko maitasun erromantikoa. Natura eta gizakia, natura eta eraikinak, natura eta erbestea, natura eta askatasuna, landako Frantziatik Kaledonia Berrira. Parisa bizitzera joan zenetik, naturaz gain iraultzak hartuko du tokia, Komunari lotutako aldarriak, baina baita mundu osoko lagun eta burkideen aldeko aldarriak ere.

Xavière Gauthierrek defendatzen du, Komunako egunetan Louise Michel bezain militanteak asko izan zirela. Eta, beraz, bere osperako bidean bi elementu ezinbesteko egon zirela: gerra kontseiluaren aurrean izan zuen hitzartze suharra, eta kontseiluaren ostean, 1871ko abenduan, Victor Hugok idatzi zuen Viro Major poema. Olerki horren ostean, Michel gai poetiko bihurtuko da. Henri Rochefort-ek Sur la «Virginie» idatziko du 1873an, eta poetaz poemak egingo dituzte ere Clovis Huguesek, Paul Verlaine, Jules Jouyk, Roullotek, Villeméjanek, Georges Piochek.

5 55. or.

6 Daniel Armogathe eta Marion Piper, *Louise Michel à travers la vie et la mort, Actes et mémoires du peuple*: 1982 Paris.

Nobelak, poemak, opera zirriborroak, haur ipuinak, gutunak, prentsarako aldarriak idatzi zituen. Gauthierrek hala azaltzen ditu Michelen iturriak: Hugoren inspirazioa, Zolaren konbikzioa, Alexandre Dumas eta folletoiak, Eugène Pottierren poema eta abestietako emozioa, Jules Vernerren lan fantastiko eta utopistak, Clement Flammarionen zientziaren bulgarizazio lanak. Obra gorabeheratsu, zabal eta nabarra ekoiztu zuen Michelek, bere aztertzaile nagusiaren hitzetan, berak bakarrik idatz zezakeen bertso hura esaten zuena «O iraultza, irensten gaituen ama».⁷

«Bere pentsamendua izan zen bere arrakastaren giltza. Orijinaltasun bat izan zuen, inteligentzia, zapalkuntza guztien arteko lotura egitekoa. Esaten zuen ‘Dena eusten da, indarraren krimen guztiak’». Feminismoa aldarrikatu zuen «gizateriaren erdiak ez duelako bere askatasuna eskatu behar. Simon de Beauvoirren aurretik esan zuen ‘ezkontza prostituzio legeztatu bat’ zela. Eta salatu zituen proxenetak eta putazaleak: ‘ez balego hainbeste bezero ez litzateke trafiko mota hori existituko’». Bestetik, bere iraultzaren ideiaren sintesia zikloia zen: erauntsi erraldoi bat egungo mundua zuztarretik aldatzeko. Gauthierren aburuz, ezin da Michelen pentsamendu politikoa ulertu poesiarekin zuen harremana ikertu gabe: biak bat ziren, batak bestean funtzionatzen zuen. Ala Daniel Armogathek idatzi bezala, «Louise Michelen ‘laborategi intelektuala’ gehiegitan mespretxatu da; Birjina gorriak izan ditu biografoak, baina ez bere lan literarioen benetako kritikoak».⁸

7 Xavière Gauthierrek Emmanuelle Wion aktorearekin hitzaldi ederra eman zuen, funtsean Michelen obrari hitz egiten utziz, 2012an Parisko Liburutegi Nazionalen. Han esan zituen, besteak beste, hemen aipatutakoak eta askoz gehiago.

8 Daniel Armogathe, *ibid.*, 9. or.

Armogatheren aburuz, akatsa da Michel «nohiz-behinkako poeten» taldean sartzea, borroka jakin baten postalak idatziko dituztenen aldamenean. Michelek badu «atabismo poetiko» bat. Amonarengandik dator kio poesiarekiko atxikimendu hori.

Emakume gehiago egon ziren barrikadetan eta liburuak idatzi zituzten (Nathalie Lemel, André Léo, Elizabeth Rétoffe) baina bakarra egin zen hain eza-gun. Gauthierren ustez bere lirismoan dago klabea. Ez zuen pentsamendu lineal bat, jauzika funtzionatzen zuen, asoziazioak egiten zituen. Berari buruz hitz egi-tean gehien erabili zen ezizenak (Birjina gorria) badu egiatik: gizonek ez zuten menperatzerik izan, ezauga-rrri jainkotiarrekoa zen, erabaki politiko batengatik ez zen ezkondu borrokara erabat dedikatzeko, erlijiosoak jainkora dedikatzen diren bezala.

Komuna gaur

Kristin Rossek Luxu komunalan zalantzan jar-tzen zuen lehenaldiak lezioak ematen ote dituen ala ez. Eta ordea, bai uste zuen gertakizun historikoek ba-zutela orainaldia irudikatzeko gaitasuna. Eta gaitasun hori esleitzen zion Komunari ere.

Egun, Bosgarren errepublika distiragabea, zai-la da imajinatzea Komunako indarrek tokiko unitate autonomoa erreibindikatu zutela ortzemuga interna-zionalista baten baitan, nazioari eta merkatuari tokia itxi ziotela eta Estatua, egun ulertzen dugun bezala, ia desagerrarazi zutela, kudeaketa zuzenaren bidezko tresnekin antolatzeko. Komunaren oinarria, Rossen esanetan, kooperazioa eta elkarlana izan ziren. Edo Marxek adierazi bezala, Parisko Komunaren garran-tzitsuena ez ziren idealak izan, baizik eta «lanketaren

izatea bera» [«ihr eignes arbeitendes Dasein»]. Alegia, matxinoek ez zutela zetorren munduaren proiektu partekaturik, baina partekatu zutela unean uneko erai-kuntza hori.

Rossek pasarte eder bat jasotzen du Komunako hezkuntza helburuen ingurukoa. Gustave Lefrançais eta Arthur Arnould-ek sinatzen zuten laugarren barrutian «Haurrei erakutsi gainontzekoak maitatu eta errespetatzen, haiengan justiziarenganako maitasuna sortu; erakutsi, baita ere, beren irakaskuntza guztion intereskoa dela; printzipio moral hauen gainean oinarritzen da orain Komunako hezkuntza». Eta hezkuntza horren funtsa hezkuntza integrala zen: lan egiteko eta garapen intelektualerako balio zuen hezkuntza bat. Burua eta gorputza garatzeko tokia zen hezkuntzarena.

Eskola izan zen Komunaren proiektuaren zen-troetako bat, hurrengo mendean eta Paristik urrun ere begiratuko zena. Hala idatzi zuten Komunaren egunetan aldizkari batean: «Oso txikitatik haurrak alternatiboki pasa behar du eskolatik tailerrera [...]. Erraminta bat maneiatzen duena liburu bat idazteko gai izan behar da, pasioz idazteko eta talentuz [...]. Artisaua gai izan behar da bere eguneroko lanetik deskantsu hartzeko kultura artistikoaren, literarioaren eta zientifikoaren bidez, ekoizle izateari utzi gabe».

Rossek Rancièreren saiakera bat berreskuratu zuen. Liburu hartan Rancièrek Pottier bezalako poeta langileen lana aipatzen zuen, loari orduak kentzen idazten zuten. Poesia hori idaztea erreibindikazio bat zen. Ez bertsoetan baldintza sozialez aritzen zirelako, ez formarengatik ezta gaiengatik ere. Rancièrek horri ematen zion garrantzia: «existitzearen ekintzak berak egiten zuen obra hura soziala». Rossek dioenez, langile poeta horien poesiak ez zuen zertan langileen bizi

baldintzen miseria ilustratu, ezta borrokaren heroismoa ere. Agerian gelditzen zena langileen gaitasun estetikoa zen, gainditzin zuten burgesiak ezarritako «lanaren banaketa: batzuentzat eskuzko lana eta besteentzat pentsamenduaren ekintza».⁹

Ekar genezake hona Komunaren oste luze hori ere, 1989ra arte iraungo zuena. Besteak beste, Alain Badiouk aztertu bezala, 1905eko eta 1917ko Errusiako iraultzan aritu ziren boltxebikeentzat ikasgai nagusietako bat izan zela Komunakoa. Alegia, Leninek-eta ulertu zutela Komunaren porrota porrot militarra izan zela, eta politika iraultzaile batek iraun nahi bazuen politika militarizatu behar zela. 1917ko Urriko iraultzak 1871n porrot egindakoa konpondu zuen garaipenez. Ziurrenik apokrifoki kontatu izan denez, Leninek dantza egin zuen 1917ko iraultza hasi eta hirurogeita hamabigarren egunean, Komunak baino egun bat gehiago iraun zuelako Urrikoak. Neguko jauregiaren aurrean, San Petersburgen, elur gainean dantzan ibili zela Vladimir. Guda dantza hura «kasernako sozialismoari» esker izan zen, Badiouk deitu bezala. Irakurketa hura garatu zuen Hipotesi Komunistan Badiouk.¹⁰

Komuna gurean

1969an Bertolt Brecht 1898-1956 EPa argitaratu zuen Mikel Laboak, B aldeko lehenengo abestia Denak ala inor ez izan zen. Komunaren egunak antzezlaneko hamaikagarren ekitaldiko abestietako bat. Abestiaren aurretik Delescluzek zera dio:

9 Kristin Ross, *Lujo comunal. El imaginario político de la Comuna de París*, Akal: 2016 Madril.

10 Alain Badiou, *L'hypothèse communiste*, Lignes: 2009 Clamecy.

«Komuna errepresioaren kontra mintzatu da. Hiritar ordezkariak, fusilak jasoko dituzue. Guardia nazionalak besoak bete fusil sartuko dira, ordezkarien artean banatuko dituzte.

Hiritar ordezkariok, jarrai dezagun abian dauden lanekin. Emakumeen hezkuntzaren aldeko batzorde baten antolaketa eztabaidatuko dugu.

DENAK ALA INOR EZ...»

Eta abestu egiten dute jatorrizkoan Hanns Eislerren musikarekin (gurean Laboarenarekin). Handik urte batzuetara, 1984an Los apaches de Paris (Pamiela) argitaratu zuten, komiki bat bi albumetan, Javier Minak eta Pedro Osesek ondua. 2016an Prosper Olivier Lissagarayren Komunari buruzko klasikoa berrargitaratu zuen gazteleraz Txalapartak. 2019an Joseba Lozanok Larrutik ordaindua (Alberdania) thriller eleberria Paris-ko Komunan kokatuko du. Lucio Urtubiak, bere etxeko ateneoari Espace Louise-Michel izena jarri zion eta, Bilbon ere bada, 2015etik, Louise Michel izeneko liburu-denda feminista eta internazionalista.

Amaia Lasa eta Xavière Gauthierrekin utziko zaitugu, Louise Michel poeta gaztearekin egon aurretik. Gure garaiaren gauean ere zero urdina behar dugulako.

Iruñea

2020ko azaroa

HITZAURREA ARGIAREN HIRIA

Argiaren hiria, *ville lumière*, izenarekin ere eza-gutzen da Paris. Kausa bat baino gehiago omen dago hiriak deitura hori izateko, aipagarriena, XVIII. mendean Europa osora hedatu zen Ilustrazioaren sorleku izatea. Erdi Aroko deabruengandik askatu gintuen mugimendu filosofiko, politiko eta soziala izan zen Ilustrazioa. Arrazoiaren argi hark uxatu zituen aurreko garai ilunpetsuak. Orduko jendakiei, tinko sinetsarazi zien, ezin zirela bizi hil ondorengo zero edo infernuei so. Pertsona orok, behar zuena eskuratu zezakeela. Lur hau ez zela «negarrezko ibarra», paradisu lurtarrak eraiki zitezkeela, paradisu zerutiarrak ameskeria hutsa besterik ez zirela.

Ilustrazioko pentsalaririk ezagunenetakoa, feministentzat behintzat, Olympe de Gouges izan zen. Berak «Emakumearen eskubideen adierazpena» idatzi zuen, baita esklabotzaren indargabetzearen alde irmoki egin ere. Guillotinaren erail zuten Robespierren aginduz.

Frantziako iraultzan oinarritzko eragina izan zuen Ilustrazioak.

Gogorrek dira garaiak baina ez dira betirako, aurrera egitea da betierekoa

Hodeiertzean ideal berriak ezarriz, lehen utopia zena, egia bihurtzea gaur.¹¹

Jaiotza

Marie Anne Michel jatorriz bretoia zen eta Vroncourt-la-Côte herri txikiko gaztelura lan egitera joan zen. Maiz gertatu ohi den bezala, gazteluko seme Lauren Demahisek, bere nahietara erakarri zuen anderea. Marie Anne maiteminduta zegoen eta onartu zuen harreman hura. Denboraldi baten ondoren emaztea haurdun geratu zenean Laurenek baztertu zuen emakumea.

Voltaireren ideien aldeko ziren gazteluko jabeak, eta garaiko burgesen artean ezohikoa zen jokabidea erakutsiz, haurdun zegoen Anne Marie lagundu eta babestu zuten. 1830eko maiatzaren 29an jaio zen Louise. Demahis aitona-amonek, Anne Marierekin batera, hezibide on bat eman zioten bilobatxoari. Klase orduetatik kanpo libre ibiltzen zen inguruko paisaiez gozatzen, bertako animaliekin jolasten eta zaurituak sendatzen. Emeki emeki, hasten, indartzen, sendotzen joan zen eta beldurrei aurre egiten zien, nortasuna eratzen eta sortzen joan zen bere baitan. Bihozbera zen beti, etxean dirua eta janaria hartzen zituen behartsuei emateko.

Gazteluan bizi zen arren gutxitan ikusten zuen aita, hark erabat baztertu zuen neskatoa, topo egiten zuen bakoitzean «zoaz hemendik!» oihukatzen zion. Azterketa psikologiko bat eginez gero, zenbaitek pentsatuko lukete haurtzaro gazi-gozo hura izan zitekeela injustiziaren aurka altxatzeko Louiseren oinarritzko beharra. Agian bai, baina abiapuntuak ez du baliorik

11 Louise Michel, *Memoriak*.

kentzen gerora izan zenari, edota egin zuenari. Ezerk ez du Louise Michelen argia eta gidaritza iluntzen.

Demahis aitona-amonak zendu zirenean bere anaitzakoeke familiaren deitura erabiltzea eragotzi zioten, gaztelutik at jaurti zuten Louise, bere amarekin batera. Marie Annek eta Louisek amaren familiengana jo zuten, bertan aurkitu zuten hain beharrezkoa zuten maitasuna eta babesa. Ordutik aurrera Demahis deitura alboratu eta Michel abizena hartuko zuten, amaren leinuari segida emanaz.

Gaztaroa

Louise Michelen bizitza arakatzen noan heinean, Pizkunde garaiko pertsona bat iruditzen zait: musikaria, marrazkilaria, pedagogoa, hizlari sutua, poeta, politikaria... Eta, hala ere, nerabezaroa ezkeror, gauza guztien gainetik, poeta izatea erabaki zuen.

Aurrez aurre askoz geroago ezagutuko zuen Victor Hugo idazle ospetsuari idatzi eta, honek erantzun zion unetik, hogeita hamar urteko adiskidetasuna gorde zuten, hots, Victor Hugo hil artekoa.

Gaztaroan Chaumonten maistra ikasketak burutu zituen, baina ez zuen inoiz eskola publiko batean lanik egin, horretarako inperioari zin egin behar baitzitzaion eta hori gehiegizkoa zen erreboltari batentzat. Audelancourt herrian pedagogia askatzailearen aldeko eskola bat zabaldu zuen 1853. urtean.

Zenbait eskolatan irakasten ibili eta gero, barruko hondo sakonean sentitzen zuen dei bati jarraituz, Parisera abiatu zen, Inperioaren bihotz gogor, ilunpitsu eta krudela zuzenki borrokatzera. Une haietan pilpilka zegoen Montmartre auzoan bizitzen jarri zen: egunez eskola bateko zuzendari lanak egiten zituen,

arratsaldean bilera politikoetara joaten zen, eta bertan bere ideiak argitasunez argituko ziren.

Komuna

Napoleon III.ak, bere botere ahuldua indartzearren, gerra zaugarri odoltsu batean sartu zuen Frantziako herria 1870eko uztailetik 1871ko maiatzera arte, hamaika hilabeteren buruan prusiarrek Napoleon garaitu eta espetxeratu zuten arte. Prusiarrek Paris setiatu zuten. Inperioaren aldeko agintariek eta Armadak, harrapa zezaketen guztia hartu, eta Versaillesera ihes egin zuten, hiriko biztanleak gosez eta miseria gorrian utziz.

Zapaltzaileengandik aske geratu zen Inperioarekin gogaitutako Paris, eta herria altxatu egin zen: 1871ko martxoaren 18an «Parisko Komuna» aldarrikatu zuten. Herria burujabea zen. Hasi zen autogestioan oinarritutako matxinada. Bi hilabete eta erdi iraun zuen, odoletan itota Versaillesko etsaiek menperatu zuten arte.

Memoriak-etan aipatzen dituen beste emakume askorekin batera, Louise Michel buru-belarri murgildu zen borrokan: zaintza taldeetan, 61. batailoiko zaindari lanetan, erizaintzan, anbulantzien antolamenduan, fusilak banatzen, barrikadak eraikitzen eta haien gainean zutik langileen bandera astintzen... Etsaien balak ezker-eskuin pasatzen zitzaizkion, baina ez zuten inoiz zauritu.

Ezin izan zuten harrapatu eta kontrairaultzaileek ama espetxeratu zuten. Louise Michel etsaien esku jarri zen orduan, ama aska zezaten.

Erbestea

Komunako altxamenduaren zilegitasuna aldeztu zuen beti. Ez zuen inoiz onartu epaitzen zuten epaitegien eta epaileen zilegitasuna. Sekulan ez zuen errukirik edo onurarik eskatu. Frantziako espetxeetan hiru bat urte igaro ondoren Kaledonia Berrira erbesterratu zuten beste hainbat Komunakiderekin batera. Hamar urte bizi izan zen oraindik ere Frantziaren kolonia diren uharteetan.

Egun ere haien askatasunaren alde borrokatzen diharduten kanakekin bat egin zuen. Haien mintzaira ikasi ondoren, eskola bat zabaldu zuen hango haurrak euren hizkuntzan ikas zezaten. Kaledonia Berrikoak Frantziako Gobernuaren aurka oldartu zirenean, bera izan zen kanaken alde egin zuen frantses iraultzaile bakarra. Zer ote zen inperio bateko biztanlea izatea?

Etorkizuna

Kaledoniako deseritik itzuli zenean amarekin elkartzeko aukera izan zuen. Bere bizitzako heldutasun urteetan, ideia anarkisten aldeko hizlari nekaezina izan zen. Zendu baino urte bat lehenago Afrika iparraldean ibili zen hitzaldiak ematen. Vroncourt-la-Côte, agur esan zion lur honi, 1905. urtean.

Historia latz honi orain hasiera zoriotsu bat ematearren, *Louise Michel* izena ipini dio Banksy margolariak Mediterraneoko etorkinen erreskate barkubati. Hor ibiliko da, gure Louise, Carola Rackete kapitainak gidatuta, itsasoak zeharkatzen, gure lurraldeetara datozen pertsonak itoalditik libratzen. Hildakoek ezin dutelako Louise Michelek hainbeste maite zuen itsasoaren edertasuna ikusi.

Plazer bat izan da Louise Michel ezagutzea, euskaraz ezagutaraztea.

Amaia Lasa Alegria
Getaria, 2020ko urria

SARRERA

Louise Michel, 1871ko Parisko Komunako pasio-lore hau ezagutzen dugula uste dugu. Bere irudi ederrak ditugu begietan, bihotzean: emakume handi beltzarana, aihotzez zizelkatua dirudien aurpegi zorrotza, barrikada baten gainean igota, izukaitz, iraultzaile sutsua: pobreen alde sakrifikatzen den karitatezko ahizpa laikoa. Herri zapaldu guztien defentsa hartzen duen kolonialisten aurkakoa, kanakak barne, gizonei erronka egiten dien feminista bat, baina emakumeak ere matxinatzera deitzen dituen; animaliei tratu txarra ematen dienari zigorra ezartzearen aldeko ekologista bat. «Dena elkarrekin lotuta baitago, denak indarrezko krimenak dira» dio menderakaitz honek. Egunsentiak gaua desagerrarazten duen bezala, krimen horiek barreiatzera etorriko da iraultza eta tximeleta krisalida bihurtzen den bezala gizon eta emakumeek beren hegoak nola zabaltzen diren sentituko dute...

Ikuspegi hobeezina, sekulako irudia emakume bikain honena, «ia Joana Arc-ekoa» deitu zuen Verlaine. Pixka bat hurbilagotik ezagutzeko gogo nuen

Epinal-en¹² gisako irudiaren azpian ezkutatzen zena ikustearren. Pazientziaz, idatzi edo jaso dituen gutunen bila ibili naiz, hamar urtean; 1.290 aurkitu ditut hamaika artxibategitan, Frantzian, Kaledonia Berrian, baita Moskuko, Amsterdameko eta Japoniako bildumagile pribatuen etxeetan. Korrespondentzia zabal honek («Nire gauetik idazten dizut» izenburuarekin *in extenso* argitaratuta¹³) beste Louise Michel bat erakusten digu, bere irudia baino argiki inperfektuagoa, noizbehinka bidegabea, garratza edo doilorra den Louise Michel bat. Baina une berean gutun hauek emakume hurbilagoa, errukitsuagoa, hunkigarriagoa azaleratzen digute.

Hemen –garai sendoetan, muturreko tentsioan– Frantziako historiako pertsonaiarik handienetako bat izango zena, XIX. mendeko frantseseko idazle handienarekin mintzatzen dakusagu.

Lehenengo garaia: «bere» gatzelu hondatuan (bere ama zerbitzari lanetan aritzen zen), neska gazte batek maitasun poemak eta eskutitzak idazten dizkio gizon guztiz ospetsu bati, bera baino askoz zaharra goa denari. Hogei urte ditu eta Louise Demahis esaten dio bere buruari (alaba onartu ez duen aitaren deitura darama). Gutun hauek harrigarriak dira: irakurtzean, ezerk edo ia ezerk ez digu susmarazten herritar xumea, errukiorra eta nahigabetua, erregetiarra eta etsitua, XIX. mendeko mugimendu iraultzaileen irudi eredugarriena, Hiritar Handia, bilakatuko denik. Bakardaderik handiengan, zalantza existentzialetan harrapatua, heriotzan jaustetik gertu, desira bat besterik ez du: poeta izatea.

12 Epinal, XIX. mendean Frantzian erabiltzen ziren afixa herriko koloreaniztunak, normalean tematikoak, irakurtzen ez zekiten biztanleak (gehienak) informatzeko. Dibertimendurako ere erabiltzen ziren.

13 Louise Michelen korrespondentzia osoaz ari da, *Je vous écris de ma nuit. Correspondance générale-1850-1904*, Les éditions de Paris Max Chaleil: 1999 Paris.

Itxaropen honekin Hugorengan konfiantza ipintzen du, areago esan dezakegu, jainkoari mintzatzen zaion bezala aitortzen zaio Michel. Bere bizitza eskura ematen dio. Berehala, bere kontzientziaren barnealdea erakutsi diolako zoraturik, bere gutunak erretzea eskatuko dio. Zorionez Hugok ez zuen horrelakorik egin, erantzun egin zion gainera. Ez ditugu erantzunak, bizitzaren nahas-menduan desbideratuak eta ekintzailearen lekualdatze anizkoitzetan galduak, baina Michelen erantzunengatik ondoriozta daitezke hala ere. Beraz, benetako truke epistolar bati buruz ari gara.

Gaztaroko eskutitzak gutun-jariokoak dira — hamarnaka orrikoak— puntuazio zeinu bat ere ez daramatenak, ez dute maiuskularik, ia azenturik gabekoak dira. Ulertzea oso zaila da, idazkera ñimiñoa delako. Hala, bere pentsaera isurtzeko modu honek, bihozka den bidez, soltean, jariora geldiarazteko ezer gabe, badu pultsioetik zerbait. Hemen, halaber, izaera asaldatu honetan, sutsuki, jadanik aurkitzen dugu historiari utzi digun Louise Michelen zerbait.

Bigarren garaia: dekoratua aldatu da. Emakume gaztea maistra bilakatu da, Montmartren, Parisko auzo txiroan, amorru herrikoien sorburuan. Komuna hurbiltzen ari da. Louise Michel, XVIII. barrutiko Emakumeen Zaintza Batzordeko presidente bihurtu da. Sugarra pizteko gai den hizlaria, ideia hauen partaide egin du Victor Hugo, erabakitasunez, «Maisuarekiko» miresmen osoa gorderik. Alabaina bi idazleen banatze politikoa amildegi izatera helduko da: Louise buru-belarri (eta baionetarekin) komuneroen matxinadan engaiatuko da; Hugok bere distantzia hartuko du, eta «gaizki egindako gauza on bat» bezala epaituko du Komuna.

Hirugarren garaia: Komunako heroia presondegian dago. komunero garaitu batzuk biltzen eta

defendatzen ahaleginduko da Hugo. Louise ezinezko eginkizunez arduratzen ausartuko da: Théophile Ferré salbatzea, Komunako ordezkari zorrotzenetako bat, zeinari heriotza-zigorra ezarri dioten «Versailleskoek». Michelek bere justiziaren zentzuari dei egingo dio, baina Hugok ezin du Ferrérékiko inolako gupidarik izan, Gallifet Versailleskoen jeneralaren mailan jarriko du, Komunazaleak sarraskitu zituen jeneralaren mailan: «Zer! bai Ferrék, bai Gallifetek / Odola isurtzen dute,» idatziko du Talionen (*Urte espantagarria*). Baina Louise itsututa dago, eta maiteminduta, Komunako Saint-Just-ekin.¹⁴

Laugarren garaia: baketsuena. Kaledonia Berriko etxolatik, Louise Michelek begiramen guztia gordezten du Maisu deitzen jarraitzen duen horrentzat eta bere estrofak grabatzen ditu zikloiek astintzen dituzten harkaitzetan... Baina, helduagoa denez, berdinetik berdineraz eztabaidatzen du harekin, frantsesentzat gizajale direnekin harremanetan jartzen dela kontatzen dio, bere arima handiaren gaitasuna erakutsiz eta bere ideia iraultzailea adieraziz. Erbestearen zorrigaitza jasan arren, gutunek ez dute jada nerabazaroko bizi-larritasunik ezta Parisko setioko kanoien burrunben soinupean idatzitakoek bezala, ezta Versaillesko gotorlekuaren itxialdikoek, etsipenik ala zapalketarik ere. Kanak herrian erbesteratua, gutunak argitu eta askatu egiten dira.

Hala, Louise Michel eta Victor Hugoren arteko gutun korrespondentziak erakusten du beren harremanen benetako bilakaera. Ezin utzi esan gabe erlazio horiek sexualak ere izan zirela, gona-lasterkariaren

14 Saint-Just (1767-1794) Frantziako iraultzako jakobino nabarmenetako bat izan zen. 1794an Konbentzioko presidente egin zuten, indar erreakzionarioek Robespierrekin batera gillotinatuta zuten.

eta antzara zuri erromantikoaren artean. Berak kon-
tatzten du —benetan— Parisen aurkitu zuela poeta
handia, baina gehiago azaldu gabe. Ives Muriek bi li-
buru idatzi ditu, «Birjina gorriarengandik» datorrela
frogatzeko. Bilaketak egin ondoren agiri bat aurkitu
zuen, non agertzen den «Parisen, neska gaztea nega-
rrez joan zen posizio altua zuen herrikide batengana»,
eta pertsona honek bere probintziara eraman omen
zuen. Aztoramendu hori Hugorekin izandako elkarriz-
ketaren ondoren etorri ote zitzaion? Ez dago inolaz ere
baztertzerik, Hugok, liluratuko zuen, ferekatuko, ohi-
tura zuen bezala (nahieran, bere egunkarian erakusten
digu bezala), eta Louise harrituta egongo zen, berak
maite zuela idatzi baitzion... jainko bat balitz bezala.
Hortik ondorioztatzea topaketa honetatik haur bat
jaio zela... amak Normandiako familia bati umea utzi
zionaren frogak falta dira. Kontua da, elkarriketaren
ondoren, korrespondentziak ez duela inongo haustu-
tarik adierazten. Louisek jarraitzen du Hugo miresten,
«gurtzarekin nahasten da», berak idazten dionez.

Gutunek beste jaiotza baten sekretuen berri ere
ematen digute, Louiserena berarena. Berak idatzi guz-
tietan tinko mantendu du bere aita gazteluko jabearen
semea zela, zerbitzari ederra, bere ama maitatu zuen
Laurent Demahis gaztea.¹⁵ Hugori idatzitako eskutitz
batean bakarrik aditzera ematen du bere ernatzailea
gazteluko jabea izan zitekeela, nori aitona deitzen zion
eta bereganako maitasun berezia gordetzen zuen. Loui-
seren genealogiaren zalantza lazgarria, eragin handia
izan zuen hala bere nortasunean nola bere «patuan»:

15 Gutunetan ikus dezakegu Demahis gazteak oso gaizki tratatzen zuela
Louise Michel, berak ankertasun guztiarekin esan zion bere aitona izan
zitekeela bere aita, eta gezur honen aurrean amak esandakoa bakarrik
sinesten zuen: Nire ama zintzoa zen eta inoiz ez zidan gezurrik esango.

aterpetu nahi izan ez zuen mundua suntsitu eta plane-
ta honetan beste mundu bat amestu zuen...

Xavière Gauthier
2005, Bordele

BIOGRAFIA

Edonorentzat, Louise Michelen izenak Komuna-ko iraultzaile ospetsuaren oihartzunak ditu.

Vroncourt-la-Côte, Haute-Marneko herri txiki batean, jaio zen Louise Michel 1830eko maiatzaren 29an. Marianne Michel ama zerbitzaria eta «aita ezezaguna». Zerbitzari ilehoria gazteluko jabearen semeari erakargarria iruditu zitzaion, baina garaiko ohitura burgesei uko eginez ez zen baztertua izan. Bere haurrak, Louisek, Demahis zaharrei aitona eta amona deitzeko eskubidea zuen. Bere heziketaz arduratu ziren gaztelu izoztu zahar baina Louisek bilduko dituen animalia ugariz inguratuan. Michel «sufritzen duten guztiez errukitzen da». Animaliak: nekazari gazteek bitan zatitzen dituzte igelak, habiarik gabeko txitak... Landareak: bihotzean aizkora hondoratuta daukaten haritzak, odola balitz bezala izerdia isurtzen dutenak... Pertsonak: gosez hiltzen diren haurrak... Geroago idatziko zuen: «Funtsean, indartsuen aurkako nire asalduran, urrunen gogoratzen dudana abereei ezarritako tortura da».

«Bastarta» irudi mingarrietan murgilduta egongo zen, baina haurtzaroko zoriontasun une nabarmenak ere izango zituen: basoan ihesi joaten zen lauhazka, zaldi baten moduan, zorion fisikoa sentituz; edo atzaparka igotzen zen zuhaitzetan gora; arrabita jotzen zuen edo filosofo handien irakurketekin zorion intelektuala sentitzen zuen. Garai hartan, neskei formalki gomendatzen ez zaizkien gauza guztiak egiten zituen, aitona-amonak liberalak izaki, halako hezkuntza jaso zuelako. Bien bitartean, ama saiatzen zen ezarritako balioekiko mendekotasuna irakasten, eta jainkoarekiko izua. Ilunantzean, elizako kantuen edertasunak liluratu zuen eta kristau mistizismora lerratu zen.

Haurtzaroaz geroztik neskato txiki basati eta aske baten irudia ematen zuen, jazarle batena batez ere, aitonari ebasten zion txiroei emateko... Neska gazte lotsagabe suhar bat zen, ezkongaiak mehatxatzen zituen oreinarenak baino adar handiagoak jarriko zizkiela. «Emakume guztiek bezala nire ametsak gorago ezartzen nituen», idatzi zuen bere memorieta.

Hasieran, bere amets zoroa eta itxaropen bararra, poeta izatea da, bere idolo Victor Hugo bezala. Gainera, bizitza osoan idatziko ditu bertsoak. Baina poeta izateko nahia atzeratu egingo da bizitzeko lan egiteko premiaren aurrean. Maistra bilakatuko da, bere jakintza partekatzeko irrikarekin, eta bizibide honetaz maiteminduko da. Bere ikasleek biziki estimatzen dute; irakasbide guztiz modernoak erabiltzen ditu, eraginkorrak: zigorraren ordeztu beharraren zentzua eta ikasteko gogo. Antzezlan puskak idazten ditu neskatoek klasean antzezteko; landareak eta abereak irakasten dizkie eskolan bizirik dauden goroldioen,

txorien, sugeen ukimenaren bidez. Ehun urte geroago Natura ikasgaia deituko zaio jardun horri.

Inperioaren aurka hobeto borrokatzeko, Parisera igo zen: Montmartren barnetegi bat ireki zuen; bilera politikoetara maiz joaten hasi zen; geroz eta erradikalagoa bihurtu zen; borroka errepublikanoan irmoki errotu zen; XVIII. barrutiko Emakumeen Zaintza Batzordeko presidente egin zuten eta serioski amestu zuen Napoleon III.a hiltzea. 1870ean enperadoreak Bismarcki gerra deklaratu zion eta Frantziako Armadak zapalduta buka zuen Sedango hondamendian. Herria gosetu zuen Parisko setioak, jendea txakurrez eta arratoiez elikatu behar izan zen, eta sufrimendu horiek guztiek eta umiliazioak herritarrak zeharo amorratuko dituzte, eta gizateria zahar eta bidegabearen aurkako asaldura piztu zuten. Konta ezin daitezken ahaleginak egin zituen Louise Michelek miseria saihesteko eta arintzeko, erne zegoen «behetik datorren burrunbarekiko» eta leherketa iraultzailea zabaltzen ikusi zuen: «Iraultzan astinduko ditugu gure hegoak.»

Iraultza heldu da, Parisko Komuna da. 1871ko martxoaren 18ko ordu txikietan, Louise Michel da Thiersen aurka jotzen duen lehenetarikoa, herria altxatzen da «askapen goizalde oparo batean». Komuna egun horretan aldarrikatu zuten. Orduan, Michel herritarrak buru-belarri dihardu ordezkariak laguntzen. Eta Michel herritarra hil nahi duen Thiersen Armadak gobernua erasotzen duenean, Michel soldadu bihurtu zen: bi hilabete inguru tiroka igaro zituen, ia gelditu gabe. Punteria bikaina zuen, eta ausardia beldurgarria.

Louise Michelen irudirik zabalduena halakoa da: emakume beltzaran handi bat, aihotzez zizelkatutako soslaia, erabat beltzez jantzia barrikada baten gainean bandera bat astintzen, etsaien balak, bere adats in-

guruan, txistuka dabiltzala. Edo Remington karabina eutsiz, guardia nazionalaren uniformea jantzita.

Irudiak esanahi adierazgarria du, Komunaren memento berean sortzen da. Apirilaren 10eko *Le Journal Officiel*-ek zera zioen: «61. batailoiko lerroan (aux Molinaux) emakume kementsu bat gudukatzen zen, kasketadun eta bakezain batzuk hil ditu.» D'Yssi-ko gotorlekura joan ondoren Clemanceauk bere harridura eta miresmena adierazi zuen: «Inoiz ez dut hain lasai ikusi. Nola ez zen ehun bider eraila izan nire begien aurrean, ezin dut ulertu. Eta nik ordubete bakarrik ikusi nuen». Louise bera hunkitu zen hura gogoratzean. Memorietan idatzi zuen: «Bai, zein basatia naizen, kanoia maite dut, bolboraren usaina, metraila airean; baina batez ere iraultzak liluratzen nau.» Irudia topiko bilakatu zen, bai hagiografietan baita karikaturetan ere.

Egun batean «basati» hura barrikada baten gainaldera igo zen arrastaka metraila hotsarengatik zoratuta zegoen katakume baten bila... Beste batean, bakarrik egon zen gau osoan lubaki batean, bertan Afrikako soldadu ohi trebe batekin topo egin zuen eta bere adiskide bihurtuko zen... Azken borroka Montmartreko hilerrian egin zuen, han Komunako defendatzaileak atzera egin behar izan zuten. Eraginkortasun izugarriarekin badu gainera poetaren ikuspuntutik begiratzeko tarte, loreen euria hilobien gainean erortzen da-eta obus batek gereziondoaren adarra apurtzen duenean!

Baina Versailleskoak garaile, 30.000 gizon, emakume eta haur erail zituzten basatiki. Ez zutenez Louise Michel harrapatzea lortu, ama bahitu zuten. Alaba korrika joan zen bere amaren ordezkatzera. Baldintza ikaragarrietan espetxeratu zuten, baina ez zen inoiz kexatu: atxilotutako kideak laguntzen zituen, zain-tzaileekin haserretzen zen. Alferrik ahalegindu zen

Théophile Ferréren exekuzioa geratzen, gerra kontseiluak hiltzera zigortu zuen Komunako buruzagietako bat izateagatik.

Bere epaiketara ikusgarri agertu zen, dena beltzez jantzia, hildako Komunaren benetako irudia izan zen. Berarengandik geratu zaigun beste irudietako bat da, indartsua. Epaitu gehienak burua salbatzen saiatzen direnean beren ekintzak gutxiagotzen, berak ozenki aldarrikatzen ditu egotzi nahi dizkieten hilketak eta delituak (egin ez zituenak ere). Heriotza eskatzen du: «Askatasunaren alde egiten duen bihotz orok berun pixka bat izateko eskubidea du, niri dagokidana eskatzen dut». Feminismoa bere ideia eta borroka aldarrikapen iraunkorrenetakoa izanik, emakume gisa epaileez trufatzen da, zirikatzen ditu: «Koldarrak ez bazarete, hil nazazue.» Biharamunean egunkari guztietan aldi berean, bera agertzen da; Frantzia guztian ospetsu bilakatzen da. Victor Hugok, bere «maiestate basatiarekin» liluraturik, poema luze, bikain bat idatzi zuen azaltzeko «marmokaren artetik aingerua izarniatzen» ikusi zuela. Bertso atal honek ere eragin handia du kondairazko pertsonaiaren eraketan.

Kaledonia Berrira deportatu zuten, harresiz inguratutako barruti batera bizi osorako kondenatu zuten. Belaontzi zahar batean sartu zuten. Lau hilabeteko bidaia egin zuen kide sumindu eta etsituekin batera, etxetik 20.000 kilometrora erbesteratu zituzten, gizajalez populatua omen zegoen uharte horretarantz. Baina Louisek biriken indar guztiarekin askatasun ufada arnasten du. Bogan doa itsas gainean, beti amestutako itsasoan. Bertsoak idatzi zituen: «Amildegi hauek ikus-teak mozkortzen du/ Bizitzea estuegi bilakatzen da.»

Kaledonia Berrian, bizi baldintza zailetan, non bere lagun batzuk hil ziren, Louise Michelek botanika

eta zoologia lanak egin zituen, hango flora eta fauna zerrendatuz, eta bere behaketak Geografia Institutura igortzen zituen. Begiluzea, ausarta, ikteriziaren aurka sortutako papaia txertoarekin saiaketak egin zituen; paisaia idortu, kolore oparo, usain arrotz eta zikloiekin liluratu zen. Natura pizten denean, bits zuri, ikaragarria harramazkaturik gora eginik erribera oldartzen denean, piztiak eta jendea izuturik ihesi doazenean, Louise bere etxetik ateratzen da eta gauez ibiltzen da, naturaren edertasun ikaragarriekin asaldatuta. «Olatu artean ulu egiten duen bular bat bezalakoa da» eta bere lagunek aholkatzen badiote ere ez ausartzeko kanaken aldera joaten, gizajale arriskutsu horiengana, haiengana hurbildu zen, eskuak luzatuz; nahiko adimen eta izpiritu irekia izan zuen euren hizkuntza ikasteko, haien irakasle eta laguna bilakatu zen. Kanakak zurien erasoan aurka altxatzen direnean bera da kanaken alde ipiniko den zuri bakarra eta agian, beharbada, ezkutuko laguntza eman zien. Europarrei eskatzen zien «bukatzeko suntsiketaren bidez soilik adierazten den nagusitasunarekin.»

1880an Frantziara itzuli zenean, jendetza liluratu batek egin zion harrera. Handik aurrera, eta bizitzaren azkeneraino, iraultzaren eta anarkiaren etorrera, etengabe, iragarri zituen. «Altxa zaitezte izar ehiztari handi guztiak.» Oso zaharra zelarik, higatuta eta gaixo, inoiz ez zion uko egin bere hitz asaldatuekin, ekaitzak iragartzeari: «Iraultzen itsasoak eramango gaitu uhaldira.» Berak oroitarazi zizkigun biharamunetako ikuskera distiratsuak: «Itsuak garenok ez dezagun eztabaidatu gorantz doan goiz-argia.» Ez zuen inoiz baztertu bere utopia libertarioa.

Hala ere, bere bizitza gogorra da. Botereak etengabe jarraitzen du. Ezin du pauso bat eman sala-

tari batek jarraitu gabe. Polizia-txostenak pilatzen dira. Hainbat aldiz espetxeratu zuten, urte luzez. Saint-Lazareko egonaldi batean, prostitutekin topatu zen eta beren defentsa hartu zuen kartsuki; biktimak zirela esan zuen, ustiatuak. Vienan, espetxeratze batean, bere gelaxkan zegoen guztia hautsi zuen, aditu batek gaixo mentala zela esan zuen. Orduan Londresera erbesteratu zen.

Frantziako ia hiri guztietan bira egin zuen hitzaldiak ematen, baita Belgikan, Britainia Handian, Herbehereetan, Aljerian ere. Alde guztietan txalo biziak jasotzen zituen, baina baita irainak eta hitz zorrotzak ere. Gurtza seinaleak, lore sortak, baina baita aulkien hanken kolpeak ere eta... bi bala buruan (ez zuten bere erabakiak aldatzeko balio izan). Marseillan hil zen, 75 urte zituela, miseria gorrian, leial azkeneraino bere fede estimatu bikainari: «Iraultza gizateriaren loraldia izango da, maitasuna bihotzaren loraldia den bezala».

Hau izan zen, beraz, emakume «suhar» eta «izukaitz» baten bizitza (Fernand Planche). Honako goitizenez ere ezagutu zen: «Birjina gorria», «Iraultza-ren mireslea», «Saindu laikoa», «Bellevilleko neskati-la», «Odol egarri otsoa», «Louise zintzoa».

Xavière Gauthier

ERBESTEKO GUTUNAK
VICTOR HUGORI
(1850-1879)

I

**HAUTE-MARNEKO GAZTELUKO GUTUNAK
(1850-1861)**

Vroncourt-la-Côte, 1850eko abuztua

Ametsak¹

triste nago o poeta
eta zure erramu berdearen azpian
nire erretirorik goxoena
nator nire burua jartzera
egiteko amets eta otoitz

liraren itzalean
aurkitzen dut sosegua
zure ontzian egiten dut lo
eta putz egiten duen haizeak
uhinak kulunkatzen ditu

arraunen zaratak entzuten ditut
zeruen ozeanoan

1 Eskuz idatzitako gutuna, sinadurarik gabe. a Louise Michelek Victor Hugori igorritako lehenengo gutunak ez ziren gutunak izan, olerkiak ziren, eta helburu nagusia Michelek Hugo nola miresten zuen adieraztea zen. Jarraian jasotako beste bi gutun atalez gain, beste mordoa bidali zion Michelek Hugori. Baina ez dira beren-beregi Hugorentzat ala Hugori buruzkoak, beraz ez ditugu jaso.

zure garrezko hegalean pean
bilatzen ditut arimentzat
mundu zoriontsuagoak

eta dena delakoa ametsa
goxoa eta naturaz gaindikoa
non zure lirak urperatzen nauen
nahi dut jarrai dezala
eta gera dadila zeruan

Hugo, esadazu ze aingeruk
inspiratzen dituen zure doinuak
ze magia bitxia
nahasten den zure ahotsera
ze jainkok diktatzen zure kantuak

zure ahotsak erantzun diezadala
dei jainkotiar batek bezala
munduaren alferrikako zaratek bezala
tartearen daude haizeak eta uhinak
zeruaren ufada batean

minak, garren ametsak
o neba, esadazu
zeren zure arima da nire arima
akusatzen bazaituzte ala gaitzetsi
baina nik zuregan sinesten dut

zuregan, argi kartsu
errege, eguzki izpitsu
lasterka zaratatsuan
datorkidana, izar errari gaixoa,
zure suekin urperatua

izpiritu jainkotiarra pasatzean
eta zuregan errebelatzean
jainkoak kosmosean
buruz buru hitz egiten dizunean
zer sentitzen duzu? Esadazu

esan, zein da zure lorien
eta dirdaien segizioa?
ze izpirituk babesten zaitu?
baina nik, zer esango dut nik?
nire ametsak eta nire negarrak [...]

esan behar al da, o poeta
maite ditudala uharrak
eta basoak, enbata
hondamen mutua
non haizeek murmurikatzen duten

zeren nik, ozeano ekaiztsuan
bertso batzuk botatzen dituen
ahul gogoetatsuak,
nahi nuke, adoretzu,
gizateria astindu

ez, nahiago dut zure arrabita
garailea abesten entzun
ikusi zure akordeak jaisten
eta gure gainean zabaltzen
loreen lurrin bat bezala [...]

hodei arinetan
barreiatzen den amets eder
nahiago dut Hugok ematea
bere erramu bakar bat
nire koroa txirikordatzeko

Hondamenak²

[...]

poeta, entzun egidazu, mende arrunt batetik
urrun

joango gara,

iragana gaindituz, argia bilatuko dugu

gure fronteetarako

[...]

zatoz, hurrengo garaieran

eser gaitezen

eta jauretxe altuko

burujabe arranditsua

ikusiko dugu

[...]

Olympio, zatoz eta amets egin dezagun

adarren itzalpean, dardara egiten duen belarra-
ren gainean

² Ez dauka datarik idatzita (liburutegian 1850 markatzen duen arren). Poema hau oso gaizki deszifratzen da eta Victor Hugori zuzenean idatzitako pasarteak soilik jaso ditugu.

edo zuk nahi baduzu, zure koroa eta armarria
nahastu

baroi altuen artean.

[...]

baina ez, amets bat besterik ez zara eta izar dir-
diratsuak

nigandik ihesi egingo du

bera gidatzen duen haizea nire hegaldirako in-
dartsuegia da

hala ere nire arima zurean dago

1850eko urriak 10

Olympiorentzat

*Zuretzat, basoan iaz bezala egiten duzulako,
Hostoz hosto bertso misterioitsuak erorarazten dituzu
Zuretzat zure pentsaerak nire ameskeria betetzen du.*

Victor Hugo³

[...]
bigarren aldiz jainkoak putz egin zuen mundua-
ren gainean
eta bere hitz emankorretik
izaki bitxi bat sortu zen,
bekoki gainean erreinu argitsuak zituen
eta bere begirada sakonak
izpi zerutiarrak gordetzen zituela zirudien
betiereko gangan dagoen izarrak bezala
jainkoak errege handien gainetik eman zion inperioa

3 *Barruko ahotsak* poema-liburuko *Virgiliori* poemako pasartea, 1837an argitaratua.

eta bere lautea arma bailitzan zerua jarri zuen
bere ahotsean
batzuetan burrunba egiten duen trumoia zirudien
eta besteetan murmurikatzen zuen haizekirriak
eta urak bezala
Jainkoak bezala bazuen sortzeko gaitasuna.
[...]
harro eta garaile oldartzen ikusi dute
infinitean bogatzen, itsasgizon grinatsua da
eta bere hego sutsua zabaldurik
eguzkiraino doa kanpadenda bertan zabaltzera
poeta, hala ikusten zaitut
gu guztion gainean gure jaun gorena
horrela sinesten dut zuregan, jainkoa bazina bezala
Alabaina, ameslari itzala igaro
behar dut batzuetan, Olympio!
ahots kezkatu harroa altxatu
haurdunaldiko amorrua zuri kontatu
eta Jainkoari galdeketak egin
fededun izaten jarrai dezadan.

Jauna,

Ez dakit zuk zer esango duzun, baina etsipenean erori naiz eta beharrezkoa zait zuri idaztea gutxiago sufritzeko. Ez naiz kezkatzen nire gutuna ezohikoa irudituko ote zaizun, ez nauzu ezagutzen eta atsekabetzen nauen guztiak ez zaitu hunkituko, baina esateko beharra daukat baretuko baldin banaiz.

Demahis andereak, inoiz utzi ez dudan nire amonak,⁴ gaixotasun arriskutsu bat du,⁵ indarrrik eta adorerik gabe nago asaldura lazgarri honen aurrean. Zoraturik bezala nago, ez dakit zer egiten dudan, zer esaten dudan. Bera galtzearen ideia beldurgarria da niretzat, ez dut beste inor. Itxaropenik ez dagoela argi ikusten dut eta nire mina arintzearren hitz lasaigarriak esaten dizkirate; alabaina, adindua izanagatik ere, ezin dut irudikatu bera gabe bizitzea. Ia ahazten zait ama ere kontsolatu beharko nukeela. Mundura

4 Louise Michelek beti deitu zuen «amona» Charlotte Demahis». Bere aitaren emazte zilegi bakarra zen, ordea.

5 Charlotte Demahis 1850eko urriaren 23an hil zen.

etorri naizenetik, ez dut amona utzi. Bera izan da nire maistra bakarra.⁶ Bata bestearentzat bizi ginen, orain hori dena bukatuko da. Ez dakit zer esaten dizudan. Nire ideiak nahasten dira, baina zuk barkatuko didazu eta lerro batzuk idatziko dizkidazu kemena emateko, ezin baitut gehiago. Errukitsua naizela diote, bada bera galduko banu deusetan sinetsiko ez nukeela iruditzen zait. Jainkoa krudelegia izango litzateke.

Nola-halako zirriborroak aurkitzen ditut esku artean, igortzen dizkizut. Agian, hauek izango dira nīgandik jasoko dituzun azkenak. Galduko banu ez nuke ezer gehiago egingo, edo beharbada horrek hilaraziko ninduke. Beraz, neba, lerro batzuk idatziko zenituzke nire hilobi gainean. Agur, barka eskutitz honengatik. Oinazez erotua sentitzen naiz, ez dakit zer bilakaera izango dudan, dena hilda dagoela iruditzen zait, idatz egidazu.

Louise Michel⁷

6 Ez da zehazki horrela. Louise Michel Vroncourteko lehen hezkuntzako eskola publikora joan zen. Han asko atsegin zuen irakasle bat izan zuen. Halere, egia da bere «amona» izan zela pianoa eta lira jotzen irakatsi ziona, baita Erromako historia ere. «Nire amonak erakutsi zidan irakurtzen, trikotatzeko bere orratz handiekin letrak erakusten. Liburua uzten genuen idazmahaian zeuden solfeo liburu zaharrek irakatsi zidan, berak materialokin ikasi zuen Italian» kontatzen du memorietan. Bere «aitona» izan zen Voltaire eta Molière irakurtzen eta aztertzen lagundu zuena.

7 Gilbert Halley bilduma. Kopia daktilografikoa, Amsterdameko Historia Sozialaren Nazioarteko Institutuan gordea.

Vroncourt, 1851ko martxoak 23

[...]

Poeta, ze axola du
nondik datozen haize leunak
ekartzen dizkizun doinuak
hildako liraren⁸ batetik
ala zerutik, ala haizeetatik

Ala, noski, menditik
Izango ote da Champagneko
kondearen ahotsa
Zeinak landazabal batentzat
[?] birjina eta gurutzea

bere zaldun prestuen
eliteak deitzen dituen;

8 Louise Michelek bazuen lira bat, umorez jardun zuen bere memorietan tresna horri buruz: «Banuen nire arrabita, musika-tresna beldurgarri bat nik neuk egindakoa pinu ohol batekin eta gitarren soka zaharrekin, eta egia da berriak ere jarri nizkiola. Tresna hori aipatzen nion hotsandiz Victor Hugori, helarazi nizkion lerroetan: inoiz ez du jakin nolakoa zen poetaren arrabita, akorderik gozoenak bidaltzeko erabiltzen nuen lira!»

Margarita Deunarengatik
Frantziarengatik eta gizateriarengatik [?]
gure arbasoen arimarengatik

Hugo, zin egiten dizut,
ahots hau Jainkorengandik dator
eta ez naizela batere zinauslea
Ez dut tatxarik ezta orbanik ere
nire suzko ariman.

L. Michel Demahis⁹

9 *Aberriari* poema luzearen atalak.

Vroncourt gaztelua, Bourmontetik gertu,
Haute-Marne

Ez irakurri gaur osorik nire eskutitza; luzeegia irudituko litzaizuke eta pentsamendu horrek ez dit onik egiten.

[Goialdean gehitua]

Eskerrik asko. O, mila bider, eskerrik asko. Zuregan harrera hartuta beste mundu batean bezala nago, zoriona da, hainbeste penaren artean. Ez dizkizut sarritan nire arima igortzeko gutun hain luzeak idatziko. Uneren batean pentsatuagatik ez zenidala erantzuten, ez zintudan errudun egin nahi, Hugo, zoritxarra zela uste nuen. Jainkoarekin ere banengoen desesperatuta eta bazirudien madarikatzen ninduela berarekiko zalantzan nengoelako eta zurekiko fedea nuelako. Eskerrik asko, oraindik ere. Zernahi gertatuta ere, gutxiago sufrituko dut zuri kontatuz gero. Ez du axola gure artean egon daiteken urruntasunak, nire arima zurearen printza bat da, nire pentsamenduak aske uzten ditut kezkarik gabe. Barka begirune gehiagorekin idazten ez badizut, baina ez dit onik egiten zurekin hitz izoztuak erabiltzeak eta nola ez zaitudan inoiz ikusiko

gainera, zergatik debekatuko diot neure buruari nahi dudan guztia esatea, Hugo? Ulertuko zenuke presoak bere bakardadean distiratzen duen eguzki izpi bakarra maitatzea. Utz iezadazu pentsatzen dudan guztia adierazten, hemen egongo bazina bezala, sutondo aurrean, hutsik dagoen nire amonaren besaulkian, zure eskuak nireen artean, amona eta biok arratsetan luzaro egoten ginen bezala. Egiaztatu al duzu une batzuetan nola arimak gorputza hausten duen? Hala hilko naiz, benetan zoriontsu izango naiz orduan, berriro bera ikusiko baitut. Eta jainkoak hegoak ematen badizkit, zu beilatuko zaitut. Esadazu, nahigabetzen eta ulertzen ez diren mota honetako pentsamenduak bizi izan dituzu? Hizkuntza hau zerukoa edo infernukoa izango da. Hilobian soilik jakiten da. Dena amets bat bezalakoa iruditzen zait, baina agian bizitza da ametsa, zalan-tzazkoa bihurtzen ari zait dena, baita izatearen beraren errealitatea ere. Nire bizitzaren orrialde batzuk idatziko ditut, zuretzat bakarrik. Kontatuko dizudan guztia jainkoa eta gure artean geratuko da. Orduan ulertuko duzu patuan sinetsarazi didan zergatia. Nire gauean izen liluragarri batek dirdaitu zuenean berarenganantz oihu egin nuen. Baina ez da gaur izango hau guztia kontatuko dizudan eguna, ezin dut ideia bat jarraitu, bestalde, bereizi ezin ditudan gogoeta hauek urratzen naute. Hegaldatzen uztearren nire bekokia lehertzen dela iruditzen zait eta ez dut aurkitzen hitz bakar bat ere zuri idazteko. Hugo ez nazazu inoiz ahaztu, esan nitaz zer pentsatzen duzun. Niregan pentsatzen ez baduzu ere, esan.

Nahi al duzu nire amona samur zintzoaren hitz batzuk esatea, esatea menda dorretxoari atxikita bezala zergatik nagoen gaztelu zahar honi lotuta? Agian berari buruz mintzatzerakoan mintzen nauten pen-

tsamenduak ahaztuko ditut. Baina lehenago bihotza atsekabetzen nauen gauza batzuk aitortuko dizkizut. Joan den udan irainak igortzen nizkizunean, ez nituen zure diskurtsoak irakurri nahi, ez bazen kritiken ala txatalen bidez, haserre ez idazteko. Ez zenuke imajinatuko ze maleziaz belzten zintuzten, irudi nardagarri bat ematen zuten. Saguzar batek bihotzaren gainean hegalak zabalduko balizkizu bezalakoa zen, nahiago izan nuen hori guztia ahaztu laidoek aldarea zakartzen dutelako. Bitartean, hitzeman inoiz zerbait aurpegi-ratzen badizut, gogoan izango duzula adiskidetasun eta ausardia handia behar direla gorrotoarekin mintzatzeko. Ba al dakizu zuk ni zital eta bihozgabetzat hartzen ninduzuneko (ez esan bestelakorik) garaien oroimenak hobeto sentiarazten nauela? Nire arima zurearekin nahastu ezin dudalako sentitzen dudan minaren erdian zoriontsu egiten nau. Nire oinazeen artean bakarra da zorion bihurtu dena, nire zorion bakarra bihurtu ere. Ulertu dut jainkoak zergatik bizitza eta sumindura igaro ondoren zerua eskaintzen duen soilik. Nire gutuna erretzeko gogoa dut, egin beharko nuke, baina nola idatzi beste era batera, Hugo? Erregutzen dizut, ez erantzun orrialde honetako hitz bakar bat ere, baina inoiz ez nazazula ahantzi.

Gaztelu zaharrari buruz hitz egin behar dizut. Premiazkoa zait harri izoztuak aurrez aurre begiratzeari oroitzeko. Batzuk diote Henri de Guise-k eraiki zuela, beste batzuek askoz lehenago izan zela; azken uste hau da litekeena, ia suntsitua baitago. Urrutitik mausoleoa¹⁰ dirudi eta irudi triste hau bat dator bere elezaharrarekin zeinaren arabera, madarikazio baten

10 Xavière Gauthierren aburuz, gazteluaren itxura siniestroak hegoaldearekin zuen zerikusia: ez zuen leiho bakar bat ere. Herriko jendeak «Hilobia» deitzen zuen, baina argazkiek eraikin orekatu bat erakusten dute, lau dorreak osorik dauzkana eta, «nolabaiteko xarma» daukana.

pean gizon beltz batek eraiki zuen. Hau elezaharren herria da. Bertako emazte zaharrek diotenez, herrixkaren bukaeran bada iturri bat non gauetan andere zuria dantzatzera etortzen den; eta gazteluaren iparraldean, larunbat gauetan, inor igarotzen ez den bide sakon bat dagoela, non, akelarre batean, sorginak elkartzen omen diren. Harri handien pean armadura hondakinak edo ezkutatutako hezurak aurkitzen dira. Larunbat gaueko bilketak ikusezinak dira, nonbait, poetentzat, edo sorgin edo aztiengandik babestuak izateko garaile batzuen izenak bihotzean eramatea nahikoa da; izan ere, belarretan lotan dauden ilargiaren erreinuak eta urmaeletan ahotsak bezala kexu diren seskak besterik ez ditut ikusi. Herritxoan angelusak jotzen duenean badira ur gainean makurtzen direla diruditen sahats zaharrak, Maria birjina agurtuko balute bezala.

Udan, sahats multzo bat zegoen lekura joaten nintzen batzuetan, eseri eta berandu arte geratzen nintzen, nire eskuin aldean ke beltz pixka bat zerion errota zegoen, nire aurrean bide sakon bat. Bizitza ametsetan igarotzen duen nire itzala zegoen soilik han. Bertso asko zirriboratu ditut bertan ilargiaren izpien pean, uste dut gutxi gorabehera azkenengoaz oroitzen naizela,

gizaldiak amets xahutua darama oraindik bere
hego
mugikorraren gainean, itzal hauskor bat bezala
Hemendik doan lilura
lagun talde alderraiarekin elkartzen da haize
leunean
eta loreek mendi gainean hegan egiten dute
hona datoz poetak amestutako neurtitz guztiak
elkarrekin

dantzatzer a ilargiaren argipean
aztien artean, uhin, dunen gainean
edo gaztelu zahar baten dorre garaiei goialdean
zure ametsak nire ametsekin nahasten dira,
Hugo
gauez ibarretan barrena, alegiazko armadak
igarotzen dira
belar luzeen artean eta hondakin gotikoak
bateltxo urdin bihurturik ur gainean noraezean
doaz
beren soineko gardenak lurrinetan kulunkan
armada murmuriotsuak
garoa eta loreak
aukeratzen beren kanpadendak ezartzeko
egunen batean haiek bezala
poeta, gu...

Ez, ez dizut inoiz atal hau bukatuko; negar
gehiagi eginarazi dit. Atseginagoa zait beste lerroak zi-
rrimarratzea mendi gainean, hondamen batengandik
hurbil, kontrabandisten habia izandakoa esate batera-
ko, duela berrogeita hamar edo hirurogei urte, askoz
lehenago honelako gaztelu bat bezala.

Arratseko haize leuna

I

Entzun, gauerdia jo du jauregiaren talaian
azti higuigarriak aireratu dira dorretxo gainean
gauez
baina hara nola aurreratzen den oihal gardenez
estalitako
aurpegia

izarrak bezala aurpegi distiratsua duen gaztelu
zaindari

gaztea

maitasunaz mintzatzen diharduen koplari
adeitsuaren ahotsa

entzun du

eta dorretxo grisaren oihartzun zaharraren
inguruan abesten du

haize leunarekin batera

II

andereño, entzun nazazu, ez dut ezer mundu
honetan

ezpata herdoildu bat besterik ez, troberoen lira
eta Rhingo baroi gorenaren ausardiazo armaria
non gerlariaren erramuzko koroa

erromesaren gurutze umilarekin
elkartzen den

o gaztelu zaindari, printza bat lez maite zaitut,
zu bezala nire ahizpak Magdeleine zuen izena
haurra zenean oraindik, aingeru batek sehaskatik

hartu zuen nire ahizpa, zeinari Birjina
erreginak lokartzeko

abesten zion bere hilobian gauean

maite zaitut Magdeleine, erregina egingo zaitu
subirano egingo zaituen printzeak

hirurehun gaztelu ditu aurretik, errege baten koroa
eta lautadan zaldiketan diharduten gerlari armatuak
baina nik maite zaitut eta zu besterik ez zaitut

III

isildu zen, bere otoitza

itzali zen negar artean,
baina dorre arranditsutik arrosario bat
jaitsi zen lorez estalia

koplarien ahotsak dardaratzen zuen txilar artean
egunsentira arte
gero egunaren ordu txikitan, gerlara alde egin
zuen
zaldunekin bakarrik zihoala zioten orduan
Rhingo Burgravesera Frédéric Barberousserekin

koplarien erramua
malkotan zegoen altzifrea zen
harri hotzaren azpian
bere arrosarioa ipini zion
lozez estalia oraindik.

Mendiaren behealdean daude gazteluaren hon-
damenak, Vroncourteko eliza, txiki-txikia da eta ia
suntsituta dago. Bada aldarearen eskuinean, kapera
bat dago hilobiz lauizatuta, guztiak dira gazteluko zain-
dari ohien hilobiak. Aldare erdi hautsiaren gainean
kondearen koroa eta armari bat dago. Oso hurbil dago
hilerria eta igandero herriko haurrek jolasten dute,
ni gauetan bertaratzen naiz, berandu, ez dakit zerga-
tik hildakoen freskotasunak on egiten dit, urruntzeko
ahalegin handia egin behar izaten dut.

Ikusi al duzue hilerriko murrueetatik jaisten
bapore heze eta hotz bat harriaren gainean
angelusak gauean jotzen ditu
herriko etxeetako gar bakoitza itzaltzen du
eta hildakoen abesti bat bezala gure ariman
durundatzen du

ufada bat zaratarik gabe deitzen gaituena.

Ikusi al dituzu erortzen udazkeneko hostoak
eta koroaz loratutako zuhaitz bakoitzeko lore
bakoitza
hilobi hotzetan zabaltzeko da
entzun al duzu haizea kexuka
eta hausten den arima baten oihua bezala
adaxketan errari doaz ahots batzuk.

Uste dut Vroncourteko gazteluari buruz hitz egin nizula. Iraultza baino lehen bi fraide bizi ziren bertan, gero Crêvecoeur batena izatera pasa zen, jarraian Nazioarentzako izan zen eta banda beltza eraisten hasi zen nire aitonak erosi zuenean. Haurra nintzela gogoratzen naiz nola ikusi nuen erosketa agiria, estilo eta ortografia bereziko dokumentua. Ezaguna zen Demahis hiritarra, legegizona eta Parisko lehen parlamentuko kidea, geroztik Vroncourteko gazteluaren jabea, e.a.

Nire aitonak benetako zaldun baten izaera zuen. Bere emazte gazteak ez zuen gogoko jendetza. Biek zuten artista arima; pintura, poesia eta musika maite zituzten, Erdi Aroko patriarka eta gaztelu zaindarien bizitzeko era zeramaten. Beren haurren heziketaz beraien arduratzen ziren eta nire amonak gogo guztia ipintzen zuen umeen ikasketetan, berak gero nire heziketarekin egingo zuen bezala. Elezahar batek gaztelua madarikazio baten pean zegoela esaten zuen arren, egonleku baketsua izan zen urte batzuetan. Baina euren seme gazteena hil egin zen eta berarekin etxeko poza eraman zuen. Alabak izaera arraroa zuen. Bizitza nahaspilatua eramaten hasi zen, Chaumont-eko auzitegraino iritsi ziren oihartzunak. Familia atsekabetuta

zegoen. Gazteak Parisera ihes egin zuen, amari idatzi gabe kale gorrian bizi izan zen denboraldi batean. Galbideratu zuen gizonak tratu txarrekin larritu zuen, garai hartan ospea zuen Pelletan jauna sendagilearen etxean babesa aurkitu eta handik urte batzuen buruan sendagile horren semearekin ezkondu zen. Bestalde, nire amonak, bere gain hartu eta hezi zuen emazte alargun behartsu baten alaba. Alaba hura nire ama zen, gazteluko semeak maitatu zuena eta ondoren bien alabatxoekin batera baztertu zituen. Beren semearen iritzia kontuan izan gabe, bi agureek besoak zabaldu zizkiguten. Horrela izan zen, gero kontatu zidaten istilu latzak suertatu zirela haien senideen artean, ez nekien ezer, baina ni nintzen egoera gogor horien arrazoa. Horra zergatik mespretxatzen nauten, Hugo.

Ezin dizkizut adierazi nire haurtzaroko inpresio guztiak. Oinazearen, pozaren, zoriaren eta ametsen nahaste bat da eta nire amak sinesten zuen patuaren ideia. Gogoratzen naiz emakume zahar batek bere besoetan nola kulunkatzen ninduen, zera esanaz: «Txiki, joan hilerria lo egitera.» Hitz hauek madarikazio bat bezala geratu zaizkit bihotzean, beti. Beste batean, neska gazteak ginela, barrez esaten zidaten: «Joan aitararen etxera» eta negar egiten nuenean ozenago egiten zidaten barre.

Orain hori dena amets bat iruditzen zait. Oraindik nire amona entzuten dut ni kontsolatzen nirekin batera negar egiten edo erromantze luzeak kantatzen. Garai hartako zenbat oroimenetan pozik nengoen, jadanik bizitzaz akitua besteetan. Gaueko beilaldietan nire aitona, oraindik gauetan entzuten dudanak, gitarraren soinupean lapur eta zaldunen istorioak kontatzen zizkidan ala iraultzari buruzkoak, Vendée edo Louis XVI.ari buruzkoak barne, amonaren pianoa en-

tzuterakoan begiak ixten nituen, nota bakoitzak bere irudia eta bizitza nola hartzen zuen ikusteko. Ez dakit hori zuk nik bezala egiaztatu duzun, baina musikak mundu oso bat nabarmenarazten zidan. Badira oiha-netan abesten duten txorien ahotsak, deabru errondak zorigaiztoko heriotza jaurtiz igarotzen dituzte batzuetan, aingeruak bezala hegan doazen notak, orro edo negar egiten dutenak. Hau guztia gorputz eta bizitza bat harturik altxatzen da, agerraldi arrotzak osatzen dituzte. Horrela nik igortzen dizudan planoak da musika pieza bat entzun bitartean nire aurrean izan dudana irudia, idazteko fantasia izan dudana.

Haurtzaroko oroimenen artean oraindik hunkitzen nauten figura makurren, eztiak eta nardagarrien nahasketa bat dago. Hala, erlijioso zahar batek eskuak elkartuta *Agur Maria* errepikarazten zidan angelusak adar artean jo eta izarrek dirdiratzten zuten bitartean. Ordu horietan zerura hegan egiteko gogoak sentitzen nuen. Amonak nire ametsengatik negar egiten zuen maiz, horrek zoritxarra ekarriko zidala zioen, berraz bezala, suzko arima zuenez bere bizitza tormentu bihurtu baitzitzaion. Gero eskolako maisu zahararen irudi serio handikia dago, matematiketako nire kaieretan deabruaren zirkulu handiak ikusten zituen, hegodun zenbakiak ala kanpaitxoak eta era guztietako koloreaniztun zintak neramatzan mototsetan. Benetako burlazko mundu bat zen, eta tartean bere karikatura egoten zen ukabila orriaren kontra zuela. Bada oraindik ere mahastizain nano bat, konkorduna eta herrena, baita garaiera erraldoia zuen gizon bat, besoak eguzkiz estaliak zituen eta lapurrak lokartzen zituen. Gero bazegoen ere begi urdin handidun neska txiki bat, Élise Bertaud, nekazariaren alaba, Mariaren koadroen antzekoa, eta, honen guztiaren erdian, nire aitaren begitarte

iluna agertzen zen noizbehinka, nik besoak luzatzen
nizkion, orduan berak esaten zidan: «Zu ez zara behar
bezain zintzoa, bestela zure aitak maiteko zintuzke.»
Eta egoera horretan erantzuten zidan zeruko oihartzun
bat itxaroten nuen beti. Uste dut esan dizudala nola
irakurri nuen banda beltzaren oda:

entzun, olinpio, jainkoak sortu zituen gure
arima ahizpak
eta ufada bakarrarekin sortu zituen gure bi bihotzak
zure kopeta nire dorretxoengandik urrun ipini du
baina, gure bekokiak ukitzeko, haize leunak
hego bat besterik ez du
maiz izar berdinak goiko misterioen bidez
erakarri ditu gure begiak
amets eginarazten digu bioi sarritan goiko misterioak
amets batean ikusi zaitut orbelezko haurra
noraeezan, alai, ameslari
niregana hurbiltzeko deitzen nion irudi xarmagarriari
nirekin batera liburu zahar baten orria biratzen
zuen
edo nirekin batera Jainkoari galdetzen zion
garaitik garaira ihes egiten duten itzalen sekretuez
itzal horien guztien artean
gau ilunean zure ingurura
alderrai datozenean
lirak mamuen
atsedena uhertzen du
eta zure itsasontzia
olatu gainean eramatera datozenak
sultanen jauregiaren
erregina misterioitsuak
eta zure kantuan bizi diren
irudi xarmagarri ugariak

edo lauzaren gainean altxatzen diren
fantasma zurbilak
ipotx higuigarriak
buhame erraldoiak eta lapurrak
soineko zuridun haurra gaztelu zaharraren
dorreetatik hurbil
igarotzen da zure ametsean noizbehinka, zure
izena eta kantuak
ekaitzaren ufadan jaurtitzen edo zure bertsoak
labanaren baitan dantzatzen.

Egun batean nire aita notario batekin etorri zen
etxera; nire ama ez zen beste batekin ezkontzera ze-
torren. Beti gogoratuko dut zein hunkitua sentitu
nintzen eta zenbat negar egin nuen belauniko leiho
burdin hesitua zuen eta ni mundura etorri nintzen gela
txiki honetan. Jainkoari eskatzen nion emango zizkion
haurrak maiteko zituela nik bera maitatu nahi izan
nuen bezain beste.

Bere ezkontzaz geroztik, izeba etxera itzul-
tzen hasi zen bere aitaren oniritzirik gabe. Hau zela
eta iskanbila ikaragarriak izaten zituzten nire aitona-
amonek. Izeba haserre horien jakitun zenez, isolatua
balego bezala zegoen etxean. Honi guztiari herrian
erakusten zioten destaina gehituta, bereganako atxi-
kimendu sutsua sortu zidan, maitatzeko ni besterik
ez zuelakoan nengoen. Bazegoen beregan zerbait be-
rezia; ontasunaren eta ankerkeriaren nahasketa bat,
espresio basati bat, bere bizitza bezain arrotza. Bere
amorrua infernua zen niretzat. Dena sakrifikatuko
nukeen beragatik. Alabaina gogorra zen nirekin ba-
tzuetan. Gogoratzen naiz amonari esaten ziona entzun
nuela: «Zoraturik al zaude musikako ikasgaiak ematen
haur honi? Honezkero nahikoa ateratzen da bere es-

tatusetik. Ahalegindu behar zenuke orratza eskuetan jartzen.» Nire amona berarekin haserretzen zen, eta ni ez nintzen ausartzen musikako koadernoak edukitzen, izebaren umore txarra ez eragitearren. Beste edozeini harro erantzungo nion, baina inork ez zuen bera maite eta barkamena lortzeko bere oinetan biribilkatzen nintzen negarrez. Bere semearekin ere harreman hotza zuen. Ez banion nire atxikimendua adierazten dohakabea zela usteko nuen.

Nire aitak bi haur zituen. Batzuetan etxera eramaten zituen eta ni, beren arreba, ez nintzen besarkatzera ausartzen. Horrek denak urte batzuk iraun zituen eta gero aita emeki-emeki niregana hurbildu zen. Alde egin baino lehen, haurrak nire soinekora atxikitzen ziren negarrez eta aitaren hasierako hoztasuna samurtasun bihurtu zen. Baina une horretan aitona hilzorian zegoen eta izeba senarrarengandik bereizten ari zen. Beraz inoiz ez naiz erabat zoriontsua izan. Hala ere, bada zerbait berezia; nire atsekabeak izugarriak izan dira zorion handienak bizi eta gero.

Nire aitona hil egin zen. Abenduko gau batean izan zen,¹¹ haizeak negar egiten zuen. Atzo gertatu balitz bezala gogoratzen ditut heriotzaren inguruko zirkunstantzia guztiak. Voltaireren eskolakoa izan zenez beti, ez genuen apaizik eskatu. Hil zen momentuan nik osorik eskaini nion nire burua jainkoari, bere arima salba zedin, alabaina, hau gure artean Hugo, nik ezin dut infernuaren betikotasunean sinetsi. Aitonaren heriotzaren ondoren, nire izeba etxera itzuli zen; hiltzera zetorren, gainera.

Ez dizut hitz egin nahi gertatu ziren gauza higuinargi guztiez aurrez ez atsekabetzeko; batzuetan laguntasunagatik nire piezak eskatu dizkidate eta az-

11 Berez 1844ko azaroaren 30ean izan zen. Louise Michelek 14 urte zituen.

kenean kritika mordoa jaso izan dut; beste batzuetan ilusio handia egin didaten irakurketak izan ditut. Bidalitzen dizut jasotako guztien artean gaiztoena ez den gutuna, sinadura kenduta. Begira nola zimeltzen den dena nire begietan. Baina ez dut gehiago honetan pentsatu nahi. Badakizu, Hugo, ez dut gehiago sufrituko. Nahiz eta badudan azken pena bat kontatu nahi dizudana. Izugarria da. Nire amaren zintzotasuna zalantzan jarri behar dut. Nire aitaren aburuz bere arreba nintzen eta ez bere alaba. Ez dut uste, eta ordea pentsamendu izugarri bat da zuri bakarrik esango dizudana eta niregandik kendu nahi dudana, uste dudalako krimen bat dela nire amarekiko, hain da ona eta zintzoa.

Ez dizut gaur hitz egin nahi, nire amonaren heriotzaren ondoren gertatu den guztiaz, batzuetan baztertu besteetan lausengatzen nauen jende horrez, olatu bat bezala joan-etorrian dabilena. Hau guztia amets bat da eta ez dut gogoeta gehiagorik egin nahi. Nahiago dut nire lumaren hausnarketa norabiderik gabe uztea.

Ba al dakizu zer esango nizukeen lurrin eta garrezko hego handiak banitu eta Jainkoak zure aingeru zaindari egingo banindu? Nik zera esango nizuke: egia bada deserriko Bourbonak oroitarazi nahi direla, zuri dagokizu, poeta, inspirazio eder eta handi honen lehen ahotsa goratzea. Zuk askatasuna maite duzu, loria; zure arimak oinaze guztientzako malkoak ditu. Ez al zenituzke erruki hitz batzuk adieraziko?

Zure aingerua izango banintz, zu entzuteko zerutik jaitsi eta nire hegoak zure bekoki gainean tolestu ondoren, hauxe da, Olympio, esango nizukeena.

Agur, Nire gutuna uzten dut, Zuk luzeegia aurkituko duzula pentsatzeak ez dit onik egiten.

Château de Vroncourt, près Bourmont. Haute-Marne.

Nire gutuna hartzen dut berriro, Hugo. Barka nazazu ni lausengatzeko idatzi dizkidaten gutune-tako bat zure begi-bistan jartzeagatik, baina erakutsi nahi izan dizut nola nahiko luketen nik denari buruz zalantzak izatea, baita zuritzaile batzuk tartean direnean ere, nola aurkitu duten koldarki nire egoera niri aurpegiratzeko modua. Gogoia nuen idatzi zuenari itzultzekoa, baina nahiago dut zuri erakutsi. Bestalde, beste gutunak ikusiz gero, hau garbiena dela ohartuko zinateke. Zenbat eta gehiago umiliatu orduan eta harroago bihurtzen naiz. Izaera urdurikoa naizela diote. Bakartasuna besterik ez dut maite. Maite ditudanak bakarrik ikusiko nituzke, baso baten hondoa ezkutatuta egotea gustatuko litzaidake, gaizkile eta zikintzaileek zeharkatu ezingo luketen harresiez babestua, nire habiatik kanpo zikintzaile guztiak mantenduko lituzkeen gortorleku sorginduez inguratua.

Ez dakit, aipatu ote dizudan plan bat daukada-la, musika pieza bat entzun bitartean konposatu nuen eta, ahaztu zait esatea, ez duzunez egiteko ezer izango, irakurriko duzula eta esango didazula, zintzoki, gustuko ote duzun, eta opera bat egitea zorakeria ote den. Bitartean, kritikari jaunei oso gutxi gustatuko zaie, eta hainbat hobe! Bukatutakoan erakusteko gogoia izango dute, beren printzipioei erakusteko.

1. ekitaldia

Mundua bukatu ondoren, Jainkoak bere eskuinaldean zintzoak eta ezker aldean gaiztoak jarri ondoren lurraren jabetza deabrueri eman zien. Eguzkiak eguna argitzen du, gorri, mundu hautsiaren gainean.

Errainu xehatuak hodei beltzen artean gurutzatzen dira, dirdira urdinak mendi gainetik doaz; tximistak izarniatzen dira basoen hondoan. Mundua desegitearen oihartzunen soinuak burrunbatzen dira oraindik. Ibaiak beren uberkak gaineztatzen dituzte, nahasten dira. Sena ibaia Notre-Dameko dorreetako gainaldean dago; laba ketsuak eraikuntzaren zimenduak lurperatzen ditu, gaizki finkatutako zorua dardarka dago oraindik. Jainkoak putz egin du oraintxe munduaren gainean. Ala beharbada, larunbat gau bat da, alegiazko lurren batean, ilargiaren argipean, Josafaten haranean.

Kondenatuak elkarretaratu dira tronurako komeni den errege bat hautatzeko

Satan

Voltaire, bere Jeanne d'Arc

Claude Frollo, kopeta gainean zeinu bat

Don Juan

Olivier Cromwell

epaileak

Antikristo

Flanel

Fausto

druida bat

Cagliostro

lutter [Lutero?]

Jeanneren poemak zalantza sortzen du Satanen eta Voltaireren artean baina Satan aukeratzen du, eta Voltaire erregearen bufoi gisa hautatuko dute.

Kondenatuen herria.

Richelieu, Salustro jauna, Cain, Nemrod Baal izenaren azpian, Odin, Mahoma, Borgoinako Margarita, Carlos IX, Frédégonde, Robert deabrua, Endoreko Pitonisa, Lukrezia Borgia, Maria Tudor, Alexander VI,

Olivier Adarzabala, Torquemadako Tomás, Sachée erregea, Julian kondea, Marekeko Gillermo, Flandriako Jeanne, Gibelin Roger hizlaria, Ugolinen eskuan dorreko giltza, Judas Tullie, ipotx higuingarrien biribilak, juduak, aztiak, Ofizio Sainduko zaldunak eta Anaiarte Santukoak, Trazia eta Peloponesoko mendietan bizi diren ziklopeak, Zenon ibiltari nomada, Mithias aberats txarra.¹²

Jaiak errege berriaren ohoretan, buhameen errondak, sorginak eta Ofizio Sainduko zaldunak neurrigabeko biribiletan, beren berokien azpitik gar gorriak aterako dira, Lukrezia Borgiak Claude Frollo darama. Satanek amorruez abesten du. Bat-batean, urruti druida anderea dakusa eta gorrotozko kantuetatik amodiozko kantuetara pasatuko da. Bere arimaren mugimendu bakoitza naturan margotzen da. Kondenatuak harriturik gelditzen dira. Gauza zerutar bat berragertzen da naturan. Eguzkia iluntasun gutxiagorekin dago eta hego itxurako lurrinak, une batez astintzen da deabruen bizkar gainean. Baina Borgiak druida anderea darama. Satanen abestietan amorrua berragertzen da. Hegoak ezabatzen dira. Gaua emeki-emeki jabetzen ari da. Biribilek susperturik, arinago doaz, komentu mada-rikatu bateko mojak eramaten dituzte. Hildakoen buru hegaldunak epaileak eta borreroak gonbidatzera datoz, bururik gabeko mamuak, erotxoak, *djin*-ak, ipotxak, banpiroak, esklabo beltzek erregearen bufoia zeramaten, landatzaileak trebatzen zituzten. Gaua iritsi da.

12 «Historiako, poesiako eta kondairetako nire gogoko pertsonaia guztiak zuten tokia beren izaeraren arabera» (*Memoriak*). Nahasketa erabatekoa egin zuen errealdaren eta irudimenezkoaren artean. Pertsonaien batuketa heteroklitoen batuketa honek erakusten du bazuela kultura zabal eta anitz bat herrixka batean XIX. mendean bizi ziren emakume bat izateko. Baina, Gauthierrek dioenez edo ez zituen sistematikoki bereganatuak jakintzak, edo uko egiten zion, neurri handi batean, erreala eta irudimenezkoa bereizteari.

2. ekitaldia

Baso bat, gaua. Satan, Odin eta Nemrod ehizan ari dira tximisten distiraren pean.

Zuhaitzak makurtzen dira eta, une batetik bestera, orein beltz izugarri bat pasatzen da basoaren hondoan eta tximistaren distiraren pean.

Satanek don Juan aurkitzen du, druida anderearekin mintzatzen ari da haritz baten oinetan. Satan amorratua dago, don Juanek erronka egingo dio.

Don Juan eta Satanen arteko borrokaldia. Don Juan desarmatuta erortzen da eta druida andereak Satan madarikatzen du. Horrela birritan madarikatu dute, Jainkoak eta maitasunak.

Kondenatuak esku hartuko dute, bi errege altxatzen dira, Satan eta don Juan. Borrokaldiak, krimenen handitasunen arabera finkatuko ditu hierarkiak, zeruan gertatzen denaren kontra. Iskanbila, infernuko zarata, garrasiak eta abestiak. Satanek druida anderea jazartzen du.

3. ekitaldia

Jeanne gerlariak, zerutik lurgainera itzultzea lortu du, kondenatuak Jainkoarengana eramaten ditu. Bera, biribilen erdigunera jaitsi da, bere pankarta zuri biribildua esku batean du, bestalde isiltzea agintzen du eta abesten hasiko da.

Satan aurreratzen da bere erreinura sartzen auzartu den aingerua txikitzen, baina gelditzen da eta, Jeanneren koroa izpitsua gurtzen behartzen du bere burua, begirada jaitsiko du.

Jeannek abesten duen bitartean, antzertia aldatzen da eta itxura zerutarra hartuko du. Aingeruak jaisten ikusten dira eta deabruei eskua ematen diete. Jeannek Voltaire zerura darama. Biktima bakoitzak bere borrarroari eskua ematen dio. Zerua irekitzen da, suzko karakterez idatzita, Danteren infernuaren izkribuaren aurkakoa irakurtzen da.

Ez dut idatzi dudan guztia berriro irakurri nahi, baina erre gutuna¹³ nire konfidentziak zuretzat bakarrik direlako, izuturik, nire buruari galdetzen diot nitaz zer pentsatuko duzun, baina dena kontatu nahi izan dizut hausnarketarik gabe. Barkatu nire zabarkeria eta zorakeria guztiak.

Nire gutuna honezkero hain da luzea orri bat gehiagok ez zintuzkeela nekatuko,¹⁴ baina hitzak falta zaizkit. Ez dakit zergatik, baina kontatu dizudan guztiaz erabat lotsatzen naiz. Bihozkada ote da? Ba al dakizu, zorionean sinesten ez dudanez, posta-truke hau amets bat dela niretzat? Egiatasun lazgarri batean esnatuko naizela iruditzen zait. Hugo, ahaztuko nauzula uste dut edo irrigarri eta erotzat hartuko nauzula, ezin du beste era batera izan.

13 Zorionez Hugok ez zuen gutuna erre. Baina ez dakigu zer erantzun zuen. Ez dugu erantzunik, ez dugu Louise Micheli igorritako gutun bakar bat ere, Michelelek berak erantzundakoekin irudikatu behar dugu harremana nolakoa izan zen.

14 Hamar orri, sarritan gainean idatzitako gauzekin, hizki txiki-txikiekin idatzi zituen.

Vroncourt gaztelua Bourmontetik gertu,
Haute-Marne

Jauna,

Nire bi azkenengo atalak igorri ondoren, norbaitek esan izan balit «Victor Hugok irain bat besterik ez du ikusiko benetako oinazeak sortutako negarretan», birao bat bezala baztertuko nukeen pentsamendu hori.

Orain, hain nago bihozgabetua, ez dudala berriakurri ere egin gutun honekin doan antzezlan, inspirazio tristenen mementoan idatzia. Ez du merezi erantzunik agian. Ez naiz talentu duen poeta irudimentsuari zuzentzen ari, bere arimari baizik.

Zer akorde atera daitezke Victor Hugok mesprextatutako lira batetik?

Ez izan zalantzarik, Jauna, nire errespetu guztia daukazu.

Louise Michel¹⁵

15 Gilbert Halley bilduma. Ez dakigu aurreko gutuneko bi antzezlanak gustatu ote zitzaizkion Hugori, Gauthier-en aburuz oso litekeena da ezetz.

Vroncourt gaztelua Bourmontetik gertu, Haute-Marne

O ez, idatzi dizudan eskutitza ez da azkena izango, esan nizun bezala dena zalantzan ipintzen dut etsimenduko une hauetan, zu izan ezik. Gaur boteretsu eta kementsu sentitzen naiz eta nire patuan sinesten dut. Gutxi axola du urguilua edo bihozkada den, esan egingo dizut, ez baitut nahi nire pentsamendu bat bera ere sekretua izan dadin zuretzat. Ez al zara ba neba, Hugo, edo neba baino gehiago, arima bakar bat baitugu. Oraindik eskertu nahi dizut zuri maiz idazteko esana, nire gutunetatik kanpo hainbat kezka dituzun horrek. Mila gauza ditut zuri esateko, hitz bakar bat besterik ez dut aurkitzen honentzat guztiarentzat, berresateko eskubidea dut, betirako Jainkoari eskaini zen honek, hilobitik edo zerutik zetorren beste mundu bateko biztanle batek behin eta berriro errepikatuko balu bezala, neba, maite zaitudala, izaera higuingarrien artean esku-zabala, handia zarelako. Ai! zuk ez dakizu zein handia zaren, zutaz gaizki jarduten dutenen begien aurrean

ere. Zuri esateko eskubidea ere badut, zalantzak banitu gaitzespen berdinak egingo nizkizuke.

Atal bat igortzen dizut, igandean bat-batean berotasun momentu horietako batean egina, bazirudien nire lumak mundu bat astinduko zuela. Zureganako dudan zintzotasuna hain urruti eramango dut nire aitortzeraino pozik nagoela aitortzeraino. Behar bada, atal hau, Orazteren sonetoaren antzekoa da, baina bertsoarekiko nire iritzikoa ez izatea askatasun osoz onartzen dut gutxienez. Beste gauza bat da sentipenarekiko. Ez dizut barkatuko, zuri batez ere! Eta bada gehiagorik. Bukaera ulertu baino lehen ez jolastu nire urguiluarekin. Uste dut egilea emakumea dela jakingo ez balitz bertako ideiek eragina izango luketela.¹⁶ Oda hau *L'Événement* egunkarian agertzea gustatuko litzaidake. Poeta asko bezala 20 urterekin hiltzen bainaiz, ez da izango mundu anker honi garrasi egin gabe: eskerrak damu bakoitzagatik, bihozbera miseria bakoitzagatik.

Hugo, su hau zein gauza gutxitan oinarritzen den! Idazten nizun bitartean, dorreetan haizea negarrez entzun dut ahots bat balitz bezala, eta haur baten modura negarrez hasi naiz. Zergatik? Ba amets guztien erdian pentsamendu bera etortzen zaidalako beti, eta dardara eragiten dit: zerua amets bat besterik ez balitz eta hildakoek mundu honetan hotza pasako balute... Bada oraindik min ematen didan gauza bat eta zuri esan behar dizudana. Vroncourteko Gaztelua erosteko asmoa dutenak egingo dizkieten aldaketak

16 George Sandek bezala, Daniel Stern-ek, André Leok eta beste hainbat emakumek bezala Louise Michel-ek pentsatu zuen gizonetzko ezizen batek literatur munduan sartzea erraztuko ziola. «Louis Michel» eta «Enjolras» gisa sinatu zuen sarritan. Charlotte Brontëk idatzi zuen: «Irudipen lausoa genuen emakumezko idazleek aurrejuzkuen biktima izateko arriskua zutela.»

zehazten dizkidate lasaitasun guztiz. Eta beraz nire gangadun gelako tranpa desagertuko da; eskailera kiribila erauziko dute eta dorreetako goroldio eta andere-mahats berdeak deserrotu ondoren igeltsuarekin estaliko dituzte. Ez dute gogoko etxeko aurrealde grisa. Pentsatutako konponketei esker, nire Guiseko jaunen Chatelak laster galduko du bere gotorleku eta mausoleo itxura. Horrek, bihotza uzkuratzen dit profanazio bat balitz bezala.

Beti negarrez ari den haize berberak nire ari-man amets multzo iheskor bat pizten du, dena argi eta iluntasunez betea, ameslari makurtzen da eta begirada harro batez deitzen dion haur xumearen ahotsa neur-tzen du, barre isekari batekin ihesi doa hegan, ufada batek barreiatuko zuen ipotx saldo bat bidaltzen dit niri urrunetik, bide zaharren bazterretatik hautsa kulkatzen ikusten dugun bezala

eta tropa arranditsutik
eta ipotx herri honetatik
ez da ezer geratzen
ezer ez nire arima hutsean
ez bada mamu zurbil bat

Harrokeriazko ametsek berekin dakartzate tor-mentuzko zalantzak, zalantzen espektro irrikagarria nire bekokia doluminezko zapiz estaltzera dator.

Laster arte, idatziko ez banizu ezingo nuke bizi-tza pairatu.

Vroncourt gaztelua

Adeline Beaudoin andereñoa,¹⁷

Nire lagun handia,

Ez nuke gutun hau pasatzen utzi nahiko esan gabe ez dudala inola Adelineren izena ahazten eta oraindik maite dudala, nahiz eta badirudien ez dela gehiago Louisez arduratzen. Ongi dakizu, txerren, noiztik ez zaren etorri? Begietan hartu beharko zintuzket, baina, nik neuk badakidanez ezin dugula beti gure lagun onena ikustera joan nahiz eta hala nahi dugun, horregatik uste dut zure akatsa adina dela nirea. Bitartean, mesedez eskatzen dizut, nire lagun maitea, zatoz ahal bezain lastarren gure dorre handi zaharrera. Ziur naiz zure presentziarekin alde egingo dutela gure dorre altuetan bizi diren saguzarrek eta gure urretxindorrek aurkituko dutela ahotsa nahiz eta negua izan, zure eto-

17 Gutun hau ez zion Victor Hugori idatzi, Adeline Beaudoin-i baizik. Maurice Barrès idazle nazionalista eta antisemitak luzaroan Louise Michel-en haurtzaroko tokiei buruzko liburu bat egin nahi izan zuen. Liburua ez zuen argitaratu baina bere oharretan jaso zuen Adeline Beaudoin Vroncourteko gaztelura zihoala Demahis andrearen piano eskolak jasotzera; gero alaba Louiseren eskolak jasoko zituen.

rrera ospatzeko. Serio diotsut, lagun maitea, ez dago ongi gu abandonatzea. Nire zirriborroak irakurtzearen beldur bazara, zin egin diezazuket ez dizudala ezer irakurriko, nahiz eta badudan Henrike bosgarrenaren aldeko matxinada abestiekin idatzitako kaier erraldoi bat. Beaudoin jauna da nire atzaparretan erortzeko zoritxarra izan bezain laster nire ameskerien elur-jausia aurrena jasango duena!

Ez dakizu, nire lagun kuttuna, ze zoriontsua nintzatekeen zu berriz ikusiko bazintut, berriro mintzatuko banintz zurekin. Hainbeste gauza izango ditut esateko. Baina agian, zu zentzuduna zarenez, aspertuko zara nirekin zeren zoro hutsa bainaiz.

Ahotsezko poeta banintz

Musa bat banintz ala Dante banintz

Jakingo nuke errepikatzen abesti melodiatsuekin

[?]ren eta zeruen misterio sakratuak

nahasten zure izena aingeruen bihotz kiskalira

jaingo oro boteretsuari abesten dizkiotenean
laudorioak

errepikatuko dizkizut txorien kontzertuak

haizeen murmurioak hostoetan eta uretan

mausoleoetako oinei emandako musuen hasperenak

ala abeltzainen bailarako lelo alaiak

baina bitxilore soil bat naiz muinoan oker

txinbo ezjakina naiz gaztelu zaharraren inguruan

ez dakit nola esan zenbait maite zaitudan eta nire arima guztiarekin besarkatu nahi zaitut. Agur nire lagun kuttuna, utzi behar zaitut. Emaiezu muxu geure partez amonatxoari eta baita amari, Beaudoin anderea eta Octavie. Berriz ere besarkatzen zaitut, nola maite zaitudan.

Zure laguna betiko,

Louise Michel

Madame Beths-en barnetegia,
Mutualitate eskolatik gertu,
Chaumont-en-Bassigny, Haute-Marne

Sakrifizioa burutu da. Atzo Vroncourteko gazte-lu zaharra utzi nuen, agian berriro inoiz ez dut ikusiko eta une honetan, amarengandik urrundurik, barnetegi batean bizi naiz non abuztuko azterketarako prestatzen ari naizen erakusbidean onartua izateko.

Maiz kemena falta zait. Zuri aitor diezazuket, neba, bere arrangura eta lilura guztietan hautsitako haur gaixo baten torturak ulertzen dituzulako. Nire bizitza osoa amets bat bezala altxatzen da, ez naiz ausartzen nire etorkizunari so egiten. Utz egidazu nire arima zabaltzen. Zu zintzoa eta handia zara, jainkoa bezala, Hugo, itxaropenezko hitz bat esango didazu eta nik agian zorionean sinetsiko dut oraindik. Ruy Blasek bezala esan nezake:

Munduarentzat beharrezkoa nintzela uste nuen, arima koitadua.

Lagun, hor ikus dezakezu emaitza...

Alabaina, zertaz kexatzeko eskubidea dut? Zertarako nire amets guztiak? O! esadazu, poeta, entzuten zenizkion doinuak arrabita hori txikitu egin behar al

dut? Gar sakratua betirako itotzen utziko dut? Ala poetak, apaizak bezala zeinu ezabaezin bat al darama oihukatzen duena: apostata! Burua makurtu eta isildu behar al da, etorkizuna bere kantuetan eta fedea bihotzean sentitzen direnean? Jainuen erregeak inperio bat erakusten dizunean, hegoak tolestu eta hil egin behar al da?

Gogoratzen al dituzu oraindik *Barruko ahotsak*-eko¹⁸ bertsoak?

Denak erretzen nau, pozak eta oinazeak

Lurrak ihintzaren beharra du

Eta nire arimak negarrarena

Hori da une honetako nire sentipena. Nire pentsamendua noraezean dabil ilunpean eta behar dut ahots ahaltsu batek esatea: argia egin bedi! Itzal horiek guztiak barreia daitezen. Beraz, lerro batzuk idatz egizkidazu, kemen pixka bat aurki dezadan berriro; nire indarra Jainkoan eta zugan baitago, neba. Etsiturik na-goenean zure kantuetako batzuk berrirakurtzen ditut, eta oraindik nire mendietako airea arnasten dudala iruditzen zait, dorre zaharrak ere berrikusten ditut, arrotzen eskuetara pasatuz gero suntsituak izango direnak. A! Ezin duzu irudikatu nolakoa den eguna hiri batean herritxo batekoa den haur batentzat, enarekin hazi nintzena, askatasunean. Horma hauek denek itotzen naute kaiola batek bezala, alabaina barnetegiko irakasle gogor, zorrotz batekin topatu orde, bihozberatasunez betetako ama bat aurkitu dut.

Nahi al duzu Chaumontez, nire kaiola berriaz, hitz egitea? Parisko Notre-Dameren tankerako eliza gotikoa dago, nahiz eta hori ipotx bat erraldoi batekin alderatzea den. Esan dezagun pasadan ikusi ditudan aurpegiek zer pentsatua ematen didatela, zaharkizale

18 1937an Victor Hugok argitaratutako poema-liburua.

jauna, zein engainatua zauden Dom Clauderen kanpai-jotzailearen bukaerarekin, Quasimodoren oinordekoen oinordekoez populatuta dago Chaumont hiria.

Guk hemen almenadun gotorlekuak ditugu goroldio berdez estaliak, baita Pécopin ederraren zain zegoen bitartean Baldourrek zelatatzen zuen garai-koak diruditen dorretxoak. Hemendik egun batzuetara maitatzen dudan dorretxo horietako baten marrazkia igorriko dizut;¹⁹ erdi-eraitsia okertzen da hiri berria mehatxatu nahian bezala, zaldunen Chaumontek eraisleen Chaumonti jotzen dien azkenengo erronka.

Orain ba al dakizu azterketa prestatzeko zer ikasten ari den Victor Hugorekin korrespondentzian ari dena?²⁰ Idazten ikasten ari da, bere orrialdeek ez deza-ten izan bide ertzaren gainean dauden sorgin biribilen zapazto itxura. Egun osoak igarotzen ditu hauek bezalako hizki ederrak eratzen: H, gramatika eta aritmetika hitzez hitz eta buruz ikasten. Aitortu ere egin behar dizut, ordura arte Hernaniren edo Camilleren haserreaz lanpetuago egon naiz neurriaz baino. Honek guztiak ez dirudi ezer, baina nahiz eta etxebizitzaz, ikasketaz edo bizitzaz aldatzea ez den aitona-amonak galtzea bezain mingarria, erraza ere ez da. Eta abuztuko azterketaren ideia, uneoro nire aurrean mamu bat bezala altxatzen da. Hau guztia nahikoa litzateke nire arima baino kementsuagoa dena hausteko. Nire dorreen goroldioa, bideetako belar izpien guztien oroimina naiz. Urrutitik ere ikusi ahal banu herriko kanpaia, arnasa erosoago

19 Louise Michelek ez zituen soilik bertsoak eta prosa idazten, pianoa ere jotzen zuen eta marrazten zuen. Bere marrazki bat baino gehiago iritsi zaizkigu, bereziki bere gazteluarenak eta Kaledonia Berriko bidaiakoak.

20 Ez zuen azterketa gainditu. 1851ko irailaren 1ean egin zuen. Egin behar izan zituen azterketen artean: erlijio ikasketak, jostea... antza denez kaligrafia izan zen froga ez gainditzeko arrazoietakoa bat. 1852ko martxoaren 29an gaindituko zuen... Versaillesen!

hartuko nukeela iruditzen zait... baina ez! Esadazu patuan sinesten duzula.

Agur, anaia, pentsatzen dudan guztia esan nahi nizuke, ez ditut hitzak aurkitzen, alabaina; jota nago.

Louise Michel



**MONTMARTREKO GUTUNAK
(1862-1870)**

Paris, 1862ko irailak 12

Victor Hugo Jaunari

Bruselako oturuntzara

[...]

Ia jainkoa ziren, poetak zirelako

Eta beren aurrean buruak makurtzen zituzten
jaunak

Ezin ederragoak eta leunagoak ziren

Oi zein ederra zen! Gure lur goibelaren gainean
Poeta hau! Kristo hau, ezerk mugarriztatzen ez
duen arima

Handia eta zintzoa! Guztion artean

Jainkoa, argitasun gorena, bere begi ninietan
izarniatzen

Aingeruak, bere oin ondoan, beren hego zabalak
ixten

So egoteko bezala

Begirada batez, zorigaiztoen goibeltasuna bare-
tzen zuen

Ahots zenbatezinak itzalpean deklamatzten

Abesten hasi ziren

Hau esanaz: aintza berari! Aintza! antzeko jaunari
Berak goizalde eta gaua dakusa, argizagia eta
hondar alea

Zintzoa eta zitala

Denez errukitzen da, guztiak eraldatzen ditu
Aintza! Hori Jehova da! denak bereganatzen,
murmurio bat bezala

Gurtzera guztiak igotzen

[...]

Enjolras²¹

21 Sinadura hau da gerora, Komunaren urteetan, Louise Michelek erabiliko duen Enjolras ezizena idazten duen lehenengo aldia. Gogora dezagun *Miserableak*-eko pertsonaia bat dela Enjolras. Talde iraultzaile bateko buru xarmanta da, nardagarria izan daitekeena. «Idealaren apaiza» da, albo batera uzten du plazera eta, bereziki, sexua eta maitasuna. Saint-Just iraultzailearen traza dauka eta «iraultzaren logika adierazten du». Fikziozko pertsonaia horrek Théophile Ferréren antza handia zuen, edertasun fisikoa alde batera utzita. Hugok 1851n egin zuen Frantziatik ihes. Aurrena Bruselan izan zen errefuxiatu, Jersey eta Guerneseyra alde egin aurretik. 1862ko udan Belgikara itzuli zen, bidaiatzera.

1862, irailak 12

Victor Hugo jaunari,
Guernesey
Ikusten al duzu laino artean itzalez estalita da-
goen harkaitza?²²
Maisua hemen dago, zutik, Dante erbesteratua
bezala!
Bere oinpean itsasoa dago, zenbateginezko soinuekin
Bere bekoki gainean zerua dago, zeru handi izartua.

Tira, poeta bazara makur zaitez!
Makur zaitez, bere gainean zabaltzen da Jain-
koaren besoa
Bekoki sakratuak ditu, eta buru batzuen gainean
Goiko zeinua suzko irudikeriaz izarniatzen da.

O denok dakigu! Obra santuak ditu
Poetak urrezko kaliza bezala hartzen ditu,

22 Bertso honek adierazten du Louise Michelek ezagutzen zuela, gerora hain ezagun egin den *Victor Hugo dans le rocher des proscrits*. 1853an Charles Hugok egina. Idazleak berak bidaliko ote zion?

Eskuek, ukitzeko hatz sakratuak dituzte
Egunero ukitu arren, ikaratzen dute oraindik.

Hala bere liburuek gure arimak dardararazi dituzte
Ebanjelio agurgarria da, nazioetara zabaldua
Argitasunez, errainuz eta garrez betetako liburua,
Nahiz eta gurtzarekin nahastu.

Baina non dago orrialde bakoitzean bizi dena?
Esaten du atzerritar pentsakorrak, oraindik gure
aurrean
Altxatzen dela uste dugu, profeta, kristo eta azti
Ortze mugan, urrun, puntu beltz bat agertu da.

O! agur ezazue bere kalbarioa! igarotzen ari zaretenok
Zoritzarrez! bere lekua hutsik dago gure artean,
zoritzarrez!
Utz itzazue bereganaino igotzen negarrak eta
otoitzak
Hugo legegabearen aurrean, belaunikatu!
belaunikatu!
Enjolras
[Beste eskuarekin idatzia:] Louise Michel

Paris

Parisko hiritarrei,
Erregutzen dizuegu datorren asteazkenean
iluntzeko 8etan Pierre Levée karrikako 16ra jotzea,
Tenpluaren aldirien kalean.

Louise Michel

Maisu maitea,²³
Ez da beharrezkoa zuri adieraztea hemen bidaltzen dizkizudan *Le Rappel*²⁴ hauekin nahi duzuna egin dezakezula.

Eskerrak beti.

L. Michel

23 «Maisu maitea» beti da Victor Hugori bideratutako agur bat.

24 *Le Rappel* egunkariaren zuzendaria Auguste Vacquerie zen, Victor Hugoren laguna; erredaktore nagusia Paul Meurice, Hugoren laguna hau ere. Kolaboratzaileen artean François-Victor Hugo zegoen. Gainera, Hugok, sarritan sinatzen zituen editorialak eta eskakizunak.

5 rue des Cloÿs, Montmartre,
Paris

Maisu maitea,

Nola eskertu zuri? Bai, ikasleak maisuaren duintasuna izango du. Nire gauetik idazten dizut. Zure hitzak argizagien barnea oroitaraziko du. Hona hemen, aukera paregabea, idatzi dizudan konfiantza berberarekin niri erantzuteko. Nola gutun hau daraman gizon gaztea nire lagun baten anaia den, erantzuna helduko da.

Iruditzen zait irakaskuntza bere ilunpetik ateratzen ari dela. Hain gaizki hitz egiten duten Montmartre honetan, diamante gordea aurkitu dut, eskolako maistra den nire auzokidearengan²⁵; maistra eginkizunak nik baino hobeto ulertzeko joera duelako-edo, pentsarazi dit aurrerapenen bat egin dela. Baina zein motel doan!

Noiz ikusiko dugu elkar, Maisu maitea, nik uste dut gauza ugari azaleratuko direla. Mundu honetan ez

25 Poulin anderea izango zen agian, Montmartreko irakaslea. Ala Caroline Lhomme, «Montmartren kokatu zen lehenengo irakaslea [...] eta, kontatzen zuenetz, auzo osoari irakurtzen erakutsi ziona (eta arrazoi zuen)», Michelek *Memorietan* jasotzen duenez.

nagoenerako, aldez aurretik agurtzen dut goizaldean. Baina oraindik badut kemena eta iruditzen zait ezin dela agortu.

Nire bihotzaren hondotik aberrian geratzen den ontasun eta handitasun guztia igortzen dizkizut.

Enjolras

P.S.: Baimena banu gomendatuko nizuke kuraia emateko, eskutitz honen eramaileari, kemen eta bihotz leialeko familia batekoa da.

Paris

Maisu maitea,
Begira nola igarotzen den herriaren justizia. Ez
gara gehiago koldarkerien edo porroten beldur. Fran-
tzia handia izango da, orain bere arima berraurkitu
baitu. Zoriontsuak gara. Hiltzeko prest izan ginen eta
gaur garaile izaten jakingo dugu. Harro gaude.
Enjolras,
Louise Michel²⁶

26 Xavière Gauthier-ek harrituta dio nola ote den posible 1971ko abenduaren 17an Victor Hugok bere eguneroko intimoan idaztea «Bera baitzen (Louise Michel) Enjolras gisa sinatzen zuena», 1862tik, gutxienez, baldin bazekien Enjolras gisa sinatzen zuela. Barreialura hutsa?

Paris

Maisu maitea,
Enjolrasek atzoko atrebentziagatik barkamena
eskatzen dizu, gaurko honengatik ere bai.
Etor zaitezke gutun bat ekartzera. Edonork du
eskubidea eta nik beste edozein herritarrek beste.
Maisu, oso haserre al zaude nirekin?
Enjolras²⁷

27 Victor Hugoren kaier intimoetan, 1870eko irailaren 13ko datarekin «Enjolras (L. Michel) ikusi dut b». Hugoren biografoen arabera «b» horrek «biluzik» esan nahi du. Irailaren 18an «Enjolras ikusi dut (ordubete kotxean 2 f 50)».

Maisu maitea,

Mila esker beti bezala²⁸ eta bestalde agur, Conches eta Gouvernes baserrietara joan behar dut.²⁹ Osaba-izeba zahar batzuk ditut han, eta beren semeak edo noraezean edo hilik egon daitezke; hirurak baserriko morroi, baimenarekin bidali dituzte bata bestearen ondoren, ez dira itzuli. Ezin ditut horrela utzi zorigaiztoko bi agure horiek. Zer kudeaketa egin beharko dut horretarako? Ez dakit ezer. Jules Simon andreari idatzi diot nahiz eta agian hark ere ez duen ezer jakingo.

28 1870eko abenduaren 1ean atxilotu zuten Louise Michel emakumeen manifestazio batean parte hartzeagatik. Bi egunez egon zen preso. Klubetako bere lagunek (Ferré, Avronsart, Christ) haren askatasuna eskatu zuten. Meurice andreak bere alde egin zuen emakumeen elkarrean izenean. Victor Hugok ere eskatu zuen askatasuna, baina ordurako libre zegoen. Halere, Louise Michelek eskertu zion. Eta Hugok bere kaiseretan idatzi zuen: «Abenduak 1. Antza denez, Louise Michel andereñoa atxilotu dute. Beharrezkoa den guztia egingo dut berehala askatasuna berreskura dezan. Meurice andrea ere horretan ari da. / Idatzi diot polizia prefetari Louise Michel andereñoa aske utz dezaten. Abenduak 2. Louise Michel andereñoa libre dago. Eskerrak ematera etorri da.»

29 Lagny-sur-Marne-tik gertu.

Horrez gain, idazten diguten zoritxarreko guztiei nire bisitak egiten dizkiet eta makina bat beste hainbat gauza. Guztira iristea nahiko nuke, eta batez ere Parisekin hiltzera etortzea berriro, sinetsiko al zenuke? Hainbeste koldarkeria ikusirik, beldur naiz dohakabe hauek ahaztu ez duten jopu lanbidera itzul daitezen.³⁰

Niri dagokidanez, hona zer oihukatuko dudan bilera guztietan:³¹ adoregabeak gobernuan okertzen badira, ez dugu inoren beharrik gu kontuan hartzeko eta etsi-etsian irteera bat aurkituko dugu.

Asko bagara, etsaia artaldea balitz bezala ehizatu-tuko dugu. Jende gutxi bagara, aldiz, ez gara sartuko eta besteek jarraituko gaituzte, askatasunaren argitzaileak izango gara hil ondoren.

Ez dizut Udaletxeko zerbitzariak burututako gure atxilotzearen xehetasunik eman, ziur aski haien jaunak kanpoan zeudela bazekiten, hori da nik uste dudana, baina... Ez da ona kuraiaren garaietan zitalkeriak astintzea, hala ere gauza honen txostena egin dezaket eta izenpetze guztiekin behin-behineko gobernuari bidaliko genioke. Dezente gara, bere begiak irekitzeko gai izan dadin.

Haiek ergelkeriak egiten dituzte, gu lana antolatzen lehertzen gara eta zorigaiztoko langileei galoxa ordaintzen uzten diegu 5 franko alkandora bakoitzeko.

30 Defentsa Nazionalerako Gobernuak hori nahi zuen. Ez zuen irtenbiderik nahi Prusiarekin, salbu eta Buzenval-ek (urtarrilaren 19an), horrela ahalik eta guardia nazional gehien hilko zituzten, eta besteek kuraia galduko zuten. Eta ordea Parisen zeuden gizon armatuak hiria setiatzen zutenen bikoitzak ziren.

31 Louise Michel militante aktibo bilakatu zen. 18. barrutiko bi batzordetan parte hartu zuen, gizonenean eta emakumeenean. Horrela aurkeztu zituen *Komuna* liburuan: «Zaintza Batzordeetan iraultzan erabat sartu nahi zuten gizonak zeuden, hiltzea batere axola ez zitzaientak; han lasaitzen zituzten beren adoreak. Aske sentitzen ginen, lehenaldia begiratzen genuen 93a gehiegi kopian gabe, eta etorkizun ezezagunari beldur gehiegi izan gabe.»

Agur, gure inguruan erortzen ikusten ditudan
beste guztiak baino handiago dirudizun hori.

Ez deabruan ezta Jainkoan ere sinesten ez duda-
nez, zugar sinesten dut.

Agur, agur.

Enjolras,

Louise Michel.

Paris

Maisu maitea,

Eskutitz mordoa jasotzen dut aholku emateko denborarik ote dudan galdezka. Esadazu ez ote naizen aberriaren azpisugea ohi bezala erantzuten badiet, ez badiet Errepublikaren uneei uko egiten Batzordearen atxikimenduen alde.

Ez al da hobe idolo irrigarriak eman orde, herria bera izatea burujabe, zital bat txikitu ostean?

Ikusi nola konponezinak handitzen ari diren eta halako momentuetan ez al dut arrazoirik eskuzabal-tasunez ereiten baditut laguntza eta dirua? Xahutzen dudala usteko dute, baina nik beheko burrunbak entzuten ditut.

Beren geletatik bota nahi dituztenentzat bizitoki merkeak aurkitzetik nator: lastairak lurrean jarriko ditugu etxebizitza horietan. Elikatzea besterik ez zaigu falta.

Alferrik da zuri galdetzea gutun hauei buruzko sekretua. Aste honetan, hoge-i-hogeita hamar bat gutun jaso ditut, eta beti zentzu berean erantzun dut,

gizonei heziera pixka bat gutxiagorekin; ehizara eramateko buruzagien beharra al dute?

Harrera egin diet mila bat emakumeren ordezkarierei ere, hori zirela adierazi didate haiek behintzat: anbulantzien eginkizunerako eskaini dute beren burua. Itxaroten duten bitartean lana aurkitzen badigute, oso baliagarria litzateke. Baina emakume gehienek zuhurtzia eskasa dute, gizonei kuraia falta zaien bezala.

O, zein handia zaren zu; zugan konfiantza dut gainera.

Gau honetan Saint Denis aldetik eraso egin nahi genuke. Kanpoko zaratak entzuten ditut, Chapelleko biltegian nago, bertan oso erizain zahar bat dagoelako. Bere bila joango nintzateke, zerbait gertatuko balitz, ausardiarik batere gabe diotsut hau; arriskua benetan maite dut-eta, agian basakeria ere bada nire aldetik.

Ausartuko al naiz zuri erregutzen *Le Rappel*-era lerro batzuk eramateko, honekin batera?

1. Deialdia, nire batzorde ohiko kideei lanerako mobiliza daitezela, gu laguntzeko.

2. Deialdia, gu jarraitzen gaituzten emakumeei, anbulantzien zain dauden bitartean guretzat lana aurkitzen ahalegindu daitezela.

Beti bezala eskerrik asko,
Enjolras



**GUTUNAK VERSAILLES-KO ETA AUBERIVE-KO
KARTZELETATIK
(1871-1873)**

1871ko urria

Poeta,

Errepublikaren pean errepublikarrak exekutatzen dituztenez eta Paris den hilobi honetan dena isildu denez, prentsa gehiagorik ez dagoenez, hezurtegi honetan arima gehiagorik ez dagoenez, zuri idazten dizkizut nire espetxearen hondotik gutunak, epaileei zuzentzen dizkiedan berdinak. Zuk ondo jakingo duzu nire kontzientziaren azken oihu hau herriari adierazten.

Eudes heriotzara zigortu zutenean,³² eskutitz bat idatzi genuen harro milaka sinadurarekin, nahiko harro eraman genuen Trochurenara, orduan Parisko gobernadorea zen. Michelet-ek gutun bat argitaratu

32 Louise Michel Eudesen izenaz soilik gogoratzen da, bere ikasle ohi eta lagun Victorine Louvet-en senarra zelako. Baina bi izan ziren heriotzara kondenatuak: Eudes eta Brideau blanquistak. Bi zigortuek 1870eko abuztuaren 14an suhiltzaileen kaserna bat erasotu zuten bertako armak hartu eta Inperioaren kontra borrokatzeko. Porrota izan zen. Heriotzatik salbatzeko egindako ekitaldia izan zen Louise Michelen lehenengo ekitaldi publikoa. Ekitaldi haren ondorioa baikorra izan zen, sinadura mordoa bildu zuten eta Adèle Esquiros eta André Léorekin exekuzioa atzeratzea lortu zuten. Irailaren 4an Inperioa hondoratu zen eta presoak aske geratu ziren.

zuen eta milaka sinadurarekin estali genituen milaka ale.

Nork egingo du hori gaur guztiok presondegie-tan bagaude eta asko hilobietan?³³

Maiatzeko sarraski izugarrien ondoren, ez da soilik exekuzio hotzen laztasuna, baina, Komunan gertatu zen guztia dakidanez, esan dezaket Komunak ez zuela inoiz krimenik egin, eta gainera erresistentzia egin zuela Paris supiztailez eta traidorez beteta zegoenean (ni neu haiek baino errudunagoa naiz³⁴). Justua zarelako, zuri eskatzen dizut erantsirik doazen esku-titz hauek argitaratzea.

Nire epaileak tentuz ibiltzen dira gerra kontseiluaren aurrean, hala egiten dute benetan iraultzaileak diren emakumeekin, baina gainera emakumeen hitzek beraiengan eragina dutenean, emakumeen ahotsa itozten dute.

Zorigabeak herrestan joango gara gerra kontseiluen aurrera, baita negar egiten duten segizioko ordainduak ere, baina ni, duela bost hilabetetik lehenengo prozesatueta bat izango nintzela ziotena, azkena izango naiz kontseiluetako jendetza gaizto horri hitz egiten, eta ez zait arima pixka bat ere iratzarriko. Askok maite dute krimenak lehenago egitea eta, gero, amnistia itxurako zerbait egingo dute, baina nik ez dut nahiko.

Miserableak, lapurrak, zer ez ote digute ezarri guri, iraultzaileoi, deportazioa, Errepublika salbatu nahi izatearen krimena egin dugulako, eta ez dizkiete kartzelak zabalduko ezer egin ez zutenei? Ongi zekiten

33 Egia da garaia latza zela, inork ez zuen adorerik halakoetarako. Are gehiago, jendeak oposizioa salatzen zuen, Poliziak 399.823 delazio jaso zituen Komunaren ostean.

34 Gramatikalki supiztaile eta traidoreei lotuta badago ere, Komunako ordezkariak eta Ferréz ari da zehazki.

gutako inork ez zuela nahiko haien Parisera itzuli, gauzak egin dituzten moduan eginda ez dugu Frantzian gelditu nahi ere.³⁵

Haiek bertan egongo ez direnean eta guztia hon-damen bihurtuko denean, deitzen badigute, geldituko direnak etorriko dira oraindik beren bizitza jendetza-ren alde ematera eta haien burua eskatuko dute.

Ez dakit Maisu maitea nola idazten dizudan lotsa eta haserrea besterik ez baitzait pasatzen buru-tik. Haiek horrelako izugarrikeriak egiten badituzte, o iraultza, nire maiteak, nik mendekatuko zaituztet, eta inoiz ezagutu gabeko mendekua izango da.

Louise Michel

Maisu maitea,

Zure gutuna jaso dut idazten ari nintzenean. Lortu guztiok deportatzea eta utz ditzatela aske ezer egin ez dutenak. Bereziki exekuziok ekidin, edo gu guz-tiok hil gaitzatela.

35 Xavière Gauthierren oharrak dio Louise Michelen idealismoak ez duela mugarik. Berez, Michel izan zela erbeste zoriontsu bat izan zuen bakarra.

Versaillesko kartzela, 1871ko urriak 13

Gure poeta handi maitea,
Sarraski izugarria pasatuta, borroka gogor-
ren bitartekari izan nahi izan duzunez, zuri dagokizu
baketze handia;³⁶ badakizu, zalantzarik gabe, zer den
zuretzat, eta guretzat, duintasuna.

Denon izenean mintzatzen natzaizu, ni haietaz
ziur bainago beraiek nitaz dauden bezala.

Amorrualdian egindako hilketen ondoren, orain
hotzean batere exekuziorik ez dezatela egin, edo de-
nok hil gaitzatela.

Bizitzen uzten bagaituzte, erbusteratu gaitzatela
ideien alde setatsu izan garenok; beste guztiak, gure-
kin ustekabeen topo egin duten biktima koitaduak,
aske utz ditzatela.³⁷

36 Hugo misio hori egiten saiatu zen. Pentsatu zuen, amnistia azkar bat
bultza zezakeela. Ia hamar urte pasatu behar izan ziren amnistia hori etor-
zedin. Hugok idatzi zuen, adibidez, urriaren 28an: «Gaur Versaillesen
egon naiz, Rochefort ikusi dut. [...] Esan diot amnistiaren alde nagoela,
eta eman beharko ligukeela, eta 1872ko maiatzeko bigarren igandean
afaltzera gonbidatu dut. Horrek poztu du.»

37 «Halabeharrezko atxiloketak ziren etengabe: gor-mutu bat aste batzuk
[atxilotuta] izan zuten 'Gora Komuna!' oihukatzeagatik. Laurogeita lau

Zure gutuna heldu zait, nirea jasoko duzula espero dut.

Denok agurtzen zaituztegu eta guk denok maite zaituztegu, gure poeta handia.

Louise Michel

urteko emakume bat, bi zangoetan elbarritua, barrikadak egiteagatik zuten [atxilotuta].» *Komuna*.

Paris etorbidea 20, Versailles

Maisu maitea:

Zuri idazten ari nintzen zuk niri idazten zenidan
bitartean.

Zatoz,³⁸ zuri esateko daukadana garrantzitsua
baita.

Eskerrik asko bihotz-bihotzez,

Louise Michel

38 Victor Hugoren oharretan ez du aipatzen kartzelara joan ote zen Louise Michel ikustera, Rochefort ikustera joan zela, ordea, bai. Baina urriaren 25ean Hugok idatzi zuen: «Violette andrea, Louise Michelen abokatua, Paul Meuricerekin etorri da afal ostean. Bere gutun bat ekarri dit.»

Versaillesko kartzela,
1871ko urriak 19

Victor Hugo jauna,
Maisu maitea,

Ferréren arreba bidaltzen dizut, Ferré da gure artean hoberena, eskuzabalena garaipenean, zintzoena porrotean, honengatik guztiagatik hiltzera zigortu dute.

Salba ezazu, ez da izango borraroen eskuetatik erauziko duzun lehenengoa, ez da azkena izango ere. Denboraz larri, zure eskuetan uzten dut berriro.

Zuretzat loria, bizirik zaudelako eta justua zare-lako hondakinen gainean.

Salba ezazu. Guk erregutzen dizugu.

L. M.

Auberive, 73ko urtarrilak 28

Maisu maitea,

Lor dezakezu Béatrix Oeuvrie aske uztea? Bere koinatua hil berri da (dagoeneko aita galdua du eta duela hilabete batzuk ama saminez zendu zitzaion).

Hitz hauek bihotzez maitatu eta besarkatzen dudan Meurice anderearen bitartez igortzen dizkizut.

Zuri, Maisu maitea, gogorapen onenak presoen aldetik.

Louise Michel

IV

**KALEDONIA BERRIKO ERBESTEKO GUTUNAK
(1874-1879)**

Ducos penintsulan, 1874ko martxoak 28

Victor Hugorentzat

Maisu maitea,

Ez dago sosegu posiblerik,³⁹ baina esan nahi dizut zure oinazearekin bat gatzela denok.

Dolumin zinezkoenak igortzen dizkizugu, elkartasuna zure senideentzat ere.

Louise Michel

39 1873ko abenduan hil zen François-Victor Hugo, Victor Hugo eta Adèle Foucher-en laugarren seme-alaba, 45 urte zituela, tuberkulosiak jota.

Ducos Penintsula, 1874ko irailak 8

Victor Hugorentzat

Maisu maitea,

Espero dut neurtitzen bolumen bat helduko ziztaizula; asmo horrekin bukatu dut behintzat.

Heriotzan bizi zara zure semearekin; ni ere horrela bizi naiz nire anaiekin, adoretuenekin, hoberenekin.

Ez al da egia heriotzak bizitzak baino gehiago balio duela eta hor gaudenean, batzuetan behintzat, gehiago atzematen dela erruki erabat sakona gizartearen desengainu guztiarekiko? Eta ez dakit ze borrokaren sukarrak hartu zaituen, eta badirudi oztopo handienak ez direla ezer, dena desagertzen da berriz ideia garaile baten kontenplazioan.

Les chatiments hemen izango banu? Zein ederra izango litzatekeen basamortu honetan berrirakurtzea! Eman egidazu baimena, honen bitartez, Meurice anderea besarkatzeko eta ozeanoan barna jaso ezazu, Maisu maitea, poetaren bihotza astindu eta burrunbatu dezakeen guztia.

Louise Michel

Victor Hugorentzat

Maisu maitea,

Usteko duzu, noski, eskaintzen dizudan liburua jaso ez duzunez,⁴⁰ nire energia guztia galdu dudala. Passedouet anderearen abiatzeak harritu ninduen eta, nahiz eta hosto sakabanatuen gainean nagoen, madreporaz egindako papergaineko bat igortzen dizut, gure basamortuko zerbait zuri erakusteko asmoz.

Idatz egidazu, Maisu maitea, eta ez pentsa hain zorigaiztokoa naizela, gutunak galdu ondoren une bat iristen da zeure buruarekiko interesik gabe sentitzen zarela, ez zara gehiago zure baitan izaten ez bada haize leunak sortutako olatuan edo zikloiaren marruman. Are gehiago, hil aurretik, ez da banakotasunik izaten jada.

Alabaina, oroimenak bizi dira.

Agur, Maisu maitea, guk zugan pentsatzen dugu eta maite zaitugu.

Louise Michel

[Eskuz idatzia I.I.H.S.A. 1875 dago lumaz idatzia.]

40 Zalantzarik gabe *Océaniennesi* buruz ari da.

1875eko ekainak 22, Mendebaldeko badia

Maisu maitea,

Pauline Roland-engatik⁴¹ egin duzuna, bertso batzuk eskaintzea,⁴² hilezkor bihurtzen duzu orbanik gabeko izen bat eta mugarik gabeko atxikimendua izan duen bizitza bat. Gauza bera eskatzera natorkizu gure lagun Passedouet-entzat, behinola argienetako bat izan zen, gure arteko bihotzik handienetako zuen eta heriorik lazgarrienetako batekin hil berri da, bere gaitasun guztien galera motela sentitu du, luzaroan egin diote ihes.

Bere alargunari zor dio existentzia negargarri hori urtebete gehiagoz luzatzea, hark esango dizkizu nondik norako guztiak.

Erregu egiten dizut, kausaren martiria delako, eta zurekin kontatzen dut, Maisu maitea. Badakizu ze konfiantza dudan zuregan.

41 Marie Désirée Pauline Roland (Falaise 1805 – Lyon 1852) feminista, sozialista eta irakaslea.

42 Victor Hugok *Les Martyres* olerkiko bertsoak eskaini zizkion eta olerki oso bat ere eskaini zion *Pauline Roland* izenburuarekin.

Espero dut Passedouet andereak idatziko dizula gutun luzeago bat, baina akaso ebatsiko dute, beraz aipatuko diot, edonola, idatzi dizudala.

Agur, Maisu maitea.

Louise Michel

P.S.: Pozik nago pertsona horiek ez dutelako amnistiarik nahi izan, horrela agerian geratzen dira; grazia eskakizunei esker, koldarrak gure gainetik kenduko ditugu.

[I.I.H.S.A.]

Mendebaldeko badia
1876ko ekainak 18

Maisu maitea,

Orain hitz egin diezazuket Paul Meurice andereari buruz; denbora nahiko igaro da hildakoari hil-jantziak jarri zizkietenetik eta etsipena zabaldu da.

Sakon maite nuen eta oraindik doluan nago, zuretzat bezala hilobiratuekiko atxikimendu handia daukat, nire oroitzapenean beti bizi dira.

Ze maitagarria zen bere handitasuna eta bere apaltasuna.

Eta zu, Maisu maitea? Zenbat gauza zuri esateko; baina ez duzu denborarik eta (zuretzako zen liburu) *Océaniennes*-etik bi bertso besterik ez dizkizut bidaliko

«Harkaitz beltz bat dago olatu monotonoetatik hurbil»

«Han, zure izena grabatu dut zikloi zaratatsuentzat»

Ez dizut esan behar ze poetari zuzentzen dizkiodan bertsook (nik ez diodalako beste izen handiko inori bertsorik eskaini). Esango didazu ez dizudala neuri buruz hitz egiten.

Hona hemen zein den nire ametsa une honetan. Espetxeko liburua behingoz bukatzeko denboraldi batez Bourail-era joatea (egonaldi luze bat egin beharko nuke beren hizkuntzaz eta ohiturez ohartzeko), oraindik gure eragina nabarmena ez den kanak tribu batean egotera, eta eskola bat hasiko nuke.

Izango al dut inoiz erraztasunik? Haraino joaten utziko al didate sekula? Ez dakit.

Baina segurua dena da, inoiz itzuliko bagina, ez nintzatekeela inola joango sei mila legoa eginak izan ez bagina bezala, ezer ikusi izan ez bagenu bezala, ezertarako baliagarriak ez bagina bezala.

Agur Maisu maitea.

Nigan itzali ez den poesia guztia igortzen dizut.

Louise Michel

P.S.: Ez da beharrezkoa esatea zentzakaitza naizela, beti bezala. Gertaera guztiak nire bihotzean daude, berdin hildako lagunak eta bizi direnak.

Erantzun egidazu, Maisu maitea, nahiz eta sekula baino Komunazaleagoa naizen eta prest nagoen berriro borrokan hasteko, desagerrarazi behar diren akats eta injustizien aurka egiteko.

[Zeharka gehitua] Fleurville jaunarentzat

Mendebaldeko Badia

Jauna eta agintari maitea,

Baimena eman iezadazu Victor Hugori eskutitz hau bidaltzeko, eta gehitu *Légendes canaques*-en zati batzuk.

Eskerrik asko beti, jaso nire begirunea.

Louise Michel

[I.I.H.S.A.]

Mendebaldeko Badia, 1878ko irailak 23
Victor Hugorentzat

Maisu maitea,

Utzi zure ontasunaz abusatzen, beste garai bartzuetan nire pentsamendu guztiak esaten nizkizunean bezala.

Ulertuko duzu zergatik ematen diodan hainbesteko garrantzia gutun honi, hemen baino hobeto ezingo nuke adierazi.

Ez dakit nire grina handiaren berri izan duzun, tribu kanak bat hurbiletik ikertzeko asmoa dut; horren kariatara, baliteke ahalegin guztiak egitea lur handian ibiltzeko bost urte finko horiek baino lehen. Denbora horren buruan, Kaledonia Berriko gobernadorearen menpekoa bada erabakia eta ez Barkamen Batzordearena, tribu batean bizitzea eskatuko dut Ducos penintsulan egon ordez, urtebetez behintzat bertako ohiturak eta zeremoniak osorik ikusteko e.a.

Nire gutuna helduko zaizula espero dut, guztiz garrantzitsua baita niretzat, ez nuke nahi edonork jasotzea. Zuri bakarrik idazten ahal nizun, tribu batean bizitzeko dudan asmoa zuk nola edo hala azalduko ba-

zenu, bestela ulertuko bailitzateke, baina nik ez nuke hori inoiz! inoiz! egingo.

Maisu maitea, espero dut *Océaniennes* helarazi ahalko dizudala; basamortuko ufada hauen ondotik nire bihotzean dagoen poesia guztia eraman diezazutela.

Idatzi eta bidaliezadazu *Les Châtiments*,⁴³ olatuen eta itsas haizearen soinuekin irakurtzeko libururik onena da.

Agur, ez izan niganako gupidarik, maite dut basamortu hau, eta gainera erbesteratuak beti itzultzen dira.

Louise Michel
[I.I.H.S.A.]

43 *Les Châtiments* (1852) Victor Hugok idatzitako poema satiriko bilduma. Urte bat lehenago, brumarioaren hemezortzian, estatu kolpe bidez boterera iritsitako Louis-Napoleon Bonaparteren ospea iluntzeko asmoa zuen.

Mendebaldeko Badia, 1878ko irailak 23 Victor Hugorentzat

Maisu maitea,

Nahi al duzu liburu kolektibo batean bi edo hiru lerro idatzi, tribuen matxinadaren ondoren⁴⁴ hemen kale gorri sakonenean geratu diren alargun eta ume-zurtzentzat?

Egilearen izenik agertzen ez bada, sarrera modura hamar lerro egiten baldin badizkio gure kutun horrek, liburuak asko emango die gaixo hauei. Egin zuk nahi bezala, idazle apala zure izenaren distirarekin desager dadin, eta zure ekarpena urrezko meatze bihurtuko da.

44 1878ko ekainaren 25eko matxinada kanakaz ari da. Hiru hilabete iraun zituen eta Kaledonia Berriko kolonizazioan egon zen matxinada aldarri garrantzitsuena izan zen. Deportatu gehienak Frantziaren alde jarri ziren, berentzat kanakak kanibal salbaiak besterik ez ziren. Deportatuetakoa batzuek kolonialismoaren aldeko borroka taldeak sortu zituzten. Louise Michel izan zen kanakak defendatu zituenetako bakarretako bat. «Egotzi zidaten basakeria. Tribuen garaian izan zen, eta nire burkideentzat kanakak baino kanakagoa nintzen.» Antza denez, altxamenduan lagundu zituen, Hélène Gosset-en arabera telegrafoen hariak nola moztu irakatsi zien. Kanaken «askatasuna nahi zuela» egotzi zioten. Kanaken buru Atai hil egin zuten, bere taldeko beste milarekin batera.

Numeako egunkari batean zure argazkia argitaratu dute, Maisu maitea, eta zerbaitetan ados bagaude, zurekiko dugun errespetuan eta atxikimenduan da.

Meurice anderea ez dudala gehiago ikusiko ezin naiz jabetu oraindik; guztiarengandik oso distantzia handira gaude, geure oroimenekin bizi gara eta hildakoak beti azaltzen dira guk utzi genituen bezala.

Hemen ez dute legerik ez bizitzak ezta eremu zabalak ere.

Agur, gure bihotzeko maisua.

Louise Michel

1879ko maiatzak 31

Maisu maitea

Zuri eskaini dizudan poema liburu bat igorri nahi izan dut, baina ez dago bukatuta, hurrengo itsa-sontzirako izango da. Eta zenbat gauza bukatu nahi nituzkeen!

Hemen ez dut inongo buruhausterik jasaten eta ez dut inolako emoziorik sentitzen barkuen irteera ikusten dudanean; marmolezkoa bihurtu naizela iruditzen zait.

Begira, Maisu maitea, Marcère Jaunaren diskurtsoaren ondoren, hamaika mila arrazoi ditut esateko hobe dela hiltzea amnistia orokor batekin itzultzea baino.

Nire herriko erbesteratu bat igortzen dizut. Gizon ausarta eta adimentsua da; agian nonbaiten koka dezakezu.

Baimena ere emadazu, Maisu maitea, gure zahar-rak zuri gomendatzeko, badira hirurogeita hamar urteko gizonak, zer egingo dugu haiekin?

Korrika eta presaka, klasearen erdian idazten di-
zut. Aurki igorriko dizudan gutun luzera arte.

L. Michel

POEMAK

3. Gerra kontseiluari

1871ko irailak 4, Versaillesko kartzela⁴⁵
Hemen daude, lasai eta sublime,
Paris askeko hautetsiak,
Eta zuen krimenak egozten dizkiezue,
beren mespretxu harroagatik haserre.
Ez dira ezertaz defendatu behar,
zeren koldarki egin duzue ihes.
Saldu berri zenuten guztia
suharki defendatu dute.
Cassaigne, Manguet, Guibert, Merlin, Bourreau!
Gaveau! Gaveau!
Merlin, Gaulet, Labat, epaitzea ederra da.

Garai hauek guztiak zuen lana dira.
Egun hobeak iristean,
Historia zuen amorruekiko gorra egongo da,
Epaile gezurtiak epaituko ditu.
Harrapakina bilatzen duten guztiek,
Salduek, traidoreek, pausoak beren atzetik dituzte,
Atentatuen txaloa,
Salatariak, lapurrak, emakume alaiak,
Cassaigne, Manguet, Guibert, Merlin, Bourreau!
Gaveau! Gaveau!
Merlin, Gaulet, Labat, epaitzea ederra da.

45 *À travers la vie* poema liburuan eta *Parisko Komuna* liburuan argitaratu zuen olerki hau.

Versailles hiriburu Versaillesko kartzela, 71ko urria

Versailles bai, hiriburua da.
Hiri ustela eta zorigaiztokoa,
Berak darama zuzia,
Satory da beren zentinela,⁴⁶
Eta lapurrei iruditzen zaie ederra,
Hil-jantzia berokia bailitzan,
Versailles gortesau zahar,
Denborak urratzen duen soinekoaren pean,
Eusten du Errepublika sehaskan,
Lepraz eta krimenez estalita.

Izen sublimea uhertzen du,
Bere banderarekin babesten,
Gaztelu handiak behar dituzte,
Soldaduz eta neskez beteak,
Boteretsu eta indartsu sinesteko beren buruak,
Beren pisu nazkagarriarekin,
Munduaren bihotzak taupaka egiten duen hirian,
Parisen, hildakoen ametsa dago lotan,
Zuek egonagatik ere, herri heroikoak,
Handi egingo du Errepublika;

Ezin da aurrerapena eten,
Koroak erortzeko ordua da,
Udazken hotzaren amaieran bezala,
Basoetako hostoak erortzen direla.

46 Versaillesko auzo bat.

Geure garaileei
Versaillesko kartzela, 1871

Lotsa puntu horretan gaude,
Nazka sakon eta garailearenean,
Marea bezala igotzen da horrorea,
Eta sentitzen dugu gure bihotza gainezkatzen.
Gaur geure jabeak zarete,
Geure bizitzak zuen eskuetan daude,
Baina egunek biharamunak dauzkate,
Eta zuen artean traidore mordoa dago,
Zeharka ditzagun, zeharka ditzagun,
Zeharka ditzagun, gari helduak ildoetan eror
daitezela,
E.a.

Negua eta gaua⁴⁷
Auberiveko zentrala, 1872ko azaroak 28⁴⁸

Putz egin, o neguko haizeok, elurrak erortzen darrai,
Zure hil-jantzi izoztuen pean hildakoengandik
gertuago gaude,
Gauak ez dezala amaierarik izan eta eguna la-
burtu dadila:
Hildako hotzen gainean zenbatzen dugu neguz
negu denbora.

Hodei itzaltsuen azpian maite ditut,
O pinuak, zuen kontzertu itzaltsuak,
Haizeak mugitutako zuen adaxkak
Harpak airean bezala.
Itzalera jaitsi direnak
Ez dira inoiz geuregana itzuliko.
Atzodanik ala zenbakirik gabeko egunetatik
egiten du bake sakonean lo.
Noiz estaliko ote gaitu burusi batek
bezala gure garaiak,
hil-jantzia hildakoari biltzen zaion bezala
Hilkutxan sartu aurretik?
Sorta bihurtzen den hazia bezala,
Odolez ureztatutako lurrean,

47 Olerki hau idatzi eta zortzi urtera, 1880an, Guy de Maupassant idazle naturalistak izenburu bereko olerki bat argitaratu zuen *Des Vers* liburuan.

48 Auberiveko leihonetatik «elur trinko eta zuria» ikusten zen. Gelak handiak eta zaratsuak ziren, hildakoak bizi ziren etxe bat zirudien. Abadia hura kartzela bihurtu zuten. Han izan zuten Louise Michel gerra kontseilua jaso zuenean, 1871ko abenduaren 21ean, eta Kaledonia Berriko kartzelara 1873ko abuztuaren 9an *Virginie* ontzian itsasoratu zuten arte. Kartzelaldi horretan hasi zen Versaillesko prentsa Louise Michelen kontrako demonizazio kanpaina, «Louise neskamea» eta «Otso eme odolzalea» esaten zioten, adibidez. Michelek asko idatzi zuen Auberiven, gehien-gehiena galdu egin zen.

Etorkizuna aparta izango da
Altxatzen den eguzki gorriaren azpian.

Egin putz, o neguko haizeok, eror zaitez, o elur,
Zure hil-jantzi izoztuen azpian hildakoengandik
gertuago gaude,
Gaua amaigabea izan eta eguna laburtu dadila:
Hildako hotzak neguekin zenbatzen ditugu.

**Itsaso polarretan
Virginie-ren gainean⁴⁹**

Elurra erortzen da, olatua kulunkatzen da,
Airea izoztuta dago, zerua beltza da,
Ontziak karraskatzen du olatuen gainean
Eta goiza iluntzearekin nahasten da.

Zirkulu astun bat sortzen,
Marinelek kantuan dantzatzeko dute:
Ahots indartsuzko organo batek bezala,
Beletan haizeak putz egiten du.

Hotza iritsiko zaie beldur,
Polo izoztuari abesten diote
Bretainiako landetako doinu bat,
Beste garai batzuetako abesti zahar bat.

Eta haizearen zarata beletan,
Aire hori hain xaloa eta zaharra,
Elurra, izarrik gabeko zerua,
Malkoek begiak betetzen dituzte.

Doinu hau abesti magiko bat al da?
Hainbeste samurtzeko bihotza,
Ez, Armorikako ufada bat da,
Dena betea loretan dauden isatsez,

49 Komunaren aurretik Chaumont, Paris eta aldiriak bakarrik ezagutzen zituen Louise Michelek. Komunaren amaierarekin han-hemengo kartzelak ezagutu zituen. Bizitza osoan itsasoarekin egin zuen amets baina itsasoratu zenean preso zihoan «zeruaren eta uraren artean, bi deserturen artean bezala non bakarrik entzuten ziren olatuak eta haizea.»

Eta itsaso polarretako haizea da,
Bere brontzezko tronpetatik putz egiten
Abesti herrikoi berriak,
Biharko kondairarenak.

Virginie ontzian
1873ko irailak 14⁵⁰

Ikusi olatuetatik izarretara
Nola argitzen den zuri erraria.
Ontziteria bela betean doa
Alimaleko sakoneretan;
Munduko ontziterien zeruetan,
Ontziterien dirdira
fosforeszenteko alderdi horixketan.

Eta flotatzen duten txinpartek,
Eta urrunean galdutako munduek,
Begi-niniek bezala egiten dute distira.
Edonon egiten dute dardara soinu nahasiek.
Legenda berrien atarian
Oilar galiarrak hegala zabaltzen dizkio
Brennus Brennus urte berriko mihurari.

Amildegia hauen itxurak mozkortzen du,
Altuago, o uhin! Indartsuago, o haize!
Hain garesti bihurtu da bizitzea
Hain dira handiak hemengo ametsak,
Hobe litzateke jada ez izatea
Eta amiltzea desagertzearaino
Elementuen arragoan.

50 *Pariseko Komuna* liburuan, Louise Michelek azaltzen du Kaledoniarako bidaian egin zela anarkista. Han ulertu zuen edonor boterera iristean krimenak egiten hasten dela. *Virginie* ontzian ikusi zuen kontu krudelenetako bat albatrosei egiten zitzaizen oinazea zen: «Amuarekin arrantzatu ondoren, hanketatik zintzilikatzen dituzte, hiltzean haien lumek ez ditzaten zikindu.»

Puztu belak, o enbatak,
Altuago, o uhin! Indartsuago, o haize!
Tximistak gure buruen gaina distiratu dezala,
Aurrera ontzi, aurrera!
Ireki zuen hegalak, o zikloiak,
Gurutza dezagun amildegi irekia.

Gerra kantua
1873ko abendua⁵¹

Ka kop... oso ederra, oso ona,
Mea moa... zeru gorria,
Mea ghi... aizkora gorria,
Mea iep... su gorria,
Mea rouia... odol gorria,
Anda dio poura... kaixo, agur,
Matels matels kachmas... gizon ausartak.

51 Ducos penintsulara iritsitakoan Verdure lagunaren bila joan ziren. Verdure hilik zegoen. Bera hil eta egun batzuetara gutun mordoa iritsi zitzaion. Deportatuak jai bat egin zuten iritsi berrientzat. Zortzi egunez penintsulari bira egin zioten. Afarietako batean, Grousset eta Pain-en etxera Daoumi joan zen. Kanaken «ahots agudo horrekin, Lifon-en herrialdeko abesti bat abestu zuen, semikortxea bitxi horiekin.» Gero Louise Micheli diktatu zion, hauek dira gorde diren kopletako batzuk.

Ilargiaren argi aparta

Ilargiaren argi apartetan,
Enbor zuriko niauliak
Belar altu bihurkatzen dira
haizeen ahaleginarengatik oinazetuta.
Han dira sakonera ezezagunak,
Zikloiak igotzen dira hodeietara
Eta gauero negar egiten duen itsasoetako haize
zakarrak,
hotz erbesteratuak estaltzen ditu bere intziriekin.
Niauliak, e.a.,
Niaulien gainean intziri egiten dute zikloiek.
Egin soinu, o itsasoko haizeok, zuen tronpa
monotonoeekin.
Goizaldea altxatu behar da,
Gau bakoitzak gordetzen du goiz bat,
Bezperan beti dirudi ametsa biharamunak.
Uhinek kulunka egiten dute, denbora badoa,
Basamortua hiri bilakatuko da.
Tirainak kolpatzen dituen mugarrietan,
astinduko da gizateria.
Garai horietan agertuko gara
Orain ikusten ditugun bezala
Gure aurreko tribu basatiak,
Beren errondak itzulikatzen dira,
Eta arraza primitibo horietatik
Gizakiaren odol zaharrarekin nahasten
Aterako dira indar aktiboak,
Gizakia altxatuko da hazia bezala.
Niaulien gainean intziri egiten dute zikloiek,

Egin soinu, o itsasoko haizeok, zuen tronpa monotonoekin.⁵²

52 Louise Michelek *Pariseko Komunan*, olerki honen aurreko lerroetan zera kontatzen du: «Deportatuen artean, batzuk kanaken alde zeuden, beste batzuk kontra. Ni erabat nintzen haien aldean. Gure artean hain eztabaida sutsuak sortzen ziren egun batean, Mendebaldeko badian, guardian zegoen postu osoa guregana etorri zela gertatzen zena jakin nahian. Bi ginen bakarrik, baina hogeita hamarrek bezala egiten genuen garrasi. Jatekoa ekartzen ziguten zerbitzari lanetan zebiltzanek, zaindari kanakek; oso gozoak ziren, ahal bezain ongi moldatzen ziren beren arropa zarpailekin, eta beren xalotasun eta maltzurkerian oso erraza zen Europako laborariak zirela pentsatzea. Kanaken matxinadako enbata gau batean, nire txabolako gelaxkako atean deitzen zutela entzun nuen. Nor da? Galdetu nuen. *Taio*, erantzun zidaten. Ezagutu nituen gure kanaken ahotsak, haiek ekartzen ziguten jatekoa (*taio*-k “lagun” esan nahi du). Haiek ziren, agur esatera zetozen igerian, enbataren erdian, kideekin bat egin eta «zuri gaiztoen» kontra borrokan hasi aurretik. Orduan, bitan banatu nuen Komunako banda gorria, hamaika ezbeharretan aurrera eraman nuena, eta eman egin nion. Odoletan itoko zuten kanaken matxinada eta suntsituko zituzten tribu errebeldeak.

lau horma beltzotan torturatzen dute
Harkaitz bat bezain altu altxatzen dira
Ez da ufadarik, ez murmuriorik
Usaintzen dugu pasa den heriotza
Oholtzan tronu bat dago
Eta koroa dagoela dirudi,
Urkatzeko lepokoa da.

Michele Angiolillo igo da
Kopeta altu eta pauso gisakoarekin
Bere epaileak lotsaz zurbil
Beldur dira epaimahaiaren itzalean
Zigortua bere kabuz eseri da
Sentitzen ereiten den hazia bezala
Ahots goran esan du «Germinal!»
Mendetako Germinala da
Puzten dena eta haziko dena,
Lurra eraldatuko duena,
Zigortuak altxatzen ikusi du,
Borreroak, esku dardarti batekin
Lotu dizkio elkarrekin belaunak
Eta estutu du burdinazko lepokoa.

Eta denboran eta espazioan
Eternitateak hartzen du,
Bai, Germinal da pasatzen dena
Askatasun Germinal bat

53 Olerki hau *Almanach de la Question sociale pour 1898* aldizkarian argitaratu zuten. Montjuich-eko gertakizunei lotutako *La Carmagnole internationale* olerkiari lotua dago («Sur Montjuich un rouge fanal/ Arbore un seul mot Germinal/ C'est le sang du martyr/ Qui monte et va fleurir» e.a.). Beste bertsio bat ere idatzi zuen Michelek, eskuizkribua gorde da.

Kulunkatzen den ozeano bat bezala
Jendetza handia lehertzen
Burrumba egiten du hitz bakarrean: gizateria!
Komuna aldarrikatu dugu!⁵⁴

54 Zazpi urteko gerran ari ziren Frantzia eta Prusia. Frantziak armistizioa sinatu zuen 1871ko urtarrilaren 28an. Bismarck-ek Adolphe Thiers-en gobernuari bere baldintzak ezarri zizkion. Hiriburua suminduta zegoen, traizio irudipenarekin, erresistentzia gogoz: prusiarren kontra bezala oligarkiaren gobernuaren kontra. Martxoaren 18an, paristarren gehiengoak ez zuen desarmatu nahi izan, gobernu legalarekin harremanak hautsi eta udalerrri libre bat antolatu zuen. Orduetik, Paris herrikoiairen bandera gorriak Versaillesko Hirugarren Errepublikaren hiru koloreko banderari aurre egingo zion.

Martxoaren 26an, Jules Vallés kazetari eta idazlea, Napoleon III.aren erregimenaren kontrako militantea, Parisko Komunako Kontseiluko XV. barrutiko ordezkari gisa antolatu zuten. Bere egunkarian, *Le Cri du Peuple*n, aspalditik salatzen zuten hiriburuko injustizia eta miseria. Horrez gain, demokrata bat zen eta ezin zuen adierazpen askatasunik gabeko iraultza batean sinistu. Horregatik, Komunak *Le Figaro* edota *Le Gaulois* egunkari kontserbadoreak debekatu nahi izan zituenean, kontra agertu zen.

Bakezalea zen eta Versailles eta Komunaren arteko gerra ekidin zitekeela uste zuen. Oker zebilen. 1871ko maiatzaren 21ean Versaillesen aldekoek, prusiarren oniritziarekin, Paris erasotu zuten. Jules Vallès hiltzeko prestatu zuen bere burua. Paris kanpoaldean borrokatu zen, Panteoian gero, Bastillan azkenik. Maiatzaren 24tik aurrera Versailleskoek harrapatu zuten oro fusilatu zuten. Hirian zehar eskapo egin zuen Vallès eta François Roubaud eskultorearen tailerrean ezkutatu zen. Hiru hilabetez ezkutuan egon ostean, Londresera ihes egin ahal izan zuen.

ALDARRIAK

«Komuna aldarrikatu dugu»
Jules Vallès
Le Cri du Peuple-n argitaratua
1871ko martxoaren 30ean

Hautestontzitik atera da, garaile, subirano eta armatuta. Herriaren hautetsiak sartu dira Herriko Etxe zaharrean eta entzun dute Santerreko danborra eta urtarrilaren 22ko tiroketa, plaza honetan non ohore nazionalaren biktimen odola eta paristarren duintasuna batailoi garaileen pausoen festaren egunean altxatutako hautsetan igurtzi den.

Ez dugu gehiago entzungo Santerreko danborraren arrada; fusilek ez dute gehiago distiratuko Komunako etxeko leihoetan eta odolak ez du gehiago Grebaren plaza zikinduko hala nahi badugu. Eta hala nahiko dugu, ez da hala herritarrok?

Komuna aldarrikatu dugu. Nasetako artilleriaren salbak eguzkira joan ziren, plazako ke grisa urreztatzen zuten. Barrikaden atzean, jendetza zutik zegoen tokian: gizonek txanoarekin agurtzen zuten, emakumeek zapiarekin agurtzen zuten, garaipenaren desfilean kanoiek beren brontzezko aurrealdea behehitzen zuten umil eta baketsu, jendetza alaia mehatxatzearen beldur.

Aurrealde ilunaren parean, erlojuak hainbestetan jo ditu orduen seinaleak mendeak igaro direla, eta hainbeste gertakizun suertatu dira egun historia direla, leiho hauen azpian bertaratutako jende errespetutsua, Guardia Nazionalak desfilatzen zuen biba oihukatzen bere berotasun lasai eta harroarekin. Oholtzaren gainean Herriaren hautetsiak zeuden, jende ausarta buru kementsu eta serioarekin; Errepublikaren soina tindaketa gorritik zuri banantzen zen, begiratzen zuen ikaragaitz, dirdiratzten du baioneta distiratsuen uzta zeinaren erdian dardara egiten duten banderek eta kolore dirdiratsuko eskulekuek, hiriaren burrunbak hiriko airean igotzen diren bitartean, kobreen zaratak eta asto larruak, salbak eta txaloak.

Komuna aldarrikatu dugu jai iraultzailearen egun batean eta patriotikoa, bakezalea eta alaia, mozkorrekin eta ospakizunekin, handitasunez eta bozkarioz, hogeï urteko inperioa eta sei hilabeteko porrotak eta traizioak ikusi izan dituzten 93ko pertsonentzat duina. Parisko Herriak, armekin zutik, aldarrikatu du Komuna, kapitulazioaren lotsak gupidetsi du, prusiarren garaipenaren bidegabekeriak eta libre bihurtuko ditu garailea libre den bezala.

Zer ez ote da aldarrikatu urriaren 31n!

Ze axola du! Buzenval-eko hildakoak, urtarrilaren 22ko biktimak, orain mendekatu zaituztegu!

Komuna aldarrikatu dugu.

Espontaneoki, kaleak, nasak, bulebarrak gainditu dituzten batailoiak turuten fanfarreen doinuan, burrunbaren oihartzuna egiten eta bihotzak taupadak egiten danborraren arradekin, etorri dira aldarrikatzera eta agurtzera Komuna, ematera Versaillesek mehatxatzen duen azterketa hiritar handi honi soberania aldarrikapena, arma altxatzen dute sorbaldara aldirie-

tara joateko, hiri handia murmurioekin betetzen dute, erlauntz handia.

Komuna aldarrikatu dugu.

Gaur da ideiaren eta iraultzaren ezkontzaren jaia.

Bihar herritar-soldadu ernalduko dugu Komuna txalotua eta bezperan esposatua, berrartu beharko dugu, beti harro, orain libre, bere tokia tailerrean ala erakusmahaian.

Garaipenaren poesiaren ostean, nire lanaren prosa.

«Gora Komuna!»

Louise Michelen epaiketaren kontrako pasarteak,
VI. gerra kontseilua (Versaillesen),
1871ko abenduak 16ko bista

Bere ama ez larritzeko Louise Michelek pentsarazi zion anbulantzia gidaria zela. Berez, Komunaren lehenengo egunetik armekin aritu zen. Gehiago izan zen soldadua sendalaria baino Montmartreko 61. oinezkoen batailoian. Arriskua non bera han, Issy-les-Moulineaux-en ala Clamarteko hilerriko lubakietan. Versailleseraino iritsi zen burgesez mozorrotuta Komunaren aldeko gizonak emakumeen kuraia onar zezaten.

Michel topatu ez eta ama atxilotu zuten, orduan «Birjina gorriak» bere burua eskaini zuen aska zezaten. Ez zuten fusilatu harrapakin ona zelako: justizia militarrek gerra kontseilua egitea erabaki zuten.

1871ko ekainetik aurrera, behin eta berriro egin zizkieten galdeketak, eta bere defentsan esan zuen ez zela pétroleuse inoiz izan: zaurituak artatu zituela, baina bere pasioa Iraultza zela eta herriaren ongizatea.

Azaroaren 28an Théophile Ferré communard nabarmena fusilatu zuten. Louise Michelek bizitzen jarraitzeari uko egin zion orduan, defentsa sistema aldatu zuen eta guztiaz akusatu bere burua. Briot kapitainari, aste lu-

zez bere kontrako akusazioen txostena egin zuenari, ekintza iraultzaile guztien deskribapena egin zion.

Abenduaren 16an, beltzez jantzita, doluz, gerra kontseiluaren aurrera doa. Keinu bortitzez epaimahaiari aurre egingo dio. Victor Hugok idatziko du «Zure begi aldagaitza epaile zurbilen aurrean zenuen / Betetako areto handia izututa zegoen. / Epaileek murmurikatzen zuten: 'Hil dadila' Justua da. Zitala da! Baldin eta ez den zirkuko aktore bat/ Esaten zien kontzientziak.»

Prozesuaren amaieran, heriotza ukatuko diote. 2182. zenbakidun presoa bihurtuko da.

Prozesuaren kaieretik:

Hausmann andrea ofizioz izendatu dute, akusatua sorotsiko du nahiz eta akusatuak abokatuen lana ukatu duen. Duplan andrea idazkari judizialak honako ikerketa irakurri du:

[...] Irakasle iluna, ia ikaslerik gabekoa, ezin izan dugu jakin zenbateraino egozten ahal zaizkion gure zorigaiztoko herrialdea ikaratu duten atentatu nardagarrien aurreko gertakizunak.

Zalantzarik gabe, ez du zentzurik osoki segitzea martxoaren 18aren aurreko gertakizunak, eta akusazioaren abiapuntu gisa erreferentzia egingo diogu Montmartreko eta Rosiers karrikako eszenarioetan gertatutako drama odoltsuan Louise Michelek izan zuen partaidetzari.

Atxilotetaren konplizeak Lecompte eta Clément Ghomas jeneralek alde egingo zutela pentsatu zuen. «Ez itzazue askatu!» oihu egin zien jeneralak inguratzten zituztenei.

Eta beranduago, hilketa gauzatu eta gero, hilotz mutilatuen aurrean, bere poz guztia adierazi zuen isuritako odolarengatik eta aldarrikatu zuen «ongi egina zegoela»; gero, egun onarekin distiratsu eta asebate Be-

llevillera eta La Villettera joan zen, segurtatzeko «auzo horiek armatuak daudela».

[...]

Azkenean «herriaren etorreraren ordua iritsi da». Paris, atzerritarren aldeko eta mundu guztiko ez-deus lasterkariekin deitu zuten Komuna.

«Lanaren bidez emakume langileei morala emateko» elkartearen idazkaria zen, Louise Michelek Emakumeen Batasunaren batzorde zentral ospetsua antolatu zuen, baita zaintza batzordeak ere anbulantzia gidariak errekrutatzeke eta, une gorenean, emakume langileak barrikadetakarako; baita, agian, su-emaileak ere.

X. barrutiko udalean aurkitutako manifestu baten kopiak adierazten du batzorde horiek eragin zuten rola borrokaren azken egunetan. Hitzez hitz errepikatuko dugu idatzitakoa:

[...] Ez da bakea baizik eta gehiegizko gerra Paris-ko emakume langileek aldarrikatzen dutena.

Gaur adiskidetze bat traizioa litzateke. Gizartearen erabateko berritzearen eskariari, emakume langileen aspirazio guztiei, uko egitea litzateke. Ezerezean geratuko lirateke: egungo harreman juridiko eta sozial guztiak; pribilegio guztiak bertan behera gelditzeko aukera; esplotazio guztiak; lanaren erreinua kapitalaren erreinuak ordezkatzeko luke; hitz batean, langileak bere burua askatzea!

Setioaren bitarteko sufrikarioen eta traizioen sei hilabeteok, zapaltzaileen koalizioaren kontrako sei asteko borroka erraldoiak, askatasunaren aldeko odol uhinak dira gure loriaren eta mendekuaren tituluak!

Egungo borrokaren soluzio bakarra kausa herri-tarraren garaipena da... Parisek ez du atzera egingo, etorkizunaren bandera daramalako. Ordu goren iritsi

da! Utzi tokia langileei! Atzera beren borreroak! Ekin-
tzak! Energia! Askatasunaren zuhaitza hazten ari da
bere etsaien odolarekin ureztatuta!...

Guztiok elkarrekin eta ausart, krisi sozialen
ondorenak utzitako sufrimenduak handituta eta ar-
giztatuta, sakonki konbentzituta Komunak, herrien
printzipio internazionalak eta iraultzaileak ordezk-
tzen dituenak, daramatzala iraultza sozialaren haziak,
Parisko emakumeek erakutsiko diete Frantziako eta
mundu guztikoei beraiek ere, arrisku gorenaren unean,
barrikadetan, Parisko harresietan, erreakzioak atek
bortxatuko balitu, beren nebek bezala emango luketela
odola eta bizitza Komunaren garaipenaren defentsan,
alegia herriaren defentsan! Orduan garaile, elkarrekin
egingo diete beren interes komunei aurre, langile gi-
zon eta emakumeak, denok solidario azken ahalegin
batean... Gora Errepublika unibertsala! Gora Komuna!

Bere ogibide guztiak batuta, eskola bat zu-
zentzen zuen, Oudot karrikako 24an. Handik bere
katedraren muinotik, bere aisialdi arraroekin, pentsa-
mendu librearen dotrinak irakasten zituen eta ikasle
gazteei berak idatzitako olerkiak abesteko esaten zien,
besteak beste «*Mendekatzaileak*» deitutako abestia.

Iraultzaren klubeko presidentea zen, Saint-Ber-
nard elizan, Louise Michel maiatzaren 18ko saioan
(LXXIX urteko lorailaren 21a) eta beren helburua zen:

«Epailetzaren kentzea, Legedia ezerezean
geratzea, justizia batzorde batekin ordezkatzeta.

Gurtzen debekua, apaizen berehalako atxilotzea,
beren aberastasunen salmenta eta baita Versaillesko mi-
serableekin bat egin duten iheslariena eta traidoreena.

Bahitu garrantzitsu baten exekuzioa hogeita lau
orduero, Blanqui herritar eta Komunako kidea aske Pa-
risa iritsi arte».

Ez zen nahikoa, alabaina, arima kartsu horrentzat (txostenean daukazuen albiste irudimentsu baten egileak hala kalifikatu zuen) jendaila altxatzea, erailketak txalotzea, haurrak galtzea, borroka fratrizida bat predikatzea, hitz bakarrarekin, krimen guztiak bultzatzea, etsenplua eman nahi zuen oraindik eta bere buruarekin ordaindu!

Berdin topatzen dugu Issy-n, Clamart-en eta Montmartren lehen lerroan borrokan, tiroak jotzen edo iheslariak batzen. [...]

Ondorioz, gure iritziz Louise Michel epaitu behar dugu honengatik: 1 – Gobernua aldatzeko helburuarekin egindako atentatua. 2 – Herritarrak elkarren aurka armatzeko gerra zibila bultzatzeko atentatua. 3 – Insurrekzio mugimendu batean armak eta uniforme militarra eramatea, eta armen erabilera. 4 – Mezu pribatuen faltsutzea. 5 – Txanpon faltsuen erabilera. 6 – Komunak bahitutako pertsonen erailketa sustatzean konplize izatea. 7 Atxilotze ilegalen eta osteko gortutzeko torturen eta heriotzen konplizitatea, ekintza burutu zuten egileak lagundu zituen egingo zutena zer zen bazekienean.

Akusatuaren galdeketa

Presidente: Entzun dituzu akusazioaren jazorak. Zer esango duzu zure defentsan?

Louise Michel: Ez dut neure burua defendatu nahi, ez dut defenda nazaten nahi. Iraultza sozialarena naiz, eta nire ekintzen arduradun naizela onartzen dut. Guztia onartzen dut eta mendratzerik gabe. Jeneralen erailketan parte hartzea egozten didazue? Horri baietz esango nioke, baldin eta Montmartren banintzen herriari tiro egin nahi izan ziotenean. Nik neuk

egingo nieke tiro halako aginduak ematen zituztenei. Baina preso egin zirenez, ez nuen ulertu zergatik fusilatu zituzten, eta ekintza hori koldarkeria gisa ulertzen dut! Paris erretzeari dagokionez, bai, parte hartu nuen. Garrezko hesi batekin aurre egin nahi nien Versaillesko inbaditzaileei. Ez nuen konplizerik izan horretarako. Neure bulkada soilaren aginduz ekin nion. Esan izan da Komunaren konplize naizela! Bai noski, zeren Komunak oroz gain iraultza soziala nahi zuen, eta iraultza soziala da nire gogorik kuttunena. Askoz gehiago, nire ohorea da Komunako bultzatzaileetako bat izatea eta ez dut zerikusirik, guztiok jakin dezatela, erailketekin eta suteekin. Herriko Etxeko saio guztietara joan nintzen ni, eta adierazten dut inoiz ez ginela aritu ez erailketez ezta su emateez ere. Ezagutu nahi dituzue benetako errudunak? Poliziako agenteak dira, agian aurrerago argituko da nortzuk izan diren, orain hain modu naturalean iraultza sozialaren aldekoak errudun egiten direla esaten den bitartean. Egun batean, Ferréri proposatu nion Asanblada inbaditzeko. Bi biktima nahi nituen, Thiers jauna eta ni neu, zeren nire bizitza sakrifikatu nuen eta bera kolpatu nahi nuen.

Presidente: Proklamazio batean esan zenuen 24 ordutan bahituak fusilatzeko?

Louise Michel: Ez, mehatxu egin nahi nuen bakarrik. Baina zertarako defendatuko dut neure burua? Honezkero aitortu dizuet, egitea ukatzen dut. Gizonak zarete, epaituko nauzue. Nire aurrean aurpegia estali gabe zaudete. Gizonak zarete eta ni emakume bat besterik ez naiz, eta ordea aurpegira begiratzen dizuet. Badakit esango dizuedanak ez duela ezertan aldatuko epaia. Beraz, eseri aurretik azken hitz bat. Iraultzaren garaipena besterik ez genuen nahi. Satoryko landan hil diren gure martiriengatik zin dagit, oraindik dei egiten

diedan gure martiriengatik, eta egunen batean mende-
katzaile bat aurkituko dute. Berriz ere, zuena naiz. Egin
nirekin nahi duzuen. Hartu nire bizitza, nahi badu-
zue; ez dizuet une bakar batean lehiarik egingo.

Presidente: Diozunez ez zenuen onartu jene-
ralen erailketa eta ordea, diotenez, gertatu zela esan
zizutenean, oihukatu zenuen: «Fusilatu ditugu, ongi
egina!»

Louise Michel: Bai, hori esan nuen, onartzen
dut. Gogoan dut gainera Le Moussu eta Ferré herrita-
rren aurrean izan zela.

Presidente: Erailketarekin ados zeunden beraz?

Louise Michel: Barkatu! Hori ez da froga bat. Nik
esandako hitzen helburua bulkada iraultzailea ez gel-
ditzea zen.

Presidente: Egunkarietan ere idazten zenuen,
*Le Cri du Peuple*n, adibidez?

Louise Michel: Bai, ez dut ezkutatzen.

Presidente: Egunkari horiek egunero eskatzen
dute elizaren ondasunen konfiskazioa ala antzeko
neurri iraultzaileraren bat. Horiek al ziren zure iritziak?

Louise Michel: Hala da! Baina kontura zaitez
inoiz ez ditugula ondasun horiek guretzat hartu. He-
rriaren ongizateari ematea izan da gure helburua.

Presidente: Epailletza bertan behera uztea eska-
tu duzu?

Louise Michel: Begien aurrean akatsen adibi-
deak besterik ez nituen. Lesurques⁵⁵ afera gogoratzen
dut eta beste hainbat.

Presidente: Onartzen duzu Thiers jauna erail
nahi zenuela?

⁵⁵ Gertakari hura Direktorioaren garaikoa zen, justizia espeditiboaren
adibide bat. Joseph Lesurques errugabea urkamendira eramán zuten.
Afera horri, sarritan, Lyongo postaren afera deitzen zaio.

Louise Michel: Noski... behin eta berriz esan dut.

Presidentea: Antza denez, arropa bat baino gehiago zeneraman Komunan?

Louise Michel: Ohi bezala janzten nintzen. Jantziei gehitzen nien bakarra gerriko gorri bat zen.

Presidentea: Ez zenuen behin baino gehiagotan gizonen arropa jantzi?

Louise Michel: Behin, martxoaren 18an: guardia nazionalaz jantzi nintzen, jendeak niri ez begiratzeko.

Oso lekuko gutxi izendatu zituzten, Louise Micheli egotzitakoak ez zituen eztabaidatu. [...]

Hausmann andreak adierazi zuen akusatuak defentsarik nahi ez zuenez epaileen zintzotasuna soilik eska zezakeela.

Presidentea: Akusatu, zerbait esango duzu zure defentsan?

Louise Michel: Gerra kontseilua zarete, nire epaileak zarete, ez zarete ezkutatzen indultuen batzordea bezala, eta guztien aurrean epaitzen duzuen militarrek zarete eta eskatzen dizuedan bakarra da begiratzeko Satoryko landara, gure anai-arrebak hantxe erori ziren! Gizartetik lubakitu behar nauzue. Hala egiteko eskatu dizuete. Bada Errepublikaren komisarioak arrazoi du. Irudi luke askatasunaren aldeko bihotz taupada dutenek berun pixka bat merezi dutela, nire puska eskatzen dut nik! Bizitzen uzten badidazue, mendekua besterik ez dut eskatuko, eta nire anai-arreben mendekurako salatuko ditut indultuen batzordeko hiltzaileak...

Presidentea: Ezin dizut hitza utzi tonu hori erabiltzen baduzu!

Louise Michel: Bukatu dut! Ez bazarete koldarrak, hil nazazue!

Azken hitzok epaitegia hunkitu zuten eta kontseilua deliberatzera joan zen. Une batzuen ondoren, epaiketa gelara sartu ziren epaiarekin, Louise Michel aho batez kondenatu zuten deportaziora esparru harresitu batera. Akusatuari epaia jakinarazi zioten. 24 ordu zeuzkala helegiteak jartzeko esan zion idazkari judizialak.

Louise Michel: Ez! Ez dut helegiterik aurkeztuko; baina nahiago nuke hil!

HITZATZEA

«BIBA LIBERTATEA!»

Memoriaren denbora arrazoia ematen ari zaie Louise Michel eta Komuna lehertu nahi izan zutenei. Hiri anitzetan burua altxatu eta karriken izenak begiratzeari aski da horretaz ohartzeko. Direla Thiers karrikak, adibidez. Bata Baionan, bestea Donibane Lohizunen. Bi aipatzearren. Adolphe Thiers 1871n, Parisko Komuna suntsitzeko plantan jarri errepresioaren arduraduna da. Thiers karriken ondoan badira franko Gambetta izenekoak. Léon Gambetta III. Errepublikaren aita gisa aurkezten da. Eta bizkitartean, bere «askatasuna, berdintasuna eta anaitasuna» leloak bigarren mailakoak dituen herritarrak ere baditu. Kolonialismo espantsionista berriz abiarazten du Gambettak. Espantsionismo horretan ondoan ukan zuen beste liderra Jules Ferry izan zen. Hau ere biziki famatua oraino. Baiona, Angelu eta Biarritzek Jules Ferry izeneko eskola publikoak dituzte. Izan ere, Ferryk bultzatu du urririk eskuragarri den derrigorrezko irakaskuntza. Eskola publikoa eta laikoaren promotoretzat ikusia da. Baina haxe ere bada bere diskurtsoa: «Deblauki erran beharra da goi-

ko arrazek azpiko arrazen aldera, eskubide bat gehiago daukatela. Eskubide bat gehiago daukate, betebeharrak bat gehiago daukatelako. Azpiko arrazak zibilizatu behar dituzte.»

Segi dezagun bisita. Napoleon III.a gogoratzen dituzten lekuak ere ez dira eskas. Napoleon III.a eta Eugenia de Montijo emazteari dagokienez, oraindik leku handia daukate, bereziki Biarritzen. Bertan halako inperioaren nostalgia bat senti daiteke. Hasiz haien jauregia izan den hoteletik, hondartza handiari begira dagoena: han iragan da 2019ko G7. Biarritzeko museo historikoak horrela deitu du bere 2020ko erakusketak: «Eta Eugeniak Biarritz sortu zuen, hiri inperiala». «Balea arrantzatzen zuen portu txiki bat zena nazioartean ezagutu hiri balnearioa» bilakarazi izana hari zor diogula azpimarratzen du erakusketaren promozio testuak.

Euskaldunek ez dute jelos izaterik. Baionan sortu Jean-Bernard Jauregiberri amiralak, adibidez, badu bere kaia. Senegaleko gobernadore izana 1861ean, politika kolonizatzailea ere sustatu du. Baita esklabotza jarraitzera bultzatu. Senegaleko iparraldera doan bide espantsionista daramala, 16 guduren buru izanen da eta 76 herri xehatuko ditu: «Herria garaile bezala zeharkatzea ez da aski. Gure pasaiaren aztarna kaltekorrak ere utzi behar ditugu. Eta, nahiz eta erratea damugarria izan, paisaia behin behineko basamortu bihurtu behar dugu».

Baina iragan horrek arrakalak ere baditu. Eman dezagun jautzia Louise Michel eta Victor Hugoren arteko lehen gutuna baino bi urte lehenagora. Europa osoan zabaldua da hazkurri eskasak sortu krisia, lursagarria eritu dela eta zerealen uzta txarra altxatu dutela. Bizkitartean, populuen askapenerako mugimendu bat

sortzen da, hau ere Europa osoan. Parisen 1848ko otsailaren 22an dituzte barrikadak altxatzen errepublika aldarrikatzeko. Errepresioak ez du funtzionatzen eta Louis Philippe erregeak abdikatzen du. Hiru egun berantago lau urte baizik iraunen ez duen bigarren errepublikaren aroa zabaltzen dute. Komunak berak orduko itxaropenetik edan du, baita porrotak sortu desilusiotik ere.

Bada, hain zuzen, Ipar Euskal Herrian ere 1848ko urte hartan libertate haizeak harrapatu ditu bazterrak. Baionan, Agosti Xaho politikari eta idazleak du martxoaren lehenean Errepublika modu ofizialean iragartzen. Herriko Kontseiluan sartu dute baionesek. Atharratzeko kontseilari nagusi ere bada. Eta Baionako apezpikua behartzen du «Jaun goikoa salba errepublika!» kantatzera katedralean. Baionan berean beste hainbat herritan bezala, elizako ordezkariak *Libertatearen* zuhaitzak bedeinkatuko dituzte.

Urte bereko ekainean Xahok sortu *Uskal Herriko gaseta* aldizkarian, euskarazko lehen aldizkarian, hauxe idazten du: «Zer erran nahi da errepublika? Errepublika (Latinez *Res publica*) erran nahi da ororen hun den gauza. Ah! hitz eder, hitz xarmagarria! Oraino, maleruski, Populia, Errepublikaren izena bezik eztuk, abantailarik eta hunik bater'ez. Populu, phenazalia, hire etsaiak ordu duk ezagut ditzakan. Hire etsaiak nor dira? Gizon auher abariziosak eta karguen moienez aisetarzunian bizi nahi direnak. [...] Ttipi handiak oro sorthiak dira uros eta untsa bizitzeko. Ordu duk, Populu-erregia. Jin-duk hire botz handiaren intzunarazteko tenoria. Erran ezak nahi dukala bizi aisetarzunian, lannian ariz, edo hil Franziairen eta Errepublikaren etsai guzquier gerla emanez.»

1848ko oldarraldiak Baxenabarre eta Zuberoan

Baionatik at ere badira beste gertakari batzuk, ez direnak bereziki ezagunak, baina 1848 markatzeaz gain, Euskal Herrian oldarraldiak, izan, izan direla erakusten dutenak. Baita hain oldarkor ikusten ez den Baxenabarren ere.

Izan ere, aspaldiko kexu bat agertzen da 1848 urte hartan, nehoiz baino indartsuago. Baxenabarre eta Zuberoan bereziki. Kontua da 1827ko oihan legeak lur komun erabilpena hertsitzen dietela herritarrei. Dela berotzeko egur hilak, ongarri bezala erabiltzeko hosto hilak, kabalak alhatzeko txilar eta itsasak, bazkak, baiak edo onddoak, honen guztia bilketa debekatzen diote herritar andana bati. Ondorioz, isunak, azienda debekatzeak eta auziak biderkatzen dira. Xaho eta Honore Dindaburu Bunuzeko notarioa eta Iholdiko kontseilari nagusi gorria dena, Parisera doaz lege hori aldatu behar dela dioen txostena eramatera. Baina ez dute deus lortzen.

Eta liskarrak biderkatuko dira. Amikuzen, Izuran, Armendaritzen, Donaixtin, Muskindin, Atharratzen eta Larrainen, besteak beste. Guztiak urte haietan.

Hiru adibide ematearren. Bata, Altzürükukoa. 1849ko udaberrian, Atharratzeko bi oihanzainek bi pago markatu ondoren Maulera buruz sartzen ari direla, hemezortzi emazte agertuko zaizkie armak eskuetan. Guztiek begitarteak ikatzez belztua dute, batek salbu. Honek mantal zuria du begitarte aitzinean. Bi oihanzainak kokoriko direla beharrak egiten ari harrapatu dituzte hemezortziek. Lurrera bota dituzte biak, beharren gainera, eta hauen armak kendu. Arbailatako oihaneko —Itheko basoa— arroka baten gainera eraman dituzte biak, eta hor belaunikarazi. Libre utziko dituzte, ez direla gehiago leku horietan

agertuko zin eginarazi ondoren. Biharamunean, Atharrazteko epailea bertaratuko da jendarme batzuekin. Baina emazterik ez da gehiago. Baliteke ere emazte horiek emaztez mozarrotu gizonak izatea. Hasteko, ikerketari ez diote segidarik eman.

Bigarren adibideak Donibane Garazira garamatza. Han gertatu da garaiko oldar handiena. 1848ko apirila. Feria eguna dute eta diputatuak hautatzeko hauteskunde biharamuna. Ondorioz, usaian baino anitzez herritar gehiago erakarri du hiriburuak, gazte andana bat tarteko. Eta hara non, egun horretaz baliatzen diren Baigorriko jendarmeak Joanes Laborde, 27 urteko bidarraitar gaztea Donibane Garazira ekartzeko, atxilotua. Donibane Garaziko presondegian atxiki dezaten preso. Sei urte soldadu dela Joanes Laborde, etxetik kanpo. Behin-behineko baimena eman berri diote etxera sartzeko egun batzuetarako. Baina baimen horretaz baliatuko da gaztea armadara ez itzultzeko. Garaiko andana bat gazte bezala. Hau, berriz, harapatuko dute. Eta nonbait, hain segur, beste gazteei armadatik ihes egiteko gogoia kentzeko adibidetzat daukate Laborderen atxiloketa. Horretarako ere ekarri dute Donibane Garazira diskrezio gutirekin.

Baina ez da batere jendarmeen uste bezala pasatuko. Presondegira daramatela, Joanes Laborderen anaiak, beste lagun batzuek lagundurik, jendarmeen eskuetatik ihes egitea lortuko du. Garaipen horrek indarturik bezala, hasian hasi, presondegiraino joanen dira, eta presondegiko atea irekitzea exijituko. Harri ukaldika saiaturik dira presondegiko atea hausten. «Biba Libertatea!» oihuka, baita gisa honetako oihuak: «Askatasuna gure alde dugu, nahi duguna egin dezakegu, presondegi honetako presoak askatu behar dituzue!». Barnean preso dagoen preso bakarra askatzea lortuko

dute. Baina borrokak segituko du oraino, gaztelurik soldatuak jautsiko direlarik. Horren erdian auzapeza ere aurkituko da, erabat gainditua. Oldarra ez dute erantzunik gabe utzi agintariek, ordea. Zenbait gazte harrapatu eta lau hilabeteko espetxe-zigorra betetzera kondenatu dituzte. Bik lortuko dute ihes egitea, eta bat berantago atxilotuko dute, Erramun Mindurri Lohilakat, hiru urtez preso atxiki dutena.

Hirugarren adibidea ez da arras oldarraldia, ez eta oihan legeari lotua, baina ematen du ere barnealdeko giro baten berri. Kontua da urte haietan Honore Dindaburu kontseilari nagusia hiru aldiz kondenatu dutela presondegi zigorrera, herriko erretorearekin elizan izan eztabaida baten ondorioz. Elizaren atarian herritar bat zauritzeagatik, baita elizkizunak ez normalki iragaitera utzi izanagatik. Baina auzokoek ez dute ahanztziko. Donapaleuko presondegitik ateratzen delarik ohore handitan eman dizkiote dantza jauziak presondegi aitzinean. 200 gazteek lagunduko dute Bunuzeraino bandera gorria aitzinean.

Azkenean, erori da bigarren errepublika eta Napoleon III.ak bigarren inperioa ekarri du. 1870ean antolatu plebiszitian Baionako arrondizamenduan %91,1a jaso du Napoleon III.ak, eta Maulekoan %99 (Frantziako estatu inperiallean bataz beste %82a jaso du). Napoleon III.a eta bereziki bere Eugenia de Montijo emazteak Euskal Herrian egin egonaldiek balukete zer ikusia horrekin. Preseski, 1854an eraiki dute hotela bilakatuko den beren erresidentzia. Beren irudia zaindu dute hurbiletik. Elizarekin ere bai. Eta horrek ere ukan du bere eragina. Eliza eta Estatuaren arteko harremanak biziki hobetu dira urte haietan. Diozesien kopurua emendatu da eta hobeki ordaindua da apaizeria. 1851n

3.000 apez izatetik, 1870ean 24.000 apez izatera pasatuko da eliza Ipar Euskal Herrian.

Ongi ordenatutako itxura duen gizartearen itzalak

Komunaren oihartzunik ez da baitezpada ageri garaiko Euskal Herriko idatzietan. Ez da, ordea, proletarioak eskas direlako. Oraindik baserri mundua da nagusi, nahiz industrializatzen ari diren bazterrak. Baina egunka lanean ari direnak anitz dira baserri munduan ere ez. Nolabaiteko baserri munduko proletarioak. Ezinbestekoak direnak nahiz eta zenbaki ofizialetan ez diren agertzen. Baserri mundua eta euskal etxea idealizatzen diren garaiak dira, hori bai. Joan Batista Elizanbururen 1862ko *Ikusten duzu goizean* koplak lekuko. Urruñako Lore Jokoetan aurkeztu dituenak. Lore Jokoak, Anton Abadiak euskal letren alde bultzatu lehiaketak dira:

Ikhusten duzu goizean,
Argia hasten denean,
Menditto baten gainean,
Etxe ttipitto aintzin xuri bat,
Lau haitz ondoren erdian,
Xakur xuri bat athean,
Ithurriño bat aldean:
Han bizi naiz ni bakean.
[...]

Goizean hasiz lanean
Arratsa heldu denean,
Nagusi naiz mahainean
iristino bat ona dut hartu:
Nik emaztea hartzean;

Ez du mehe egunean
Sarthuko uste gabea
Xingar hezurrik eltzean.
[...]

Halere, ez da ahots bakarra. Badira zenbait bertso, ongi ordenatuko itxura duen gizartearen itzalak agertzen dituztenak. Piarres Topet Etxahun Barkoxekoaren bertsoak daude hauen artean. Topet Etxahunen bizia laburbiltzea ezinezkoa da, gorabehera andana bat izan baitu, bai familiarekin, bai auzitegiekin. Direla bikoteen arteko gezurrak, tronpatzeak, zorrak, injustiziak. Bizi osoan bertsoetan aipatu dituenak. Eta hori gazte-gaztetik. Izan ere, gazte zela, emazte bat maite zuen, haurdun gelditu zena. Baina bere gurasoek ez zioten onartu. Neskamea zelako preseski, ontasunik gabekoa. Hemen garai horretan idatzi *Urxaphal* bertso sortaren hasiera. Maite duen emaztearekin solasean irudikatzen du bere burua:

Urxaphal (1805-1808)
Ürxaphal bat badüğü herrian trixterik,
Nigarrez ari düzü kaloian barnetik,
Bere lagün maitiaz beit'izan ützirik:
Kuntsola ezazie, ziek adixkidik.

Oi! ene izatia dolorez betherik!
Mündian ez ahal da ni bezañ trixterik,
Ni bezala maitiak traditü dianik,
Habil Amodiua, hürrün ene ganik.
[...]

Zuri eta gorrien arteko gatazka

Politikoki, orduko gatazka nagusia, Ipar Euskal Herriari dagokionez, zuri-gorrien arteko ideien gatazka da. Zuriek erregearen aldekoak biltzen dituzte, baita legitimistak, orleanistak, bonapartistak. Gorriek, berriz, errepublikaren aldekoak, liberalak. Baina orduan horrek ez du sozialista erran nahi.

1874ko Sarako Lore Jokoetan agertzen da argiki gatazka. Urte hartan, Gratien Adema Zaldubi-k, bi urte lehenago Atharratzeko erretore nagusi izendatu dutenak, bigarren saria jaso du. Iraultzaz eta errepublikaz trufatzen dira bertsoak:

Betirisantzen politika
Bera laxo, bertzeak tinka;
Gero «Bibe la liberte» errepika

Jendea dabilka
Tiraka, purtzika
Legar eta lege berri ukhaldika.
Nausi nahiz oro gaindizka

ainan oro ezin aldizka.
Diote hori dela Errepublika.
Diote hori dela Errepublika.

Artetik erraiteko, lehen saria *Jaungoikoa eta Erri-*
ya bizkaitar karlista batenak du irabazten.

Gatazka berriz agertzen da bi urte berantagoko Lore Jokoetan, hau ere Saran. Aldi honetan lehen saria ematen diote Gratien Adema Zaldubi-ri berriz ere errepublikaz trufatzen dela:

[...] Framazon, arnegatu, zirtzil eta judu,
Guzien buruzagi horiek ditugu.

Ai, ai, ai! mutilla, horiek ditugu.
[...] Ohoinak ere berdin, biderat atheraz,
Lege egile dituk, indar nausi beraz.
Ai, ai, ai! mutilla, indar nausi beraz..
[...] Nun dire Eskualdunen lehengo Fueroak?
Arbasoen parrean gu zer gathiboak!
Ai, ai, ai! mutilla, gu zer gathiboak!
[...] Indarra eta bortxa, oi! zer gauza hotzak!
Horiek ez daitezke bil gure bihotzak.
Ai, ai, ai! mutilla, bil gure bihotzak.

Urteak aitzinatu arau, hauteskunder ez hauteskunde errepublikarren emaitzak hobetuz doaz, ordea. 1876an sei diputatuen artean bat da errepublikarra. 15 urte berantago seiak dira errepublikarrak. Baina urteak aitzinatu arau, errepublikarra izatea zer den ere aldatzen joan da. Ez dute denek errepublikaren definizio bera.

Parisen bertan, errepublikarren arteko ezadostasunak Komunari begira dira agertzen. Eta errepublikar hauen artean, bada euskaldun bat. Ipar Euskal Herria zenbat ari den Parisengandik hurbiltzen agerian uzten du, gainera. Charles Floquet da hau. Donibane Garazin sortua da 1828an, baina 1876an Parisen dute diputatu hautatzen. 1879an Komunan parte hartu dutenen amnistia dela eztabaidagai, Charles Floquet amnistia osoa ozenki aldarrikatzen dutenen artean da.

Euskal Herriitik urrun gelditzen den eztabaida da. Baina Charles Floquet, halere, Euskal Herriko gorrikerena daukate. Orduko tokiko gorrien aldeko *Le Reveil basque*-k euskaraz kontatzen du, adibidez, nola dueluan desafiatzen duen Floquet-ek Boulanger 1888ko uztailean. Boulanger erregezale eta bonapartista dena. Gezurretan aritzea leporatzen dio. Eta Floquetek Bou-

langerren aurka irabazten du, sakonki zaurituz. Hamar urtez zaharragoa izanagatik, ez ditu laudorioak eskas artikuluak Floqueten alde. Historia ofizialak pixka bat ahanzten du, aldiz, nola zenbait urte berantago Floquet susmopean duten, Panamako kanalaren finantzaketan ustelkerian parte hartu izanagatik. Baina azkenean ez du arranguratzetik izan, froga eskas.

Bergarako «Germinal!»

Eta halako batean, anarkismoak eztanda egiten du Euskal Herrian. Michele Angiolillok 1897an tiroz hiltzen du foruak deuseztarazi dituen Antonio Cánovas del Castillo Espainiako presidentea Arrasateko bainuetxean. Cánovas del Castillo hiltzeko arrazoa Bartzelonan hilabete batzuk lehenago langile mugimenduaren kontra jo zen eraso izan da. 400 lagun atxilotu zituzten, 5 exekutatu zituzten eta 20 bizi arteko kartzela zigor jarri. Epaimahaiak aske utzi batzuk ere deportatu zituzten Cánovas del Castilloren aginduz. Angiolillok Cánovas exekutatzean José Rizal hizkuntzalari eta iraultzaile filipinarra ekarriko du gogora, espainiarrek berriki exekutatu dutena. Angiolillo atxilotu eta Bergarako kartzelan preso sartuko dute. Presondegiko patioan hilko dute, publikoki, garrotearekin, lepoa tinkatuz.

Orduko *The New York Times* egunkariak eman du horren berri: «Goizeko 10:53an Angiolillok irmotasunez igo zituen urkabeko eskailerak eta jantzi beltza eta kapa jarri zituen, azken horren gurutzea bere buruaren atzean jarritz. Lasai begiratu zien ikusleei, hitz egiteko baimena eskatu zuen, eta argi eta garbi ahoskatu zuen 'Germinal' hitza (Germinal zen Frantziako egutegi errepublikarrean zazpigarren hilabeteari emandako

izena, 1792tik 1806ra, martxoaren 21ean hasten zen eta apirilaren 29an amaitu). Hiltzailea garroteko aul-
kian eseri zen, bitartean borreroak burdinazko lepokoa
estutu zion lepo inguruan. Borreroa Angiolillo preso-
aren aurpegia estaltzen hasi zenean, Angiolillok eskatu
zuen estali gabe uzteko. Garrotearen torlojuak buelta
eman zuen, lepokoa estutu, eta Angiolillo hil zen. Bere
gorpua erakutsi zuten arratsaldeko 6ak arte, noiz eta
lurperatu baitzuten. Ikusle guztiak asko harritu ziren
anarkistaren jarrerarekin».

Germinal hitzak udaberria irudikatzearekin ba-
tera badu ere bere baitan ereina den haziaren ideia,
Xabier Letek *Izarren hautsa* bertsoetako «sortuko dira
besteak». Louise Michelek, Victor Hugok ez bezala, ez
du ezagutu Euskal Herria. Baina badu olerki bat, Ber-
garako presondegi horretara daramana, Angiolillori
eskainia, «Germinal» deitzen dena, hain zuzen. Liburu
honetan aurki daitekeena.

Industrializazioaren aroa, ideologia kolonialista boterean dela

Haziak, memento hartan ez dira, hasteko, hain
errazki ereinen Euskal Herrian. Apaizeriaren kopurua
handitzen ari den bezala, gero eta gehiago dira Eus-
kal Herritik joaten direnak. Emigrazioa bere gorenean
dago. 1832tik 1891ra kasik 80.000 joan dira Ipar Euskal
Herritik ofizialki. Jakinez zifra ofizialen ondoan, ha-
marnaka mila izan direla klandestinoki joanak. Paper
ofizialak eskas edo armadari ihes edo biak.

Eta ideologia kolonialista boterean dago Parisen,
Gambetta eta Jules Ferryrekin, besteak beste.

Testuinguru hori ere bada Louise Michelek Ka-
ledonia Berrira eramaten duena 1873tik 1880ra. Eta

testuinguru horretan, hain zuzen, *Légendes et chants de gestes canaques, avec dessins et vocabulaires* (1885, *Jestu kanaken kondaira eta kantuak, marrazki eta hiztegiekin*) idatziko du Michelek, 17 urteko Charles Malato deportatuak lagundurik. Kondairez gain, tokiko hizkuntzen lexiko bat ere sartuko dute barnean. Hots, haien kulturari halako ezagupen bat eskaintzen diete Michelek eta Malatok. Liburu arraroa, ordurako, testuinguru horretan. Gizajale lanjerosak baizik ez direla izaten ahal kanakak baitiote antizek. Garaikoak dira zoo humanoak.

1878ko kanaken oldarraldia ere ezagutuko du han Michelek, nahiz eta ez duen parte hartu zuzenki. Victor Hugori, kanakek erasotu zuriak diruz laguntzeko eskatuko dio. Baina gerora, bere memorietan haxe idatziko du: «Dena aitortu behar ote dut? Nire adiskide beltzak ditut damutzen batez ere. Salbaiak, begi dirdiratsudunak. Beren bihotzak, haur bihotzak. Eta bai, maite nituen. Oldarraldi garaian libertatea lor dezaten desiratzea leporatzen zidatenek arrazoa zuten. Suntsipenaren bidez agerrarazi nahi den nagusitasuna gelditi dezagun behingoz».

Louise Michelek Boumezrag El Mokranirekin trukatzeko aukera ere izan du Kaledonia Berrian. Bere memorietan azaltzen du nola adiskidetu den harekin. Boumezrag El Mokrani kabiliarra da eta Aljeriaren askapenaren alde borrokatu diren beste hainbatekin Kaledonia Berrira deportatu dute 1873an. Gauzak nola diren. Komunako kideak amnistiatu badituzte, kabiliarrak ez. Alta, 1878ko kanaken oldarraldian, europarren alde eta kanaken aurkako zapalkuntzan parte hartuko dute, amnistiaren esperantzarekin. Baina bigarren mailako hiritarrak izaten segituko dute. Louise Michel bera beste batzuekin aljeriarren amnistiaren alde borrokatu da, ordea. Eta bere adiskideari hitz eman

bezala, Aljeriara mintzaldi bat ematera joanen da 74 urte dituela, eta handik bueltan da hilko, hain zuzen, 1905ean, Marseillan.

Ikerketen aroa

Bizkitartean, kanaken kondairen liburura berriz itzuliz, ez da kasualitatea ikertzeko gogo hori. Dena ikertzen eta sailkatzen den aroa da. Sailkatzen da fauna, flora, eta humanoak ere. Louise Michelek berak ikerketa botanikoak egiteko baliatzen du bere Kaledonia Berriko egonaldia. Europan ezagutzen ez diren landareak *deskubritzeko*.

Kontua da batzuek ikerketak humanoak elkar ezagutu eta hobeki elkartzeko erabiltzen dituztela, besteei, aldiz, gizakiak hierarkizatu eta arrazakeria teorizatzeke. Preseski, hor aurkitzen da Errepublikaren kontraesanetako bat. Nola izan daiteke «askatasuna, berdintasuna eta anaitasuna» lelotzat, eta bitartean horrela tratatu jende batzuk. Hau da, jendeak ez balira bezala. Jules Ferryk bezala, beste ezkerreko pertsona anitzek ez dituzte eskas kontraesana esplikatzeke arrazoiak. Victor Hugo bera ere honela mintzatu zen 1879an: «Mediterraneoan zibilizazio laku bat da; ez du debaldetan alde batean unibertso zaharra eta bestean kasurik egiten ez zaion unibertsoa. Erran nahi baita alde batean zibilizazio guztia eta bestean basakeria guztia».

Kontua da ere Frantzia eta Alemaniaren arteko gerla, garaian Prusia zena, eta Frantziako estatuaren porrota ezin irentsiz ari direla Frantziako estatuan. 1870eko Sedango galtzea izpirituak azkarki markatuko ditu. Alsazia eta Lorrena *galdu* izana. Eta bada alemanei begira sentitzen duten konplexutik zerbait. Funtsean,

Lehen Mundu Gerra hortik ere etorriko da. Eta hortik ere edanen du politika espantsionistak.

Horiek horrela, kanaken kultura ikertzen den bezala, ez da kasualitatea ere euskara eta euskal kulturaren bilketa eta azterketa anitz ordukoak izatea. Zenbait erreferentzia aipatzearren, Xahok berak ikerketa andana bat argitaratzen du, baita mitoak ere. Louis-Lucien Bonaparte printze, politikari eta filologoak, lan talde zabal batekin euskalkien mapa ateratzen du 1863an. Jean-François Bladé magistratu eta historialariak euskaldunen jatorriaz 1868an. 1870an Jean-Dominique Sallaberrik euskal kantu herrikoiak ditu bilduko eta argitaratuko. Bertan da agertzen, adibidez, Bereterretxeren kantua lehen aldiz idatzia. Wentworth Websterrek eliza anglikanoaren kapilauak *Basque Legends* argitaratzen du 1877an, eta Jean-François Cerquand inspektoreak, Euskal Herriko kondairak eta ipuinak 1886an.

Batzuek euskara eta euskaldunak mitifikatzeko dituzte erabiliko ikerketak, hauen artean Xahok. Besteek gaitzesteko, Bladé kasu. Lan guztiek ez dute balore zientifiko eta kultural bera. Funtsean, Louise Michelek utzi kanaken kondairak ere ez dira hain zientifikoak. Harekin deportatu duten Joannès Catonek —Saint-Etienneko Komunan parte hartu izanagatik— abisatua du biziki bereziak direla. Osoki Louise Michelek irudimenetik direla jalgiak. Baina, gutxienez, dela Michelenek zein besteek, guztiek aztarnak utziko dituzte.

Gerezien denbora

Karrika izen eta historia ofizialek ez baitute dena egiten. Zailtasunak zailtasun, aztarna batetik

bestera, transmisio saiakerak ere izan, badira. Hauen adibide bat hementxe. 1997, Donibane Garaziko lizeo publikoan. Euskara irakaslea Antton Luku idazle eta antzerkilaria da. Antzerki tailerrak segitzeko aukera eskaintzen die ikasleei. Urte hartan *Gerezitzea* izeneko antzerkia sortzen dute. Abiadura handiko trenbide proiektu erraldoi bezain inutil bat du oinarri antzerkiak. Batzuk dirua bereganatzeko erabiliko dute proiektua, hauen artean Prospero eta Animal daude. Bi etsai, biak proiektua irabazi nahian. Bitartean, besteak, langileak, esplotatzen dituzte. Baina azkenean dena galduko du Prosperok, dirua eta bere haurtzaroko gerezitzea. Gerezitzetik pasatzen baitzaio trenbidea. Orduan, iluntzen da taula gaina eta berriz argia piztearekin, Fani, Prosperoren alaba, gereziak jaten eta hezurak lurrera botatzen agertzen da. Azken hezur bat landatuko du. Berriz beltza, eta berriz argia. Eta hor, aktore guztiak koru moduan kantuz hasiko dira. Zer eta, *Gerezien denbora* euskaraz. Komunako kantua bilakatua, Baptiste Clémentek idatzia 1866an. Publikoa segituan harrapatu du kantuak, sentitzen da.

Horra hemen kantua. Hitzatze honen azken hitza honek eraman dezala:

Gerezien denbora
Kantatuko dugularik gerezien denbora
erresiñol alegera xoxo trufalea
oro bestan dirade
Andereek dukete hegoa gogoan
eta amorosek eki bihotzean
Kantatuko dugularik gerezien denbora
txistuko hobeki xoxo trufalea

bain'oso labur da gerezien denbora

Binazka joaitea ametsen biltzea
beharritako pententak
Amodiozko gereziak gonak idurikoak
Ostolat erortzen odolezko kotetak
bain'oso labur da gerezien denbora
Korailezko petentak ametsez biltzen direnak

Heltuko zidelarik gerezien denboralat
Amodiozko penen lotsa bazide
Anderetarik egon aparte
Nik ez dudalakoz pena krudelen axolik
Ez niz egonen sekulan ukan gabe
Heltuko zidelarik gerezien denbolarat
Baduzketzi ere amodio xangrinak

Beti maite duket gerezien denbora
Denbora hortarik begiratzen baitut
Piko bat zabala
Eta dama fortuna ukenu gatik
Sekulan ez duket pena ihesi
Beti maite duket gerezien denboralat
Et'orotzapena bihotzean egon zaidana

Nora Arbelbide Lete
Baiona, 2020ko urria

Iturriak.

Xipri Arbelbide, *Lohilakat: ipuia eta historia* (Antoine d'Abbadie 1897-1997 jardunaldiak, Hendaian Eusko Ikaskuntzak Euskaltzaindiak antolatuta).

Xipri Arbelbide, *Xuri-Gorriak*, Elkar: Baiona 2007.

Argia aldizkaria, Angiolillo ausart hil zen, 2013ko abuztuaren 22a.

Pier Paul Berzaitz, *Gerezien Denbora*, Xiberoa Kantüz, 1996.

Pantxo Etchandy, *La III République au Pays basque 1870-1940*, Elkar: Baiona 2017.

Xavière Gauthier, Louise Micheli *buruzko hitzaldia* Parisko Arsenal liburutegian, 2012an.

Manex Goienetxe, *Histoire general du Pays basque : Le XIX siècle : 1804 -1914: Tome 5* , Elkar: Baiona 2005.

Manex Goienetxe, *Xuri gorriak euskaltzaleen artean* Albert Goyenetxeren garaian, Euskaltzaindia: Baiona 2000.

Jean-Baptiste Orpustan, *Emeute du 25 avril 1848, jour de foire de Pâques à Saint-Jean-Pied-de-Port*, eta «*Prise de la Bastille*» à Saint-Jean-Pied-de-Port le 25 avril 1848.

Jacques Ospital, *Afrikanoak, Le Pays basque et l'Afrique*, Elkar: Baiona 2005.

